



Mikelete-postuen eta arielen sasoiara begira

Gema Varona kriminologoari elkarrizketa



## EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2024



Aitor Urrutia (EAJ),  
Rebeka Ubera (EH  
Bildu) eta Alberto  
Alonso (PSE-EE),  
boto-paperekin,  
eguztenez  
Goiena telebistan.

## HERRITARREN BOTOA ESKATU DUTE HAUTAGAIEK

Debagoieneko hautagaiak Goianan izan dira euren proposamenak azaltzen; batik bat, trantsizio ekologikoa eta osasun sistema izan dituzte eztabaidagai / 2

XABIER URTZELAI

**Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan bederatzia debagoiendar ariko dira; Eskoriatzan hasiko da, eguenean / 34**



### SINADURAK

	MIKEL ARROABE / 16
	LANDER BELOKI MENDIZABAL / 8
	ALEX ARTEAGA / 21
	ANE SANCHEZ ZEZIAGA / 11
	MIKEL ABERASTURI / 29

**Galeano eta Barrocal, Ados binakako eskupilotako txapelaren bila**

Antzuolarrak eta bergararrak bihar, zapatua, jokatuko dute elkarren aurka Antzuolan, 18:00etan hasita / 32



Leire Galeano eta Maddi Barrocal, astelehenean, Antzuolako pilotalekuan. I. BELOKI

## BULEGOAK ALOKAGAI GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAN

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak  
60 eta 1.000 m2 artean



Informazioa:  
ptgaraia@ptgaraia.eus  
943-03 88 46



# Trantsizio ekologikoa eta osasun sistema berbegai hautagaien debatean

Goiena telebistak Aitor Urrutia (EAJ), Rebeka Ubera (EH Bildu) eta Alberto Alonso (PSE-EE) Debagoieneko hautagaiekin egin du hauteskunde debatea, domekara begira

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARRASATE Apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderen bueltan, Goiena telebistak zerrrendetan doazen EH Bilduko Rebeka Ubera, EAJko Aitor Urrutia eta PSE-EEko Alberto Alonso hautagai debagoiendarekin debatea egin du. Hauteskunderetara aurkeztu diren alderdi politikoen hautagaitza-zerrrendetan doazen euskal hiztun debagoiendarrei egin die debatean parte hartzeko gonbita Goiena Komunikazio Taldeak.

Txomin Madinak gidatutako ordubete eta erdi inguruko debatean, hauteskunde kanpainan nagusi izan diren gaiak jorratu dituzte, hala nola osasungintza, etxebizitza, ekonomia eta industria, trantsizio ekologikoa, Hezkuntza Legea, euskara eta gobernarritasuna.

## Osasun sistema

Osakidetzaren gainbehera izan da berbegai debatego lehen blokean, eta, besteak beste, pribatizazioaz egin dute berba. EAJko Aitor Urrutiak (Eskoriatza, 1973) azpimarratu du Osakidetzak eredu izaten jarraitzen duela, eta, pribatizazioaren harira,

gehitu du osasun zerbitzuen %5 dela pribatua; haren esanetan, "Espainiako Estatuko baxuena. European ikusten dugu sistema asko daudela koordainketakoak, sarri erreferentziatzen hartzen ditugunak. Eta gurea da publikoa, doakoa, eta horrela izaten jarraituko du".

"Herritarrek esaten dute euskal osasun zerbitzua ez dela eredugarria", dio EH Bilduko Rebeka Uberak (Elgeta, 1972). 2024ko aurrekontuetan arlo soziosanitarioan pribatizazioa %47 dela azpimarratu du, eta osasun mentalaren eta larrialdi zerbitzuen adibideak ekarri ditu. Bestalde, pertsonalaren behin-behinekotasunak amaitu egin behar duela dio. Proposatu du pertsonal-politika errotik aldatzea, alderdiaren ustez Osakidetzaren gainbeheraren arrazoi nagusia hori delako: "Kontratu luze, egonkor eta erakarriak planteatzen ditugu".

PSE-EEko Alberto Alonsok (Oñati, 1976) adierazi du dena ez dela lehen arreta, eta gertutasunezko zerbitzuak indartu egin behar direla lehen arreta sistema erdigunean jarrita. "Itxarote-zerrenda murrizteko

behar-beharrezkoa da osasun profesional gehiago, giza baliabideak izatea ezinbestekoa da, baina dena ez da lehen arreta". Etorkizunera begira dio analisi "sakona, zintzoa eta zehatza" egin beharko dutela osasun sistemaren ahuleziak zeintzuk diren eta nola konpondu daitezkeen defintzeko: "Sistema publikoa doakoa, unibertsala eta ekitatiboa berreskuratzeko eta berriro ere gure osasun sistema erreferente gisa edukitzeko. Behin egin genuen eta berriro ere egin dezakegu".

**"GURE OSASUN SISTEMA PUBLIKOA ETA DOAKOA DA, ETA HORRELA IZATEN JARRAITUKO DU"**

**"INDUSTRIA IZANGO DA HEMENDIK AURRERA ERE GURE EKONOMIAREN MOTORRA"**

AITOR URRUTIA, EAJ

## Etxebizitza

2015ean Eusko Legebiltzarrak onartutako Etxebizitzaren Legearen kontra bozkatu zuela EAJk aurpegiatu diote Urrutiari Uberak eta Alonsok, eta hautagai jeltzaleak bere burua defendatu du esanez euren egiten dituztela Legebiltzarretik ateratzen diren lege guztiak: "Legearekin lan egin dugu sozialistekin koalizioan. Albertok ondo daki hori".

Alabaina, alokairuko etxebizitzaren kopuru urriaz hautagai sozialistak adierazi du konponbidea dela alokairu sozialen kopurua handitzeko politikekin jarraitzea. "Gure konpromisoa aurrekontuetan diru kopurua handitzea izango da", besteak beste, alokairu sozialerako etxebizitzak eraikiz edota itxita dauden etxebizitzak erosiz eta alokairu sozial-publikoen bidez herritarren esku jarritz.

Hautagai jeltzalearen ustez, arazoa da 2010etik 2022ra etxebizitza kopurua erdira jaitzi dela, eta horri gehitu dio eskaerak gora egin duela. Alokairua indartu egin behar dela dio, baina hori ez dela irtenbide bakarra. Horregatik, proposatu

**"BEHIN-BEHINEKOTASUNA DA OSAKIDETZAREN GAINBEHERAREN ARRAZOI NAGUSIA"**

**"BERRIKUNTZAREN ETA TEKNOLOGIAREN ALDEKO APUSTU IRMOA EGIN BEHAR DELA ARGI DUGU"**

REBEKA UBERA, EH BILDU

du, adibidez, babestutako etxebizitza kopurua igotzea, eta, horrekin batera, BOEn ehuneko bat gordetzea Etxebiden denbora gehien daramatenendako.

Ezker abertzalearen hautagaiak dio Europako emantzipazio tasa baxuena dela Euskadikoa, eta azaldu du etxebizitza politikak egiteko errekurtsoak izan arren Jaurlaritzak ez duela nahi izan "etxebizitza politika aktibo bat egin". Horregatik, prezioak jaitzeko eta eskaintza handitzeko lan ildoak proposatu ditu: "Garbi daukagu dauden etxebizitza zaharrak berriro egin behar direla etxebizitza hutsak merkaturatzeko eta etxebizitzaren erosketarako publikoa handitzeko".

## Ekonomia eta industria

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia "lehiakortzat" definitu du Urrutiak, eta industria transformazio "berri eta sakon" dagoela adierazi du: "Industria izango da hemendik aurrera ere gure ekonomiaren motorra, kalitatezko enpleguaren sortzailea". Indargunetzat hartu du formakuntza profesionala. Finkatuz fondoa indartzea

**"ANALISI SAKONA EGIN BEHARKO DUGU OSASUN SISTEMAREN AHULEZIAK ZEINTZUK DIREN DEFINITZEKO"**

**"KRISI KLIMATIKOA UKATUZ, EZIN DUGU DENBORA GALDU ALDAKETAK GERORAKO UTZIZ"**

ALBERTO ALONSO, PSE-EE

Alba García

Bozkatu

Sumar



Ezkerretik eskuinera, Aitor Urrutia (EAJ), Rebeka Ubera (EH Bildu) eta Alberto Alonso (PSE-EE), Goiena telebistako platoon. x.u.

proposatu du, eta "proiektu estrategiko eta teknologikoen dako fondo berri bat" sortzea.

Finkatuz fondoaren herena erabili dela erantzun dio Uberak Urrutiari: "Tresnak baditugu, erabili egin behar dira, eta ez duena balio da ez erabiltzea". EAE bidegurutze batean dagoe-la iruditzen zaio elgetarrari, eta atzera egin dutela industriaren arloan. Berrikuntzaren eta teknologiaren aldeko "apustu irmoa" egin behar dela nabarmendu du, eta begirada enpresa txikietan ere jarri behar

dela, haien "ahultasunak" aztertzeke.

Industriak erronka digitala eta klimatikoa dituela mahai gaineratu du Alonsok, eta EAEko enpresek trantsizio energetikoaren "protagonista" izan behar dutela: "Berandu gabiltza. Krisi klimatikoa ukatuz ezin dugu denbora galdu, egin beharreko aldaketak gerorako utziz".

#### Trantsizio ekologikoa

"2021eko Jasangarritasun Energetikoaren Legeak agindu bat ematen zuen lurralde plan sekto-

rial bat egiteko, baina ez zen egin. Ondorioz, proiektuak oso modu desordenatuan mahai gaineratzen ari dira", azaldu du EH Bilduko hautagaiak. Instalazio proiektu txikiekin bakarrik nahikoa ez dela izango esan du; hala ere, proiektuak banan-banan aztertu behar direla, baldintza guztiak "zehatz-mehatz" aztertu eta horren arabera erabakiak hartu.

Industria erregai fosilak erabiliz hazi dela azpimarratu du PSE-EEko hautagaiak. Hala ere, lehentasuna "autokontsumoa eta komunitate energetikoak"

direla dio: "Horrela egin dugu eta hala egiten ari gara. Berandu gabiltza, eta bide guztiak aztertu beharko ditugu. Hemen-dik 2045era neutralak izan behar dugu, eta, horretarako, behar-beharrezkoa izango da eolikoak gure mendietan jartzea".

Urrutiak balioa eman dio akordioari, eta, eolikoei dagokienez, uste du herritarrek ezin dutela pentsatu halako proiektuak egin behar direnik, baina haien herriko mendietan ez: "Uste dut planifikazioa behar dela: zenbat egin, non, zertarako, zenbateko kostua...". Hala ere, honako hau gehitu du: "Badakigu bailaran zer gertatu den eta ze erresistentzia egon diren. Mendi mar txak ez dira Batzokitik ateratzen".

Azken horri erantzun dio Uberak; esan du mendi mar txak garrantzitsuak direla eta kezka guztiei erantzun behar zaiela: "Jendeari gauzak azaldu eta euren kezkek mahai gaineratzean, elkarlanean gauzak konpondu daitezke". Ados agertu da hautagai jeltzalea herritarrek entzutearekin, baina hau dio: "Agian, lehenik, esan behar dieguna da zer kostu izan dezakeen hori ez

egiteak. Hemen mendiak urratzea ez da afizioagatik egiten, premia dagoelako egiten da".

#### Hizkuntza politika

Hirurek hizkuntza politikaz, euskaraz, hitz egitea aukeratu dute debatearen azken txanpan. Urrutiak hartu du hitza eta esan du hizkuntza berdintasunaren eta herritarrei aitortutako eskubideen alde daudela. Azaldu du hizkuntza normalizazioaren alde egingo dutela, akordioaren eskuatik eta herritarren babesarekin: "Orain arte egin duten moduan".

"Aitorrek aipatu du akordioak herritarren eskuatik egitea, baina hori egin behar da hizkuntza politika maiuskulaz egiteko. Lege-gintzaldi hau aukera galdua izan da. Hainbat lege onartu ditugu eta guztietan hizkuntza politikan egon da arazoa. Marko juridikoan, eskubidea onartzetik eskubidea gauzatzeko neurri zehatzak behar ditugu", dio Uberak.

Sozialistak azpimarratu du eleaniztasunaren alde borrokatu direla. Euskararen Legea 1982koa denez, hurrengo lege-gintzaldian akordio berria lantzea proposatuko dutela gehitu du.

#### AITOR URRUTIA EAJ



#### "Herritarra harro badago duen herriarekin eta bizi-kalitatearekin, EAJ da haren eredia"

"Nik eskatuko diet debagoiendarrei euren buruari galdetzeko ea harro dauden euren herriaz, ea gustura dauden dugun bizi-kalitateaz, ea aberastasuna sortu eta banatzen jarraitzea gura duten, ea abertzaleak diren, ea euskaltzaleak diren... Hori guztiari baietz erantzuten badiote, euren eredia EAJrena da. Horrela jarraitzeko guk hartzen dugu konpromisoa, eta gura genuke herritarren botoa eduki. Horregatik eskatzen dizuet zuen botoa".

#### REBEKA UBERA EH BILDU



#### "Adierazi nahi dizuet gure konpromisoa duzuela entzuteko, lanerako eta elkarlanerako"

"Nik herritarrek animatuko nituzke bozkatzera. Eskaintza ezberdinak dituzte; aztertu, baina bozkatzera animatu. Adierazi nahi dizuet gure, EH Bilduren, konpromisoa duzuela entzuteko, lanerako eta elkarlanerako. Eta apirilaren 21ean bozkatzetik haratago, oso garrantzitsua da apirilaren 22tik aurrera ere parte hartzen jarraitzea, gainean egotea, politika elkarrekin egitea eta demokrazian sakontzen jarraitzea".

#### ALBERTO ALONSO PSE-EE



#### "Herritarrei berriro dei egiten diet etorkizuna bermatzeko PSE-EEri eman diezaioten botoa"

"Duela hilabete batzuk, Espainiako Kongresurako hauteskundeetan, milaka euskaldunek alderdi sozialistari eman zioten botoa eta alderdi sozialista izan zen hauteskunde haietako irabazle. Gaur, domekari begira, duela zenbait hilabete sozialistei botoa eman zieten herritar guztiei berriro ere deitzen diet gure etorkizuna bermatzeko, egonkortasuna emateko, aurrerapena izateko eta elkarbizitza bermatzeko alderdi sozialista bozkatu dezaten".

bertako  
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA  
100€-tik/hileko

IGOGAILUEN  
MANTENTZE-LANEN  
ESKAINZA  
ZORROTZENA

2.500 bezerok gugon  
dute konfiantza

943 903 450  
bertako.eus



# EH Bilduren ekitaldi nazionala Arrasaten

Ekitaldi nazionala egin zuen EH Bilduk apirilaren 15ean Arrasaten, Kulturateko klaustroan; hain zuzen ere, Debagoieneko alkateak eta zinegotziak eta Eusko Legebiltzarrerako EH Bilduren Gipuzkoako hautagaiak izan ziren bertan

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA  
Ekitaldi nazionala egin zuen EH Bilduk joan den apirilaren 15ean Arrasaten. Goraino bete zen Kulturateko klaustroa, eta Debagoieneko alkateak eta zinegotziak eta Eusko Legebiltzarrerako EH Bilduren Gipuzkoako hautagaiak izan ziren.

Arrasateko alkate Maider Morrasek eta Gipuzkoako hautagai Nerea Kortajarenak eta Arkaitz Rodriguezek hartu zuten hitza ekitaldian. Morras izan zen hiruretan lehena. EH Bilduren proiektuaren atzean jende oso konprometitua ikusten duela nabarmendu zuen. Jarraian, Arrasatek aldaketa baten beha-



Nerea Kortajarena berbetan Kulturateko klaustroan, Arrasaten. GOIENA

rra zuen gisan, Gipuzkoa, Bizkaian eta Araban aldaketa baten beharra dagoela aipatu zuen: "Herri honi eskerrak, eta herri honetan gertatutakoa errepikatu behar da. Guk aldaketa baten beharra eskatzen genuen eta uste dut EHko hiru herrialde hauetan ere aldaketa beharrezkoa dela, aldaketa sentitzen dela eta ilusio berezia dabilela".

Kortajarena izan zen hurrengo hitza hartzen. Pozez hartu zuen herritarrek EH Bildu gobernatu dezakeen indar bezala ikusteak, eta etorkizuna erakitzen dabilzala adierazi zuen: "Guk gaurdanik erakitzen dugu etorkizuna, eta gero eta gehiago gara".

Zerbitzu publikoetan jarri zuen arreta Kortajarenak, eta adibide bezala Arrasate jarri: "Hemen Arrasaten eta bailara osoan ezagutzen duzue gure egiteko modua eta zerbitzu publikoak ulertzeko gure modua. Uste dut badugula asko ikasteko, eta zuek markatutako bidetik jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu Legebiltzarrean irekiko den bidean eta herritarrek jartzen gaituzten bide horretan".

Rodriguez izan zen azkena hitz egiten. Hark ere aldaketaren beharra nabarmendu zuen: "Apirilaren 21ean botoa betikoei eman, betikoekin elkar daitezten, betikoa egiten jarraitzeko, edo EH Bilduk eskaintzen duen aldaketari bide ematea aukeratu behar da". Zerbitzu publikoen "kudeaketa txarra" ere nabarmendu zuen: "Beldurra eta gezurrak zabaltzen dituzte txipiroi-tinta gisa, beren erabakien ondorio negargarriei buruz hitz egin ez dadin. Ikusi besterik ez dago Osakidetzarekin gertatzen dena, gobernantza dekadente baten ikurra".

## Bergaran ekitaldia atzo

Atzo ere ekitaldia izan zuen EH Bilduk; kasu honetan, Bergaran. Seminarixoko karpan izan zen agerraldia eta Arkaitz Rodriguez bertaratu zuen.

## ZERBITZU PUBLIKOEN GARRANTZIA NABARMENDU ZUEN EH BILDUK EKITALDI NAZIONALEAN

# Osasungintza bermatu nahi dute jeltzaleek

Debagoieneko Ospitalearen aurrean agerraldia egin zuen Euzko Alderdi Jeltzaleak; Maria Eugenia Arrizabalaga eta Aitor Urrutia hautagaiekin batera EAJren Eusko Legebiltzarrerako Debagoieneko hautagaitza ere batu zen



Maria Eugenia Arrizabalaga, Debagoieneko Ospitale aurrean. GOIENA

## G.B.Z. DEBAGOIENA

Debagoieneko Ospitalearen aurrean agerraldia egin zuen Euzko Alderdi Jeltzaleak. Maria Eugenia Arrizabalaga eta Aitor Urrutia hautagaiak bertaratu ziren, eta haiekin batera EAJren Eusko Legebiltzarrerako Debagoieneko hautagaitzako kideak.

Arrizabalaga izan zen hitza hartu zuen lehena. Arrizabalagaren arabera, EAJk beti sinetsi du Osakidetzan eta haren jardunean: "Herritarrengan sinesten dugulako eta gure helburua delako ahalik eta zerbitzu publiko onena eskaintzea, herritarrek gero eta hobeto bizi daitezten". Jarraibide

garbi bat dutela ere adierazi zuen: "Zerbitzuak berrantolatzea, herritar guztiek pertsonengan zentratutako osasun-arreta kalitatezkoa, unibertsala eta doakoa izan dezaten, eta, aurrerantzean ere, zailtasunak zailtasun, EAJren zeregina arazoaren aurrean konponbideak bilatzea izango da, orain arte egin dugun moduan".

Osasungintzan egindako inbertsioak etengabe gora egin duela adierazi zuen, eta hautagaiak datu bidez gezurtatu nahi izan zuen EH Bilduk izandako "estrategia elektoralista. Aurten ia 4.900 milioi eurora iritsi da, duela 4 urte baino 1.000 milioi gehiago, eta Erkidegoko biztanle bakoitzeko 2.229 euro. 4.900 milioi horietatik, %65, hau da, 2.564 milioi, langileentzako dira".

Jarraian, Urrutia eskoriatzarrak hartu zuen hitza. Debagoienean aurreikusitako inbertsioak azaldu zituen hark. Arrasaten eguneko ospitale mediko-kirurgikoa, medikuntza fisikoko eta errehabilitazioko eremua, endoskopia-unitatea, larrialdi-zerbitzua eta erresonantzia magnetiko nuklearreko zerbitzua

hartuko dituen eraikin berria eraikitzen hasiko direla nabarmendu zuen: "Guk berme osoz esan dezakegu EAJk hitza betetzen duela, datozen hilabeteetan eraikitzen hasiko baitira 29 milioi euroko aurrekontua duen eraikin hau".

## Oñatin ere agerraldia

Apirilaren 12an estreinatu zen *Arantzazu. 36 zm, 5 Mende, Herri 1* dokumentalaren estreinaldian izan ziren EAJko Debagoieneko hautagaiak, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiriarekin batera. Arantzazuk Euskal Herriaren eraikuntzan izan duen garrantzia berretsi zuen Zupiriak bere hitzartzean: "Arantzazu eduki sakonez betetako tokia da euskaldunontzat, gure iraganarekin, orainarekin eta etorkizunarekin lotzen gaituena".

## OSASUNGINTZAKO INBERTSIOAK ETENGABE GORA EGIN DUELA NABARMENDU ZUTEN JELTZALEEK



# Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, datutan

Domekan izango dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Hamahiru debagoiendar ageri dira hainbat alderditako zerrendetan. Horren harira, hauteskunde gauean zuzeneko saio berezia egingo du Goienak: telebistan eta sarean

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA Bertan dira Eusko Legebiltzarrerako hamahirugarren hauteskundeak. Zehazki, apirilaren 21ean, domekan, izango dira. 09:00etan irekiko dituzte hauteslekuak, eta irekita egongo dira 20:00ak arte. 75 ordezkari izango dira hautatuak egun horretan, 25 probintzia bakoitzetik.

## Hamalau alderdi

Hamalau alderdi aurkeztu dira, guztira, hauteskundeetara, baina guztiak ez dira hiru lurraldeetan aurkeztu. Gipuzkoan hamaika alderdi aurkeztuko dira: EH Bildu, EAJ, PSE-EE, Elkarrekin Podemos, Sumar, PP, Vox, Bidezko Mundurantz, Aulki Zuriak, Pacma eta Izan. Araban ere hamaika alderdi aurkeztuko dira: EH Bildu, EAJ, PSE-EE, Elkarrekin Podemos, Sumar, PP, Vox, Bidezko Mundurantz, Aulki Zuriak, Pacma eta Ongi Etorri. Azkenik, Bizkaia da alderdi kantitate handiena duen lurraldea, hamahiru: EH Bildu, EAJ, PSE-EE, Elkarrekin Podemos, Sumar, PP, Vox, Bidezko Mundurantz, Aulki Zuriak, Pacma, Izan, Partido Comunista de los Trabajadores de España eta Partido Humanista.

## Hamairu debagoiendar

Hamahiru debagoiendar aurkeztu dira hainbat alderdiren zerrendetan. EAJ da bailarako pertsona gehien dituen alderdia, zortzi ordezkariarekin: Elena Lete Garcia bergararra –zazpigarren–, Aitor Urrutia Oianguren eskoriatzarra –zortzigarren–, Marijo Etxegoien Arzuaga oñatiarra –hamargarren–, Agurne

**49.518  
DEBAGOIENDARREK  
IZANGO DUTE  
BOZKATZEKO  
ESKUBIDEA**

Juldain Alcalde arrasatearra –22. postuan–, Iosu Ezkurdia Santamaria eskoriatzarra –23. postuan– eta Xabier Otxoa Muñoz aretxabaletarra –24. postuan–. Maite Agirre Iribar bergararra eta Unai Elkoro Oianguren aretxabaletarra, berriz, ordezeko modura ageri dira.

Jarraian, EH Bildu eta Sumar alderdia daude, bakoitza bi debagoiendarrekin. EH Bildutik Lore Martinez Axpe aretxabaletarra –bosgarren– eta Rebeka Ubera Arantzeta elgetarra –zazpigarren– ageri dira zerrendetan. Sumarren, aldiz, Juan Luis Merino Sanabria eskoriatzarra –seigarren– eta Isabel Salud Areste bergararra –26. postuan– aurkeztuko dira.

Azkenik, bailarako ordezkari bakarrarekin Alderdi Sozialista dago. Alberto Alonso Martin oñatiarra da –laugarren–, baina, gainontzeko alderdietako debagoiendarren gisan Gipuzkoatik aurkeztu beharrean, Arabako zerrendetan doa oñatiarra.

## Hauteslekuak eta mahaiak

Debagoien osoan 21 hautesleku egongo dira aurten. Antzuolan, Aramaion, Aretxabaletan, Elgetan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan hautesleku bana izango da. Oñatin lau egongo dira, bost

Bergaran eta sei Arrasaten. Hauteskunde-mahaiak berriz, 78 izango dira. Elgetan eta Leintz Gatzagan bakarrak egongo dira, Antzuolan eta Aramaion bina, lau Eskoriatzan, zazpi Aretxabaletan, hamabost Oñatin, hamazazpi Bergaran eta Arrasaten, berriz, 29. Hauteskunde-mahaietan, guztira, 234 debagoiendar izango dira botoak jaso eta zenbatzen.

## Boto emaleak

49.518 debagoiendarrek izango dute botoa emateko aukera. Arrasate da botoa emateko pertsona gehien dituen herria; zehazki, 16.921. Jarraian, Ber-



2020ko hauteskundeetako boto zenbaketa. GOIENA

gara (11.245), Oñati (8.793), Aretxabaleta (5.561), Eskoriatza (3.231), Antzuola (1.598), Aramaio (1.138) eta Elgeta (861) daude. Azkenik, botoa eman dezaketen pertsona kantitate txikiena duen herria Leintz Gatzaga da (170). EAE guztia kontuan hartuta, 1.712.301 pertsonak dute botoa emateko eskubidea; horietatik, 557.054ek Gipuzkoan, 253.091k Araban eta 902.156k Bizkaian.

## Parte-hartzea beherantz

Azken urteetan beherantzko joera izan du hauteskundeetako parte-hartzeak Debagoiengan. 2016ko hauteskundeetan debagoiendarren %64ak eman zuen botoa. 2020ko hauteskundeetan berriz, %59a izan zen botoa eman zuena. Jaitsiera gehiago nabaritzen da 2001eko hauteskundeekin alderatuta, %81ak hartu baitzuen parte urte hartan.

DEBAGOIENEN  
**GREMIOAK**

**LOREZAINNTZA**

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**

**ARETXABALETA**

Basabe poligonoa  
D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 /  
616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

**ITURGINTZA**

**EGIA ITURGINTZA**

**ARRASATE**

Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
Tel.: 943 77 01 85

**URKO MANTENIMIENTO SL**

**ARETXABALETA**

Basabe industrialdea B-3  
Tel.: 943 77 19 88  
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Jasone Mendizabal, Jon Sarasua eta Imanol Larrea, eguaztenean, Mari Karmen Arrieta moderatzailearekin, Arkupen eginiko saioan. A.R.K.

# Euskararen iragana, oraina eta geroa, adituen ikuspegitik Arkupen

'Euskara, aurrera ala atzera goaz?' galderan sakondu dute euskararen arloan dabilzan aditu debagoiendarrek Aretxabaletan: bi norabidetan dela diote batzuek, eta "ezin gora egin" edo "lainopean" beste batzuek. Hala ere, aurrerako gakoak eman dituzte

## Amaia Ramirez de Okariz

### Kortabarria ARETXABALETA

Euskararen iraganaz, orainaz eta geroaz aritu dira Imanol Larrea Soziolinguistika Klusterreko zuzendaria, Jon Sarasua Euskaltzaindiko kidea eta Jasone Mendizabal Euskaltzaleen Topaguneko zuzendaria, *Euskara, aurrea ala atzera goaz?* mahai-ingurua egin baitute aste honetan, hilaren 17an, Arkupe kultur etxean. Mari Karmen Arrieta Eskoriatzako Udaleko Euskara teknikariaren gidaritzapean, Arizmendi Ikastolaren 20. urteurrenaren harira antolatu dute.

Larrea izan da hitza hartzen lehena, eta hiru ideia azpimarratu ditu: "Batetik, eskapada ederra egin dugu: XX. mende hasieratik hizkuntza, euskara desagertzera zihoan, eta horren eboluzioa izango litzateke gaur egun leku gutxi batzuetan jende gutxi batzuk hitz egitea, baina 1970eko hamar-

kadan lortu genuen horri buelta eman eta berriro ere goraka hastea". Eginiko lana "sekulakoa" izan arren, "nahikoa ez" dela dio, oro har, euskararen erabilera eta ezagutza "geldi" dagoelako, "gora egin ezinda", eta, beraz, ondorioztatu duenez: "Lekutan gaude oraindik".

Soziolinguistika Klusterreko zuzendaria, ordea, ez da hutsean gelditu, aurrera begirako asmoz jardun baitu epe labur eta ertainerako ikuspegia ez ezik luzerakoa ere aintzat hartuta: "Epe labur eta ertainean esango nuke zorrotz jokatu behar dugula, datuak-eta ondo aztertuta eta xehetasunei begira errealistak eta eraginkorrak izanda; eta, berriz, epe luzera begira, esango nuke txoro jokatu behar dugula, helburu utopikoak jarrita eta utopia horietan sinistuta, behetik datorren grafikoaren gorakadan eragin dezagun".

## Euskara, "lainopean"

Mahai-inguruan izan da Jon Sarasua ere, Euskaltzaindiko kide gisa, eta, galdera orokorri erantzunez, azpimarratu du euskara "aurrera eta atzera" doala: "Agian, hanka bat aurrera, beste bat atzean geldituta,

**"SEKULAKOA DA EGINIKO LANA, BAINA EZ DA NAHIKOA"**

**"EPE LABUR ETA ERTAINEAN ZORROTZ JOKATU BEHAR DUGU"**

**"HELBURU UTOPIKOAK JARRI ETA SINISTU BEHAR DITUGU"**

IMANOL LARREA, SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERREKO ZUZENDARIA

eta atzera ere bai, eta lainopean; hori da, beharbada, laburpen bat". Haren hitzetan, "ibilbide neketsu bat" eta "meritu handikoa" egin da azken 50-60 urteetan, baina dio "bisioak, estrategiak eta abar berrikusi" egin behar direla: "Lausotuta ditugu, lainope moduko bat dagoelako orain euskararen biziberritze prozesuan, baina dramatiko jarri gabe".

Krisi momentuak gauzak "birpentsatzeko" uneak direla uste baitu Sarasuak, baina, batik bat, erreakzionatzekoak. "Uste dut erreakzio bat behar duela une honetan euskal komunitateak. Orain dela 60 urte egon zen erreakzio indartsu bat, mundu mailan gutxi egon diren modukoak hizkuntza eta kultura baten alde. Hortik gatoz eta hor gaude, baina momentu honetan behar dugu erreakzio bat izan, kontrako faktoreak asko direlako eta berriro ere indartzen

**"LAINOPE ERAKO BAT DAGO EUSKARAREN BIZIBERRITZEAN"**

**"BIRPENTSATZEKO ETA ERREAKZIORAKO UNE DIRA KRISIAK"**

**"KOMUNITATE ZEIN ERAKUNDE, HOBETO BEHAR DA ANTOLATU"**

JON SARASUA, EUSKALTZAINDIKO KIDEA

dabiltzalako". Hala ere, aldi berean, nabarmendu du indarra ere badagoela, eta hori antolatzeari datzala auzia. "Hau aurrera atera dadin hobeto antolatu behar dugu, bai komunitate ikuspegitik, baita gobernu edo erakunde ikuspegitik ere".

## Euskara, bi norabidetan

Euskaltzaleen Topaguneko erronkez aritu da, azkenik, Jasone Mendizabal zuzendari orokorra, eta, "erantzun boro-bilik" ez duela aitortu arren, Sarasuaren eran, nabarmendu du euskara bi norabidetan doala: aurrera eta atzera. "Leku, espazio eta eremu askotan ikusi dugu euskararen irabazia; bereziki, ezagutzen. Noranahikoa izan daitekeen euskara hori irabazi dugu. Baina atzera goaz, bai lurraldeetan, bai eremu euskaldunetan". Hala ere, datuez harago, ikuspegia zabaltzeaz jardun du, ekosistemaz hitz egin beharraz.

Haren esanetan, "euskaraz eta euskara jendeaz" hitz egin behar da, "euskararen antolamenduaz eta dinamikaz", eta, hala, hori gogoan duen euskaltzaleen mugimenduaren ikuskerak izan du hizpide: "Ikuspegi askotatik heldu beharra dago aktibatze eta sareteko gaude, eta euskararen erabilera eragiteko. Bada, hori aintzat hartuta, gure azken bi urteotako lana eraldaketa sozialera dago bideratuta, jendarte eraldaketa; alegia, mugimenduen eraldaketa sakon batean gaude murgilduta". Ziurgabetasun handia dutela dio, baina ilusioa ere halakoa dela, eta baita aurrera egiteko beharra ere, "ezer egin ezean euskarak atzera" egingo duela iritzita.

**"BI NORABIDE DITU EUSKARAK: AUERRERA ETA ATZERA"**

**"EUSKARAZ ETA EUSKARA JENDEAZ HITZ EGIN BEHAR DA"**

**"ERALDAKETA SAKON BATEAN DAGO GURE MUGIMENDUA"**

JASONE MENDIZABAL, EUSKALTZALEEN TOPAGUNeko ZUZENDARIA



Aitor Pereda donostiarra Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa (FMPP) goi mailako zikloa egiten ari da Mondragon Goi Eskola Politeknikoan (MGEP), eta dual formakuntza Fagor Automation enpresan; aurretik, goi mailako beste heziketa ziklo bat egin du: Fabrikazio Mekanikoko Diseinua.

Aitor Pereda Loubet. Donostiarra naiz eta 22 urte ditut. Batxilergo teknologikoa egin ondoren, goi mailako heziketa zikloko ikasketak egitea erabaki nuen, ikasten dena praktikan jartzen delako hasiera-hasieratik eta, horrela, ikasten dena gehiago barneratzen delako.

MGEP aukeratu nuen, ate irekietako jardunaldietan ikusi nuena gustatu egin zitzaidalako, dagoen ekipamendua, erakusteko metodologia, praktika kopurua eta baita egoteko ostaturia ere eskaintzen zidatelako.

Fabrikazio Mekanikoko Diseinuak erakartzen ninduen eta goi mailako heziketa zikloa egin nuen MGEPn. Diseinuko zikloa bukatu ondoren, Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa egitea erabaki nuen, ziklo biak osagarriak direlako eta Diseinatutakoa nola fabrikatzen den sakon ikasten delako.

Klaseko giroa ona da, talde txikia da eta jatorri askotariko ikaskideak ditut, eta irakasleak guri laguntzeko gertu daude.

Aipatu bezala, ikasketa prozesua oso praktikoa da, maila handiko ekipamenduak erabili ditugu bai tailerrean eta baita laborategietan ere. Bi kurtso hauetan zehar hainbat

**“Fabrikazio Mekanikoko Diseinuak erakartzen ninduen eta goi mailako heziketa zikloa egin nuen MGEPn”.**

## Aitor Pereda (Donostia)

### Fabrikazio Mekanikoko Programazioaren Produkzioa Goi Mailako Heziketa Zikloa (GMHZ)

erronka izan ditugu, gero enpresetan izango ditugun antzerakoak; adibidez, lehenengo mailako erronkabatean, Aretxabaletako enpresa baten produktu bat landu genuen klasean. Gero, landutakoa enpresan aurkeztu genuen, eta, bukaeran, produktua nola fabrikatzen zen ikusteko aukera izan genuen. Oso interesgarria izan zen.

Duala Fagor Automationen egiten ari naiz, sarrerako kalitate departamentuan; makinetan erabiltzen diren elementu asko gure sekzioetik pasatzen dira eta guk ematen diegu onarpena. Duala –ikastea eta lan egitea aldi berean– oso esperientzia garrantzitsua da; asko aberasten ditu ikasketak, eta, gainera, curriculumenean lan esperientzia bezala jarri dezakezu.

Behin fabrikazioko ziklo hau bukatu ondoren, lan mundura joan nahiko nuke nire bizileku inguruan, nahiz eta prest nagoen edozein aukeratarako. Bi zikloak egin eta gero, ondo prestatua nagoela uste dut.

## Eman izena!

MGEP: 664 298 683  
664 298 704



**ATE IREKIAK: Maiatzak 4, 11:00**



ZABALIK

LANDER BELOKI MENDIZABAL

# Etorkizuneko oroitzapenak sortu

Prospektiba estrategikorako tresna garrantzitsuenetako bat eszenatokiak irudikatu eta bakoitzak sortuko dituen egoerak analizatzea eta ondorioak ateratzea da. 10 urtetik gorako epeetara begira etorkizuna aurreikusteko erabiltzen da. Ziurgabetasuna gailentzen den egoeretan erabakiak hartzen laguntzeko baliagarria da tresna hau.

Gizon-emakumeon garunak aurreikuspenak sortuz eta frogak eginez ikasten du. Gertakari hipotetiko bat aurrez bizi izateak egoera horretan emango genukeen erantzuna aurrez entrenatzeko aukera ematen digu. Hau da, etorkizuneko oroitzapenak sortuz gero, prestatuago egongo gara etorkizunean gertatu daitekeenerako. Dena dela,

## ETORKIZUNA POSITIBOA IZANGO DELA SINISTEAK GURE PORTAERETAN ERAGITEN DU

etorkizuneko oroitzapen hauek positiboak ala negatiboak izan daitezke eta bat izan ala bestea izan erabakigarria da.

Pertsonen psikologiak eragin handia dauka beren etorkizuna positiboa izango

dela aurreikusteko. Iraganari buruzko begirada negatiboaren eta etorkizunari buruzko irudi negatiboaren arteko korrelazioa erabatekoa da. Etorkizunari buruzko begirada negatiboak etorkizun positiboa irudikatu eta imajinatzen gaitasuna mugatu egiten du.

Etorkizuna positiboa izango dela sinistek presentean gure portaeretan eta erabakietan eragiten du. World Economic Forumek 24 herrialdeetako 6.000 parte-hartzaileekin egindako ikerketa batek horixe ondorioztatzen du; hau da, garapen ekonomikoan, aurrerapen zientifikoan eta komunitate solidarioagoa sortzeak dituen abantailetan sinistek banakoen portaerak eta ekintzak norabide horretara zuzentzen dituela.

Beraz, hari honi jarraiki, optimismo kontzientea beharrezkoa zaigu etorkizun positiboa eraiki nahi badugu. Motiboak ba al ditugu horretarako? Ez dakit, baina beharra, bai horixe!

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Gure bazterrak II

MAIDER GALARDI F. AGIRRE

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/XF6DE](https://labur.eus/xf6de)

Baztanetik etxera itzuli naiz, Lasarte-Oriara, Gipuzkoako periferietan egon gabe –horra Eibar eta Irun punta banatan– bazterretan bazterrenera. Amonarenean nago, bisitan berez, baina egiaz galtza batzuei barrenak hartzeko aitzakia baliatuta. Eskatu dizkiot hari beixa eta orratza, eta zentzugabeko puntadak eman ditut amona desesperatu den arte. Jantzi du berak titarea, hartu orratza, jarri galtzak magalean eta hasi da josten eta kontari. Nerabe zela

"jaitsi zen kalera"

Astigarragatik, bere aitak baserria utzi eta Michelin fabrikara lanera etortzeko familia guztia Lasartera mugitu zuenean. Amonaren ahizpa nagusi batek ondo josten omen zekien, eta berehala lortu zuen herriko jostun nagusiarentzako lantxo batzuk egitea. "Badakizu zer enkargatzen zion?", galdetzen dit amonak hanka bateko barrena bukatu eta bestearekin hasi behar duela aprobetxatuta burua altxa duenean. Pentsatu dut ezkontzetako jantziei buruz hasiko zitzaidala, baina fabrikako langileentzako mahonezko trajeak prestatzen zituela esan dit irriz.

Aurten Parisko *Marché aux Puces*-en 70 eurotan salgai ikusi ditut mahonezko galtzak, eta alkandorak beste hainbestetan. Izugarria iruditu zitzaidan hain langile klasearena den elementu bat horrela perbertitzea. [...] Irudi horiek buruan ditudala esan dit amonak bukatu duela eta probatzeko galtzak. Jantzi ditut eta primeran daude. Josteko kutxan soberakinak gordetzen ari dela pentsatu dut perbertsoa dela, halaber, hain langile klasearena den elementu hori gure iruditerian ere oso partzialki goratzea, hain fabrikako gizonena baita, eta hain gutxi etxean horiek josten zitzutenena.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzardea

Eneko Azkarate, Gaiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Leire Etxebarria.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
EGOITZA NAGUSIA  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 18.550 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK

## Eskerrik asko!

JUAN CARLOS BARQUERO

ARETXABALETA

Erretiroa hartu dudan egun honetan, bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet JMAko zuzendaritzari eta langileei, nirekin izan duten enpatiatatik eta eskaini didaten laguntzagatik.

Nabarmendu nahiko nuke JMAk gizartearekin eta integrazio lanarekin daukan konpromisoa.

Zalantzarik gabe, alderdi eredugarria industriari.

Eskerrik asko guztiagatik.

## Familiek euskara baztertu?

JOXEMARI MUXIKA ARRIETA

ARRASATE

2024-03-22ko GOIENAN Euskararen egoerari buruz Oñatin egindako *Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?* hitzaldiaren harira argitaratutako elkarrizketan agertzen diren zenbait baieztapenek zer pentsatua ematen dute.

Harritzekoa da Iñaki Iurrebaso soziologoak XX. mende hasieran familiek beraien hizkuntza baztertzea erabaki zutela adieraztea. "Familia eta kale giroan" egiten zen euskarari buruz, garai hartatik aurrera familia batzuek gaztelania "nahiago" izan zutela dio. Era berean, 1971 aldera susperraldia hastean "familia batzuek erabaki"

zutela "euskara ez transmititzea euren seme-alabei".

Familia haiek beste aukerarik ba ote zuten? Kolonizatzaileen aginduen menpe dagoen lurralde batean badago beste aukerarik? XXI. mendean zehar nola ez da suspertu orde geldotuko euskararen indartzea, politikariak aldatu arren *kolonizatzaileen* sistemak jarraitzen badu?

Gaurko egoerak argi utzi die gure bilobei euskara jakin arren ez daukatela erabilpen aukerarik. Itxurak egiteaz aparte ez zaiola beste baliorik ematen gure hizkuntzari. Lan esparru eta erakundeetan zein erabilpen duen begiratu besterik ez dago. Ondorioz, zein erabakimen erreal dute gurasoek erabilera eta transmisioa erabakitzeko?

Erabaki dezagun *benetan* mota guztietako erakundeek euskaraz funtzionatzea eta jar dezagun ulertzen ez dutenentzako itzulpena.

Har dezagun euskara balioesteko erabakia.

## Mila esker!

KONTXI CASTRO

ARRASATE

90 urte inguru igaro dira Muruamendiaraz-Bastarrika familiak Arrasaten gozogintza alorrean erreferentea den proiektua hasi zuenetik. Nik, orain dela hamar urte, izen horrek

eginiko bideari jarraipena emateko ohorea izan nuen.

Urte hauetan zehar Arrasateko herrian nire lekua egin ahal izan dut aitzindaria izan den negozio honen bitartez. Une goxoak bizi izan ditut, zuek guztiok ospakizun berezietarako, alai zein ez horren alaietarako denda honek eskaintzen zituen produktuak aukeratu izan dituzuelako.

Muruamendiaraz izenak dakarren konfiantza eta gertutasuna sentitu ahal izan dut zuen guztion aldetik.

Hamar urte hauetan bezero fidel asko izan zarete egunero gosaltzera, ogia erostera eta arratsaldeko mokadu goxoa hartzera etorri zaretenak. Nire eskerrik beroenak zuei guztioi. Beste hainbat tarteka izan zarete bertan ospakizunetarako pastelak bila, neguko igandean etxean lasai geratu eta bazkalosteko pastela nahi izan duzue eta gutaz gogoratu zarete. Ezin ahaztu urte hauetan guztietan nirekin lanean izan zaretenoi. Mila esker zuei ere.

Bide goxoenak ere izaten omen du bere bukaera, eta niri iritsi zait proiektu honi agur esateko ordua. Orain artekoa eskertu eta datorrena hobe izango den itxaropenarekin agurtzen naiz. Eskerrik asko denei!

## Pasion Por Euskadi

AGURNE JULDAIN ALCALDE

ARRASATEKO EAJ-PNV-KO LEHENDAKARIA  
ARRASATE

Euskalduna, abertzalea, langilea, zintzoa, bakezalea... bakearen gizona. Beti irribarre batekin, beti lanerako prest, elkarrizketarako prest, elkargunea bilatzeko prest. Horrelakoa izan zara zure bizitza osoan.

Arrasaten demokrazia garaiko lehen alkatea izan zinen. Egun hauetan irakurri dut, garai batean egindako elkarrizketan, politika garaiko urte gogorrenak hemen bizi izan zenituela, eta ez nau harritzen, Arrasate plaza zaila da oraindik ere! Baina gogor ekin zenion Arrasate eraikitzea, beste batzuk apurtzen ahalegintzen ziren bitartean. Arrasatekin egin zenuen bezala, 1985ean Euskadirekin egin zenuen.

14 urte luzez Euskadi Aurrera eramateko eta egunetik egunera hobeagoa izateko lanean egon zinen. ETAk Euskadi eta euskaldunok atzean utzi nahi gintuen eta zuk ez, zuk berriz Aurrera! Zenbat egun ilun bizi izan ditugun euskaldunok ETArengatik. Zenbat malko, zenbat min, zenbat arrazoi gabeko heriotza. Baina zuk, Euskadi Aurrera!

Euskaldunok Espainiarengandik asko

sufritu dugu eta, zoritxarrez, sufritzen jarraitzen dugu, baina lanean egon gara eta gaude Euskadi aske eta sendo bat eraikitzen. Orain ere! Bai, noski, garaiak aldatu egin dira, eta zu egon zinen aldaketa hauen oinarrietan. Baina ez dugu amnesiarik sufritzen eta ez dugu sufrituko eta gure oroitzapenean ETAk eragindakoak oroitzen jarraituko dugu. Denok dugu gertu senide, lagun edo gertukoren bat Espainiak eragindako kalteengatik hil edo sufritu duena, baina horrek jeltzaleoi, inoiz ez digu aitzakia bezala balio guk ere mina eta sufrimendua eragiteko; jeltzaleoi lanean jarraitzeko indarra eman digu Euskadirengatik eta euskaldunondako.

Orain ere asko gara Indar Berriaz beteta eta egunero gogotsu eta kementsu, zure lagia jarraituz, lehendakari, lanean jarraitzeko indarrez gaudenak. Guk ere, zuk bezala, Pasion Por Euskadi dugulako. Zuk 1999an utzitako lehendakaritza, zure ondorengoen lanari jarraituz hemen gaudelako; 2024ko apirilaren 21tik aurrera Iñigo Urkulluk utziko duen lehendakaritzan lanean jarraitzeko indartsu gaude.

Eskerrik asko, Jose Antonio Ardanza! Eskerrik asko, lehendakari!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

# Salaketa-gutuna • Eskertza-gutuna • Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna • Aldarrikapen-gutuna • Kexa-gutuna

# Etxekoak eta bereziak diren ardoak datoz bihar

Ibai-artek lehenengoz antolatu du Ardo Eguna, eta, horren baitan, "dastatze erraldoia" egingo dute bihar, zapatua, Herriko Plazan, 11:30ean, Maider Larrañaga eta Jon Andoni Rementeria sommelierrek gidatuta; ohikoak ez diren ardoak dastatuko dituzte

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Ibai-artek antolatutako lehen Ardo Eguna izango da bihar, zapatua, egingo dutena. Duela urte batzuk, Ardo eta Gazta Eguna egingen zuten Mondrak, baina biharkoa desberdina izango da, Ibai-arteko kide Jon Apraizen esanetan: "Euskal Herriko zazpi ardo mota aukeratu ditugu, ezezagunak eta bereziak; egiteko moduagatik, edizio mugatua dutelako edo dena delakoagatik". Aukeratu dituzten ardoekin "oso pozik" daudela onartu du. "Denetik dugu. Besteak beste, xanpainaren elaborazioa duen txakolin bat, txakolin beltz bat eta mazerazio karbonikoa duen ardo bat", adierazi du. Horrez gain, sorpresa bat egongo dela ere nabarmendu du.

Eserita egingo dute dastatzea, mahaiekin, eta, ondorioz, plazak mugatuak izango dira. "Gutxi gorabehera, 100 pertsonarendako egitea aurreikusitako dugu, baina, aukera egonez gero, jende gehiagorendako lekua ere egingo dugu", azaldu du Apraizek.

**Goi mailako bi sommelier**

Maidar Larrañaga eta Jon Andoni Rementeria sommelierrek gonbidatu dituzte, eta, ardoak zerbitzatzearaz gain, ardo bakoitzaren historia, anekdotak eta berezitasunak nabarmenduko dituzte. "Gure lana izango da azalpenak ematea eta saioa dinamikoa izatea, jendea ez dadin aspertu", dio Rementeriak, eta Larrañagak gaineratu du "jendeak ondo pasatzea" izango dela helburua. "Ardoei buruz zerbait ikastearekin batera, goiz polita pasatuko dugu".

Dastatzearen berezitasun nagusia, Rementeria esanetan, hau da: "Ardo guztiak Euskal Herrikoak eta ezohikoak dira. Gainera, istorio politak dituzte eta egiteko moduak ere ezberdinak dira, bakoitza bere ezau-



Antonio Murillo, Jon Andoni Rementeria, Maider Larrañaga eta Jon Apraiz. E.A.B.

## Zazpi ardo mota dastatuko dituzte

Maidar Larrañaga sommelier arrasatearrak nabarmendu du "geroz eta kalitate handiagoko ardoak" ekoizten eta kontsumitzen direla Euskal Herrian azken urteetan. Biharkoak dira horren adibide.

**Honako zazpi ardo mota hauek dastatuko dituzte:**

- Bat Gara (Arabako Txakolina).
- Izar-Leku (Gipuzkoako Txakolina).
- Lapazaran (Bizkaiko Txakolina).
- Gloria, Ostatu (Arabako Errioxa).
- Viñegra (Arabako Errioxa).
- Irouleguy Ilarria (Nafarroa Beherea).
- Rochapel (Nafarroa).



garriekin. Esaterako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako txakolinak dastatu ahal izango ditugu, eta interesgarria da, halaber, Bizkaiko ardo beltza, hamabi hilabetez barriketan egon dena".

Bihar dastatuko dituzten txakolinek, era berean, ez dituzte herriarrek espero dituzten "ahoko zein sudurreko notak", Larrañagaren esanetan: "Txakolin bat eskatzean espero ez ditugun ezaugarriak aurkituko ditugu txakolin horietan". Rementeriak gaineratu du txakolina asko ari dela hobetzen:

"Kontuan hartu behar da txakolin zaharrena Getariakoa dela, 1989an sortua. Edari moduan oso gaztea da oraindik".

**Tabernetan pintxo bereziak**

Dastatzearekin batera, ardo eta pintxo bereziekin egindako poteoa egongo da honako taberna hauetan: Iamai, Nahi, Irati, Kajoi, Itzala, Buenuena eta Ezkiña. "Haiek erabakitzen dituzten ardo eta pintxoekin pintxo-pote berezi bat egitea da asmoa. Normalean edan eta jaten ez diren gauzak izango dituzte".

## Mobilizazioak abiatuko dituzte gaur Merkari dendako langileek

Greba egingo dute, 2019ko lan-hitzarmena hobetzeko negoziatioek aurrera egingen ez dutela salatzen

**E.A.B. ARRASATE**

Gipuzkoan zortzi establezimendu ditu Merkari Oinetakoak enpresak, eta horietako seik egin dute bat grebarekin; tartean, Arrasatekoak. Mirari Osinalde dendako arduradunak azaldu duenez, 2019ko lan-hitzarmena dute eta hitzarmen hori berritzea gura dute: "Horretarako, hainbat hobekuntza proposatu genituen 2023ko urrian egindako batzarrean, eta gauza bakarra onartu digute: kasu pertsonaletarako egun bat libratu ahal izatea. Lan-karga handia daukagu eta

egoera ez da ona. Hori dela eta, lan-hitzarmena eguneratzea eskatzen dugu, lan-baldintzak hobetu ahal izateko".

Gaur, egubakoitza, hasiko dituzte mobilizazioak, eta, hobe-kuntzarik ezean, maiatzera arte iraungo dute. "Egubakoitzetan enpresak Oartzunen dituen bulegoen aurrean elkartuko gara gure aldarrikapenekin eta zapatuetan gure dendetan elkartuko gara, txandakatuz", dio Osinaldek. Hala, bihar, Txingudiko merkataritza-guneko dendan egingo dute protesta.

## LH-6ko aurrenerabeei ongietorri jaia egingo diete gaztelekuan

Bihar, zapatua, 17:00etan hasiko dute jaia, tren geltoki zaharreko gaztelekuan, zerbitzua ezagutarazteko asmoz

**E.A.B. ARRASATE**

12 urtetik aurrerakoek gazte txoko zerbitzua erabiltzen hasiteko aukera dutela aintzat hartuta, haiei zuzendutako ongietorri jaia egingo dute bihar. Txatxilipurdiko kideek diotenez, zerbitzuak ezagutzeko gonbidapen bat da biharkoa, han zer egingen duten zuzenean ikus dezaten. Hala, 17:00etan egingo diete ongietorria; 18:00etan, *Altxorraren bila* jolasa egingo dute; 19:00etan, *merendola* egingo dute gazte guztiek; eta, amaitzeko, 20:00etan, disko-festa izango dute.

Gazte txokoak 12-17 urte arteko nerabeentzako udal zerbitzuak dira, Txatxilipurdik kudeatzen dituenak. "Aisialdian dibertitzeko, deskantsatzeko, lagunekin egoteko eta beste gazte batzuk ezagutzeko lekuak dira". Arrasaten lau txoko daude: Erguinen, Musakolan, San Andresen eta erdigunean. Auzoetakoak martitzenetik egubakoitzera daude zabalik, 17:00etatik 20:00etara. Erdiguneko gaztelekua, aldiz, egubakoitzetan 18:00etatik 20:00etara eta zapatua eta domeketan 17:00etatik 20:00etara.

## Osasun mentalari buruzko tailerra martitzenean

Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Treba gazteak* ekimenaren baitan, *Osasun mentala, zeure burua ulertzen ikasi* izeneko tailerra egingo dute apirilaren 23an, 18:00etan, tren geltoki zaharrean. 16-30 urte arteko gazteei zuzendutako saioa izango da eta parte hartzeko izena eman beharko da aurrez, *Arrasate.eus* webgunean edo BAZen.

## Drogen kontsumoaz prebenitzeko asmoz, ikastaroa maiatzean

Arrasateko Udalak antolatuta, drogen kontsumoei lotutako arriskuak murrizteko ikastaroa egingo dute, hezitzaileei zuzenduta, maiatzaren 6an, 13an eta 20an, 14:00etatik 17:00etara, Kultureteko Garibai gelan. Apirilaren 26ra arte eman daiteke izena, *Arrasate.eus*-en. Ikastaroa euskaraz izango da eta Hazkuntze elkarteak emango du.



Herritar bat, Eskuarlean Artisauen Kolektiboak egindako Gabonetako azokan, produktuei begira. GOIENA

# Eskulanak Seber Altube plazara aterako dituzte

Hileko hirugarren zapatua izanik, bertako produktuen azoka egingo dute bihar, zapatua, Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara; biharkoa, hala ere, berezia izango da, Eskuarlean Artisauen Kolektiboko kideek bederatzi postu jarriko baitituzte

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Apirileko bertako produktuen azoka berezia izango da. Izan ere, garaiko eta askotariko elikagai eta produktuez gain, Eskuarlean Artisauen Kolektiboak protagonismo nagusia hartuko du. Normalean, hilero izaten da kolektiboko ordezkariaren bat azokan, baina oraingo honetan taldeko bederatzi kideek jarriko dute postua. "Haien antolakuntzaren arabera, txandaka etortzen dira eta postu bat edo bi jartzen dituzte. Apirilean, ekintza osagarri ez genuela ikusita, proposatu ziguten artisauen azoka berezi bat egitea, kolektiboko kide gehiagorekin. Eskertuta hartu genuen haien proposamena eta halaxe egingo dugu", azpimarratu du azokako antolatzaile taldeko Nerea Lazpiurrek.

Hala, hamabost postu egingo dira bihar. Batetik, sei postu jarriko dituzte, askotariko produktuekin: ogia, eztea, arrain kontserbak, teak eta infusioak, gozoak, euskal pastelak, ortuko

egurrezko tresnak, ortuko landareak, haragia, gazta eta abar.

## Askotariko aukerak dituzte

Postu horiez gain, Eskuarlean taldeko honako artisau hauek hartuko dute parte azokan: Maybe –belarritakoak–; LurMaite –tinturak eta xaboiak–; Zintzilik –poltsak, kamisetak eta bordatuak–; Ilustrazioak –hainbat euskarritan egindako ilustrazioak–; Michelle Lenoire –jostintza–; Carlos –bitxigintza–; Amaia –larrua–; Wood Uhuru –egurra– eta Ekoudalatx –kosmetika naturala eta lore sikuak–.

**Kosmetikaz gain, lore sikuak** Ekoudalatxeko Idurre Arangueren eta Nerea Altuna Arrasate

**ESKUARLEAN  
TALDEKO KIDEEK  
PRESTATUTAKO  
OTARREA ZOZKATUKO  
DUTE BIHAR AZOKAN**

Irratiko *Zaku bete kontu* saioan izan dira asteen, eta aurreratu dute kosmetika eta lore sikuak eramango dituztela bihar plazara. "Batetik, basaloreak eta, bestetik, margo naturalekin koloreztatutakoak. Sortak zein koroak izango ditugu, eta, horrekin batera, balkoirako loreak, usaina duten loreak, kozinatze-ko loreak eta abar".

## Otarrearen zozketa ere bai

Azokan egindako erosketa bakoitzeko, zozketarako txartel bat eskuratuko dute erosleek, eta, hain zuzen, Eskuarlean Artisauen Kolektiboko kideen produktuekin osatutako otarrea zozkatuko dute.

Hori horrela, Seber Altubera joateko dei egin dute Aranguren eta Altunak: "Eskuz eta Arrasaten egindako produkturen bat gura izanez gero, animatu eta etorri azokara".

Maiatzean loreak izango dira protagonista eta kaleko antzerki emanaldi bat ere egingo da.

## NIRE USTEZ



ANE SANCHEZ ZEZIAGA

## Zauriak

Gure mendiek denboraren botereari eutsi dioten istorioak gordetzen dituzte. Beraien magaletan bistaratzen dituzten orbinek egun batean jasan behar izan zuten sufrimendua erakusten digute. Muruko trintxerak, besteak beste, askatasuna bilatzen zuten herri zapaldu baten zauri odoltsuen isla dira.

778 metrok Debagoiena eta Aramaioko bailarak menperatzen dituen puntu estrategiko horretan, gerra zibilean zulatutako lubakietan eutsi zutenek gure lurren zaindari diren damen babesa sentitu zutela pentsatu nahi dut. Udalatx, Anboto eta Kurtzebarrirekin batera, baliteke beraien alboan Mari eta Arrasateko herensugeak borrokatu izana; haien laguntza zilegi litzateke, seguru, mendi enblematiko horiek besarkatzen duten herria falangistengandik urrun mantentzeko.

Zorionekoak gu, gaur egun gerratearen kontuak historiaren pasaera ilun bat baino ez direlako. Zoritzarrez, ezin dezakegu ahaztu munduko askorentzat egunerokotasunaren parte dela okerreko eskuetan eroritako boterearen ondorioak jasan behar izatea.

## Aste honetan hasi dituzte zebra-bideak egiteko lanak

Ignazio Zuloaga kalean hasi zizuten lanak, astelehenean. Lehen fase horretan, kale hori bera itxi dute, eta Pablo Uranga kalerako sarbidea Otalora Lizentziaduna kaletik bideratu. Ondorioz, Ignazio Zuloaga kalean ezin izango da aparkalekurik erabili, eta sarbidea bertako komertzioek soilik izango dute, zamalanak egiteko.



Langileak, aste honetan. E.A.B.

## OHARRAK

### Santa Teresako igogailuak, martxan

Lanak amaituta, aste honetan ireki dituzte hiru igogailuak.

### 'Abismos' liburuaren aurkezpena

Gaur, egubakoitza, Kulturaten egingo dute, 18:30ean hasita.

### Haurren danborradarako izen-ematea

Apirilaren 22an, 24an, 29an eta 30ean eta maiatzaren 2an eta 3an eman ahalko da izena, Kulturolan, 17:00etatik 18:30era.

### 'Ecstatic dance-souldance' saioa

Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik, apirilaren 26an egingo dute, 18:00etatik 20:00etara, Agurtzane Altunaren eskutik, Mesedetako ikastetxean. Izen-emateak, telefono-zenbaki hauetan: 943-79 83 70 eta 651 70 79 36.

### 'Txotxparta' ekimena gaur Iturrietan

Ttakun Txalaparta Elkartearen eskutik egingo dute. 19:00etan Iratin elkartuko dira eta 20:30ean joango dira sagardotegira.

### AGAKO Eguna egingo dute bihar

Besteak beste, kontzertuak egingo dira gaztetxean, 22:00etan.



Mondrako jokalariek eta entrenatzaileak asteko entrenamendu baten aurretik. LUKEN UGARTEBURU

# Igoera atzamar puntekin ukitzen ari da Mondra

Zapatuan Ilintxaren aurkako partidaren (Legazpin, 16:30ean) garaipena eskuratuz gero, urte hasieratik begiz jota izan duen helburua lortuko du Mondrak: mailaz igotzea. Berdin edo galduz gero, Aloña Mendiren emaitzari itxaron beharko diote zuri-moreek

**Julen Murua Mesonero** ARRASATE  
Urte erdi baino gehiago igaro da Gari Nuñezek zuzendutako taldeak 2023-2024ko denboraldia hasi zutenetik, eta, 25 jardunaldiren ostean, esku-eskura du urte hasieratik ezarritako helburua: Ohorezko Erregional Mailarako igoera lortzea. Denboraldi bikaina egiten ari dira arrasatearrak, eta, bost jardunaldiren faltan, horrenbeste itxarondako unea bizi dezakete asteburuan. Garaipenarekin mailaz igotzea lortuko luke Mondrak; galdutako edo berdintutako gero, berriz, Aloña Mendiren emaitzari itxaron beharko dio. Ilintxaren

aurka jokatuko dute, Legazpiko Irene Paredes futbol zelaian, eta, Nuñezen hitzetan, "ez da aurkari erraza izango; are gutxiago, haien etxean. Hala ere, guk azken astetako lan dinamikari eutsiko diogu eta garaipena lortzera joango gara. Ea zorte apur batekin horrenbeste landu eta bilatu dugun helburua lortzerik dugun".

## Denboraldi bikaina

Bederatzi jardunaldi jarraian irabazten hasi zuen denboraldia Mondrak, eta, inork zalantzan jartzen bazuen arrasatearrak igoera lortzeko faboritoetako bat

izango zirela, zuri-moreek zalantza guztiak uxatu zituzten aurreneko jardunaldietan. Gaur arte, 25 partidutatik 19 irabazi, bost berdindu eta bakarra galdu du Mondrak -Danenaren aurka, 3-2-; zalantzarik gabe, denboraldiko talde sendoa izan da Nuñezena, eta, bost jardunaldiren faltan, sailkapeneko lehenengo postua ziurtatu dezakete.

## Ilusioz josita

Astetik atera "lanean oso ongi" ari direla aitortu du Nuñezek, eta horrek erakusten duela "taldeak helburua lortzeko antsie-

taterik" ez duela. Ilintxa "talde gogorra" dela ohartarazi nahi du entrenatzaile legazpiarrak; joaneko partiduan gauzak zail jarri zizkioten zuri-moreei eta berdintutako bost partiduetako bat izan zen hura. Hala ere, Aitor Azkaratek, taldeko kapitainak, dio "presiorik gabe" jokatuko dutela eta "urte hasieratik borrokatutako helburua lortzeko ilusio handia" duela taldeak; Iker Pavon jokalariek ere onartu du taldea "lasai" dagoela eta helburua lortzeko "gogo handia" dutela.

## Legazpira autobusa

Igoera ziurtatu dezake Mondrak zapatuan, eta, neurketa Legazpin jokatuko badute ere, jokalariek etxean bezala sentiarazteko ahalgina egingo dute zaleek; Nuñezek espero du "arrasatearrak gertu sentitzea eta helburua haien babesarekin lortzea", eta, era berean, Azkaratek jendea Legazpira joatera animatu du: "Klubak autobusa antolatu du, eta Legazpira ahalik eta jende gehien joatea nahi dugu".



**GARI NUÑEZ** MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Politagoa izango litzateke ospakizunak Mojategin izango balira, baina horrela tokatu da eta ez gaude aukeratzeko tokian".



**AITOR AZKARATE** MONDRAKO KAPITAINA

"%95ean igoera gurea izango dela uste dugu; bigarren sailkatuarekiko tartea handia da eta ez dugu presiorik, lasai goaz".



**IKER PAVON** MONDRAKO JOKALARIA

"Bigarrenarekiko marjina handia dugu; beraz, lasai hartuko dugu partidua. Irabazteko eta helburua lortzeko gogoz gaude".

## "Emaitza historikoak" herriko judoarentzat Euskadikoan

Bederatzi domina eraman zituzten etxera Desoreka klubeko judoek; bi, berriz, Arrasate Judo klubekoek

**J.M.M.** ARRASATE

Joan den asteburuan Erandion izan ziren Desoreka eta Arrasate judo klubetako kideak Euskadiko txapelketa jokatzen, eta Markel Urrutiak, Desorekako koordinatzaile eta arduradun

teknikoak, adierazi duenez, "emaitza historikoak" eskuratu zituzten. "Klubetik bederatzi judoka joan ziren txapelketa, eta guztiak igo ziren podiumera. Euskadin oso klub gutxi lortu dute balentria hori". Domine

dagokienez, hiru urrezkoak, bost zilarrezkoak eta brontzezko bat izan ziren. Urrutiak adierazi du emaitzak historikoak izan direla, hein handi batean, "emaitza on asko eta une berean iritsi direlako". Gainera, Desorekako lau kide sailkatu dira Espainiako eskolarteko txapelketarako, eta horrek esan gura du euskal selekzioaren infantil mailako taldearen laurdena Desorekako judokaz osatuta egongo dela. Urrutiak adierazi du "oso pozik eta oso harro" dagoela klubak

lortutako emaitzekin, eta aitortu du "harrobi oso ona" dagoela herrian.

Arrasate Judo klubekoak ere izan ziren Erandion jokatutako txapelketan. Hiru izan ziren, zehazki, tatamira igo ziren judokak, eta hiru horietatik bik eraman zuten domina etxera. Beraz, guztiak batuta, Euskadiko txapelketatik hamaika domina eraman zituzten herrira ordezkari arrasatearrek. Urrutiak dio "inoiz gertatu ez den zerbaite" dela eta herriko judo

klubek lortu dutena "gertakari historiko" bihurtu dela.

## Udalari eskaera

Egoera aprobetxatu gura izan du Urrutiak Udalari eskakizun bat egiteko: "Instalazio duinak behar ditugu. Ez bakarrik judo txapelketetan emaitza onak lortzeko, baizik eta judoan duintasunez lan egin ahal izateko eta bertan dauden kirolariei garbitasun, azpiegituren egoera eta tatamien egoera duinak eskaini ahal izateko".

# OKASIO ETA OKM AZOKA



**STOCKKA**



## ARRASATE, Mugarri

Apirilak 25, 26 eta 27 10:00etatik 20:00etara



Ford PUMA  
175 €/hilean\*



Ford TOURNEO COURIER  
179 €/hilean\*



Ford KUGA  
189 €/hilean\*



Hyundai i20  
170 €/hilean\*



Hyundai KONA  
186 €/hilean\*



Hyundai TUCSON  
199 €/hilean\*

San Andres, 6 · 20500 Arrasate

682 909 625

**GRUPO  
EASO  
MOTOR**

[www.grupoeasomotor.com](http://www.grupoeasomotor.com)



Easo Motor



**HYUNDAI  
Oarso Car**

# Arnasa estu hartu eta zuzeneko emateko prest

Punk-rock doinuak melodia itsaskorrekin eta reggae ukitu txiki batzuekin uztartutako 'Arnasa estu hartzeraino' diskoa argitaratu berri du Garratz taldeak, eta bihar, apirilak 20, emango du lehenengo kontzertua, Iruñeko Akelarre kultura aretoan

**Imanol Beloki Unamuno** ARRASATE  
Jokin Bereziartua *Yoko-k*, Jon Nevadok, Liher Larrañagak, Martxel Lopetegik eta Asier Salak osatzen dute Garratz taldea. 2022ko udazkenean abiatutako proiektua da, ondo pasatzeko helburuarekin. Haien esanetan, "taldea oso modu naturalean sortu da; musikaz gozatu nahi duten bost lagun elkartu gara, bestelako prentsiarik gabe. *Dublingo barra* abestiak kontatzen du nola hasi zen dena. Arrasateko taberna berezi horretan ia kasualitatez elkartu gara zenbait alditan, eta The Pogues handien abestiak entzuten ari ginela hasi ginen proiektu berria eratzten. Hortik gure erreferenteetako bat den Shane McGowan egindako keina; McGowan hiltorian zela idatzi genuen".

**Euskara hutsean, autoekoiztuta**  
Taldekideek azpimarratu dutenez, edan duten iturrietatik sortzen dute musika, eta "hantu politikoa" da abestiak %100ean euskaraz izatea. Ekarpenerik egitea ez dela erraza gaineratu dute: "Dena dago asmatuta. Guk ekarpena egin baino gehiago, taldeak egiten digu ekarpena, eta hori baloratzen ikasi dugu. Punk-rocka euskaraz egitea da gure nahia, eta horrekin disfrutatzea".

Diskoa grabatzeko, berriz, autoekoizpenaren alde egin dute. "Autogestioak ematen dizkizun abantailen artean badago askatasuna, nahi duzuna eta nahi duzun moduan, nahi duzunarekin eta nahi duzun denboretan egiteko aukera. Baina badago txanponaren beste aldea ere; adibidez, ez duzula kontzertuak lotzeko sarerik. Eta badira beste hainbat eginbehar... Eskerrak Kataluniako Tropical Riot zigiluak lagundu egin digula banaketa digitalarekin eta beste hainbat kontuarekin".



Garratz taldeko kideak, promoziorako argazki batean. PERU ATXA MARAÑON

## "KE BIRTUALA" DIRELA DIOTE, SARE SOZIALETAN BAKARRIK EGIN DUTELAKO ZARATA

### Entseguetan buru-belarri

Duela sei hilabete atera zituzten lehen abestiak, orain diskoa, eta bihar lehenengo zuzeneko izango dute. Horrekin batera, badituzte beste data batzuk zehaztuta, irailera arte. Maiatzaren 11n Musakolako jaietan egongo dira eta ekainaren 1ean Altsasuko Elkar Mugi jaialdian. "Ibilbidea oraindik ez dugu hasi, bihar emango dugu eta lehen kontzertua. Oraingoan, ke birtuala gara, sare sozialetan bakarrik egin dugu zarata; kar-kar. Egia da denbora laburrean hamalau abesti argitaratu ditugula EPA eta LPA kontuan hartuta, eta ordu asko sartu ditugu abestiak sortzen, fintzen eta ondoren grabatzen. Bide malkartsua bezain ederra izan da. Zuzenekoetarako entseguetan ari gara orain buru-belarri; baina estres handirik ez, ondo pasatzera gatoz".

Sortze-prozesuaren gainean galdetuta, honela erantzun dute: "Musika sortzerakoan, hasierako eskeletoa nahiko bizkor ateratzen zaigu. Sala, Martxel eta Liher dira musika sortzeaz arduratzen direnak; Nevado batera-erritmoak moldatzeaz arduratzen da; eta hitzez, azkenik, Liher eta *Yoko*, bereziki. Hitzei musikari baino buelta baino gehiago eman dizkiegu, baina erotu gabe. Jakin egin behar da abestiak amaitutzat ematen, eta, askotan, ez da erraza izaten. Hitz gehienek taldekideon bizi-penak dituzte oinarrian, baina badira bestelako gaiak: eskuin muturraren loraldia, pantailen diktadura, euskara...".

### Eskarmentu handikoak

Ibilbide luzeko musikariek osatzen dute Garratz. Izan ere, taldeko bost kideetatik lauk 20 urte inguruko ibilbidea dute, eta hainbat taldetan ibiliak dira. Gaur egun, oraindik martxan daude horietako hiru proiektu: The Potes, Aggressive Combat eta Zeker, hain zuzen. "Nondik gatozen ahaztu gabe, etorkizun berri batean dugu jarrita arreta".



La sed del minotauro antzezlaren une bat. SON AOUJIL

## Galtzaile profilarekin, bihotz ona duten protagonistak oholztan

Domekan, apirilaren 21ean, Amaia antzokian, 19:30ean egongo da ikusgai Khea Ziater konpainiaren lana

### I.B. ARRASATE

*La sed del minotauro* ikuskizuna eskainiko du Khea Ziater konpainiak domekan, eta Txubi Fernandez de Jauregi, Arrate Etxeberria, Miren Gaztañaga, Leire Ucha, Jon Ander Urresti eta Ainhoa Artetxe izango dira oholztan gainean arituko diren aktoreak. Drama dibertigarri bat da eta sarrerak hamar eurotan daude salgai [Arrasate.eus](http://Arrasate.eus) atarian.

### Zoriontasunean, maitasuna

Khea Ziater konpainiako zuzendariari, Alex Gerediagari, elka-

rizketa egin diote Arrasate Irratiko *Zaku bete kontu* saioan, eta hauxe esan du: "Bost pertsonaia dira obra egingo dutenak, kafe-taberna batean kokatuta, eta maitasunari buruz hitz egingo dugu; maitasuna da zoriontasunera bidean beharrezkoa den zerbait. Min handia sortzen duen maitasun gaztea agertuko da, egunero borroka eskatzen duen maitasuna... Hori horrela, *looser* profila duten protagonistak ikusiko ditugu, nahiz eta, bihotz handia dutenez, gero guztiak maitatuko dituzten ikus-entzuleek".

## Nick Linbött taldearen debuta zapatuan Iratin, 19:00etan

Arrasateko Nick Linbött talde berriaren estreinako kontzertua izango da bihar, zapatua, Irati tabernan, 19:00etan. Eskarmentu handiko sei lagunek osatzen dute Nick Linbött, eta rock-and-roll bizi izango da taldearen ardatza, nahiz eta zenbait aldaerarekin bustitako piezak sortu dituzten. "Ekainean musika estudioara sartuko gara diskoa grabatzera, eta horren aurretik zuzeneko zenbait emanaldi egingo ditugu. Kontzertuari dagokionez, berriz, hamar kantu propio eta bi bertsio eskainiko ditugu, baita *Linbött*-i buruzko pasarteren bat kontatu ere, akaso... Gogotsu gaude urte osoan egindako lana jendaurrean aurkezteko".

## Ipuina eta ikuskizuna Liburuaren Eguneko gitarauxteko

Apirilaren 23an, *Kukuak kontu* ipuin kontaketa izango da Santa Marinako auzo-bibliotekan. 18:00etan hasiko da, eta Vanesa Gonzalez izango da ipuin kontalaria; 5 urtetik gorakodako da. Aurrez izena eman behar du interesdunak, Arrasateko udal webgunean. Horrekin batera, hilaren 26an, 18:00etan, *Euskelelea* familiei zuzendutako ikuskizun musikal izango da, Kulturatan. Juan Kruz Igerabide sortutako ipuina 4 urtetik aurrerako haurrendako da, eta, Irrimarraren ilustrazioekin, Euskal Barrok Ensemblek eta Goikobalu Txiki Abesbatzak jarriko dute musika.

# Udalekuen testuinguruan egingo dute 'Ir a kurrin'

Irakurzaletasuna eta elkarbizitza bultzatzea helburu duen ekimena da 'Ir a kurrin', eta gaur arratsaldean egingo dute 15. edizioa Aramaixo Herri Eskolako aterpean; Nerea Loiola idazlearen '7G' liburua izango da solasaldi-festaren abiapuntua

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARAMAIO  
*Ir a kurrin* egitasmoaren 15. edizioa egingo dute gaur, arratsaldeko zazpitan, Aramaixo Herri Eskolako aterpean. Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleei eta haien familiei zuzendutako literatur jarduera da, baina, eskolatik aurreratu dutenez, DBH-leko ikasle ohiak eta irakasleak ere animatzen dira.

Nerea Loiolaren 7G liburua oinarri hartuta, teknologiarekin zerikusia duten udalekueetan barrena murgilduko dira gazte eta helduak, kuxinaren gainean eserita eta bisera nahiz motxila soinean norberak aukeratutako pasarteak landuz eta taldekideekin partekatuz. Irakurritako izan beharko dute liburua, eta, Aramaixo Herri Eskolako esanetan, liburu ezberdina eta, aldi berean, jolastia delako aukeratu dute Loiolaren liburua: "Ez da hasieratik bukaeraraino modu jarraian irakurri daitekeen li-

burua. Aldi berean, irakurlea jolasean jartzen du liburuak dituen pista eta enigmetan".

**Liburu-solasaldia baino gehiago**  
Talde txikietan banatuko dituzte, nahastuta, haurrak eta gazteak, eta ordubete inguruko saioan aurrez ekarritako pasarteren baten gainean eta li-

buruaz, orokorrean, hitz egingo dute.

Alabaina, ez da solasaldia bakarrik izango. Liburuan girotutako afaria egingo dute. Afaria eskolaren kontura izango da, baina edalontzia eta platera eraman beharko dituzte herritarrek, "plastikozko poltsa batean sartuta", antolatzaileek hala adie-

## Ipuin eta mikroipuin lehiaketa

Txirritolaren ipuin eta mikroipuin lehiaketa azken txanpan sartu da eta lanak apirilaren 24rako aurkeztu beharko dira liburutegian. LHko lehen eta bigarren zikloetako ikasleek taldekako ipuinak aurkeztu behar dituzte eta bigarren eta hirugarren zikloetakoek, banakako ipuinak. Halaber, nerabeek, gazteek eta helduek mikroipuinak idatzi beharko dituzte. Edozein aramaioarrek har dezake parte eta lanek euskarazkoak eta inoiz argitaratu gabeak izan behar dute. Gaia libre da. Lehen ziklokoek nahi duten luzerako ipuinak idatzi ditzakete; bigarren ziklokoek, orri batekoa; eta hirugarrenengoek, bi orrikoa. Mikroipuinak, gehienez ere, 100 hitz eduki behar dituzte.

Lanak gutun-azal batean eta *Txirritola ipuin lehiaketa* idatzita aurkeztu behar dira; eta barruan, egilearen datuak eta kontaktua.



*Ir a kurrin* egitasmoaren izako argazki bat. GOIENA

razita. Afalostean, "ekintza sorpresa" egingo dute, liburuarekin edo gaiarekin zerikusia duena: "Bai afaria zein festa bereziak izango dira, eta ziur aurtengo *Ir a kurrin*, beste urte batzuetan bezala, mundiala eta berezia izango dela; inoiz ahaztuko ez dugun arratsaldea pasatuko dugu".

### Literaturaz ezberdin gozatuz

2013-2014ko ikasturtean egin zuten *Ir a kurrin*-en lehenengo saioa, eta, hasierako saioetan ikasturteko neguko eta udako ekitaldiak egiten baziren ere, bakarrera mugatu zuten. Helburuak dira literaturaz gozatzea, partaide guztien artean testuaren esanahia eraikitzea, argudiatzen ikastea, balio positiboak lantzea eta elkarrekin une gozoak

bizitza. Gainera, partaideek solasaldietan, irakurritakoa abiapuntu hartuta, gogoetak, zalantzak, interesak edota eztabaidak azaleratu ditzakete. Gogoeta eta interpretazio guztiak testuaren zentzua aberasten dutela diote.

Bestalde, Aramaixo Herri Eskolako ordezkariak aurreratu dute maiatzaren 17an Berbapuxika saioa egingo dutela, lehenengo, LHko lehen zikloko eta HHko 4-5 urteko ikasle eta familiendako

## 2013-2014KO IKASTURTEAN EGIN ZUTEN 'IR A KURRIN' EGITASMOAREN LEHEN SAIOA

## Lanak Aramaio eta Legutio lotzen dituen errepide ondoan

AFAk adierazi du Legutioko saihsbideko obrek sortutako material-naturala uzten ari direla lur eremu hartan

### I.A.A. ARAMAIO

Kruzetatik Gatzagarantz doan GR-12 deritzon *Ibilbide luzea*-ren lehen zatian lanak egiten ari da Arabako Foru Aldundia, eta, horren harira, Aldundiak adierazi du gune hura Legutioko saihsbidearen obretako "soberakinen biltegia" deiturikoa dela. Biltegia Aramaio eta Legutio lotzen dituen A-2620 errepidearen ondoan dago.

Aldunditik azaldu dute "gutxieneko tamaina duten errepideetako obra guztiak soberakinen biltegia" deritzona barne hartzen

dutela -dagokion ingurume-baimena duena- eta irizpide teknikoaren arabera erabiltzen dela. "Kasu honetan, A-2620 errepidearen ondoan dago, Arabako Foru Aldundiaren jabetzako lursail batean", diote Legutioko saihsbideko obrei lotutako "soberakinen biltegi" horri lotuta.

Gehitu dutenez, Legutioko saihsbideko obren lur-mugimenduak sortzen dituen material naturala uzten da lur haietan; besteak beste, lurrak eta harriak. "Beraz, ez da obra bat, Legutioko saihsbide berriaren erai-



Lanak Kruzetatik Gatzagarantz doan GR-12 ibilbidearen zatian. JOKIN SALIDO

kuntzarekin lotutako lanak dira", diote AFAtik.

Horrekin batera, gehitu dute behin operazioa amaituta "soberakinen biltegia" deritzon hori ingurumen aldetik lehengoratu dutela landare-lurrarekin

nahiz landare- eta zuhaitz-espazioen landaketarekin.

Lan horien amaiera dataz galdetuta, jakinarazi dute "lur mugimenduak amaitu arte" iraungo dutela: "Hasiara batean, 2024. urte amaierara arte".

## 'Aramaioko egoera eta aukera energetikoak' saioa

Datorren martitzenean, apirilaren 23an, Aramaio egoera eta aukera energetikoei buruzko hitzaldia izango da, 18:30ean, kultur etxeko areto nagusian. Hitzaldia Aritz Ameztegik gidatuko du, Debagoiena 2030eko teknikariak. *Aukera energetikoak* izeneko proiektuan egindako ikerketaren emaitzen berri eman- go du, azterketa horretan Aramaio autokontsumorako energia berriztagarria sortzeko zer gaitasun duen neurtu delako "udalerriko eraikinen egoera eta ezaugarrian kontuan izanda". Halaber, herri mailan martxan jarri nahi duten energia talde eragilea sortzeko abiapuntu gisa planteatu du hitzaldia Udalak.

# "Etxearen helburua da bizi-kalitatea hobetzea"

AMAIA ARANA ARKITEKTOA

Espainiako Arkitektoen Kontseilu Gorenak (CSCAE) antolatzen duen 2024ko Arkitektura Sariak sariketarako hautatua izan da aretxabaletarraren 'BAT Etxea' proiektua

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Amaia Arana Corral (Aretxabaleta, 1988) arkitekto aretxabaletarraren *BAT Etxea* 2024 Arkitektura Sariak sariketarako hautagaia da. 185 proiektu izan dira aukeratuak; horietatik hamalau, Hego Euskal Herrikoak. Maiatzean emango dute finalisten berri eta ekainean banatuko dituzte sariak.

**Pozik zure lan bat hautatu dutelako sariketarako?**

Pentsa, sari hori ematen du Espainiako Arkitektoen Elkargo Kontseilu Gorenak eta urteko arkitektura lanik onenak saritzen ditu. Hortaz, aukeratu artean izatea sekulako poztasuna da. Maiatzean emango dute finalisten berri, eta kalitatezko hainbeste lanen artean egotea zaila izango da, baina orain arteko ibilbidearekin oso pozik gaude.

**Beste aitortza batzuk ere izan ditu proiektu horrek, ezta?**

Bai. Egurrezko arkitekturari aitortza egitea helburu duen AMAD sarietan hautatua izan zen, eta 2023ko Zurezko Arkitektura proiekturik onenak biltzen dituen *AITIM* aldizkariaren zerrendarako ere bai.

**Zer dauka etxe horrek berezia?**

Diseinuari dagokionez, edertasunaren edo irudi garbi baten



Amaia Arana arkitekto aretxabaletarra. IÑAKI GURIDI

bila joan gara. Horrez gain, hasiera-hasieratik genuen garbi jasagarria izan behar zuela; horregatik, erabilitako material nagusia egurra izan da. Alemaniako Passivhaus Institutuaren irizpideak jarraitu dira eraikuntzan eta emaitza onekin gaintu ditugu egindako test guztiak. Era berean, *bauhaus* korrontearen barruan kokatuko genuke, hiri inklusiboagoak, ederragoak eta jasagarriagoak bultzatzen dituen arkitektura mugimenduaren baitan. Gure helburua izan da bertan biziko

direnen zein inguruko bizi-kalitatea hobetzea.

**Bakarrik jardun duzu lanean?**

Ez; behin etxearen diseinua erabakita eta materiala zehaztuta, egur kontuetan esperientzia handia duen Iñaki del Prim arkitektoarengana jo nuen. Proiektua asko gustatu zitzaion, eta biok batera jardun dugu lanean; obraren zuzendaritzaren ardura bion izan da.

**Bezeroak zer dio? Gustura dago?**

Oso pozik; izan ere, hasierako fasean haiekin batera landutakoa lortu da: jasagarria izatea,



Sariketarako hautatua izan den lana. JESUS GRANADA

## Egurrekin eraikitako 'BAT Etxea'

Egurrez eraikitako familia bakarreko etxe pasiboa da. Bi isurialdeko teilatua duten hiru bolumenez osatuta dago eta horien artean espazio gardenak daude. Egurra izan da material nagusia. Egurrezko lamekin jantzitako fatxada eta teilatua ditu, alero barik eta inongo apaingarri barik. Horrek "irudi garbia" ematen dio, "maketa bat" izango balitz moduan, eta estetika hori lortzea izan da "erronka nagusietako" bat. Egur kontralaminatuzko hormak dira, itxitura funtzioa dutenak, eta, horri esker, barrualdean zutabe gabeko espazio handiak eta atseginak lortu dira.

Usurbilgo Zubieta auzoan dago 390 metro karratu erabilgarri dituen etxea. Edertasunarekin batera jasagarritasuna izan da helburua, eta *passivhaus* irizpidea jarraituta eraiki da. *Bauhaus* korrontearen barruan dago kokatuta.

kontsumo baxukoa, egurrari esker goxoa... Bertan bizi dira dagoeneko eta benetan gustura daude. Sari honen izendapena dela eta haiekin egon berri naiz, eta zera esan zidaten: "Zuek pozik egongo zarete orain hautaketarekin, baina gu horren aurretik gaude pozik, etxearen eguneroko funtzionamendurekin". Hortaz, ni horrekin geratzen naiz; izendapena ondoetorria da, baina bezeroa pozik uztea bezalakorik ez dago. **Hortaz, proiektu horrek poztasun asko eman dizkizu.**

Bai; oso proiektu garrantzitsua izan da niretzat, bai profesionalki, bai pertsonalki. Luze joan da prozesua, urte asko pasatu dira hasiera hartatik, eta obra bukaerara iristear zela ama izan nintzen; hortaz, benetan berezia izan da.

**"ZAILA IZANGO DA SARIA ESKURATZEA, BAINA ORAIN ARTEKO IBLIBIDEAREKIN OSO POZIK GAUDE"**



NIRE USTEZ

MIKEL ARROJABE

## Jakintza galdua?

Hezkuntza iraultza betean sartuta dago, digitalizazioa dela, konpetentziak, ikas-egoerak... Eskola publikoan eremuak sortzen ari gara DBHn, eta proiektuak edo erronkak eraikitzeari ekin diogu. Gure eskolan ere horretan ari gara eta, kostakoak izanik, gure itsasertzean bizi diren arrainak aztertu, marraztu eta Txikipediarako artikuluak egin ditugu. Donostiako

Aquariumarekin elkarlanean aritu gara eta proiektuaren amaiera Aquariumera bisita eginez eta marrazkiekin erakusketa osatuz amaitu dugu. Ikasleek asko ikasi dute, eta, haietazko arrainen izenak bitxiak baziren ere, aitona-amonek ohikotasunean erabiltzen zituzten.

Eta horrek zer pentsatua eman dit. Aretxabaletako haur eta gazteek zenbat

txori edo landare izen ezagutzen dituzte? Helduok ere gutxi, tamalez.

Aitona-amonen jakintzaren transmisioa egin ezean, altxor handi hori galdu egingo da. Sor ditzagun ikas-egoerak aitona-amonak eta haurrak elkartuz eta baserri eremua ikasgelan sartuz edo ikasleak aldapan gora eramanez. Askok ikasiko dugu eta dibertigarria izango da.





# Haikuak eta liburuak jasotzeko gertu Arkupen

Liburuaren Nazioarteko Eguneko ekitaldiak apirilaren 26rako iragarri ditu Udaleko Kultura Sailak. Haiku erronka dago deituta ordurako, eta aurkeztutakoak irakurriko dituzte; liburu-truke azoka egingo dute, norberak eroandako liburuak trukatzeko

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Irakurzaletasuna sustatu eta literatura herritarrengana gerturatzeko xedearrekin, keinu txiki bat egingo diote apirilaren 23an ospatzen den Liburuaren Nazioarteko Egunari. Herriko idazleekin elkarlanean bi ekitaldi antolatu ditu Udaleko Kultura Sailak hilaren 26rako: batetik, haiku erronka dago. "Japoniar jatorriko poema txikiak dira haikuak; hamazazpi silaba dituzte, bost, zazpi eta bost silabako hiru bertsoetan banatuta, eta ez dute errimarik izan beharrik. Gaia, askotan, natura izaten da, baina besteren bat ere izan daiteke. Unetxo bat hitzetan harrapatzea da kontua", azaldu du Judit Ruiz de Munain idazleak.

12 urtetik gorako edonork parte har dezake eta online aurkez daitezke edo Arkupen dagoen kaxan sartu, han dagoen esku-orri bat beteta; horretarako azken eguna hilaren 21a da. Hurrengo egubakoitzean irakurri egingo dituzte aurkeztutako horiek Arkupen, 18:00etan egingo den ekitaldian, eta hainbat opari banatu ere bai ondoren.

**Liburuak trukatzeko aukera**

Bestetik, literaturke azoka ere egingo dute, 17:00etan hasita. Trukatu gura diren liburuak

aldeztatik eraman beharko dira Arkupera, eta han bonu bat jasoko dute beste liburu bat hartzeko. "Herriko idazleok antolatu izan dugu azoka azken urteotan, baina oraingoan herritarren parte-hartzea sustatu gura dugu", eman du aditzera Ruiz de Munainek. Dena den, idazleen lanak ere eskuragai izango dira egun horretan, baita haiekin bertatik bertara hitz egiteko aukera ere.

Literaturke azokari 20:00etan emango diote bukaera, moka-dutxo bat janda.

## Loramendiren lehiaketa

Loramendiren literatura lehiaketara lanak aurkezteko epea apirilaren 26an itxiko da. 8 eta 16 urte arteko ikasleek aurkez ditzakete, Durana kaleko egoitzara eramanda edo [euskara@loramendielkartea.eus](mailto:euskara@loramendielkartea.eus) helbidera bidalita.



Herritar bat haikuaren esku-orria sartzeko Arkupeneko kaxan. MIRARI ALTUBE

## UDAko hiru bolari aurrean

Gipuzkoako hiru txirlo txapelketako 53. ekitaldiko laugarren jardunaldia jokatu zen Aretxabaletan, eta 65 bolarik hartu zuten parte. Juan Luis Rodriguez (Asola Berri elkarte) izan zen txapeladuna, zortzi txirlo botata, eta haren atzetik geratu ziren Beñat Oñederra (Asola Berri), Jesus Mari Gorosabel (UDA), Haizea Arrieta (UDA), Boni Plaza (Elgeta) eta Gartzia Gorosabel (UDA).



UDA

## Giza gazteluak gaur plazan, Castellers de Vilafrancakoekin

Giza gazteluak egiten entzute handia duen eta erreferente den Penedes de Vilafranca herriko taldea izango da gaur, egubakoitzea, Herriko Plazan, Kultura Sailak gonbidatuta. 200 bat lagunek *castell* edo giza gazteluak egingo dituzte, 19:00etan –eguraldi txarra bada, kiroldegian–. Aretxabaletan lehenengoz egingo dute halako erakustaldi bat;

horregatik, "aukera ez galtzera" gonbidatu dituzte herritarrak.

75 urtetik gora dituen taldea da Castellers de Vilafranca eta azken urteetan hamar pisuko gaztelu gehien egin dituen, baita Tarragonako lehiaketa entzutsuenean garaipen gehien eskuratu dituen ere. Euskal Herrira hainbatetan etorri izan dira; oraingoan, Aretxabaletan eta Portugaleten egingo dute geldialdia eta euren tradizioaren berri emateko "gogotsu" datoze la adierazi dute.

## Haurren eta nerabeen sexualitatearen gaineko hitzaldia

*Zer egin dezakegu gure haur eta nerabeek sexualitate aske eta osasuntsu bat izan dezaten? hitzaldia eskainiko die gurasoei Eider Goiburu Moreno adituak, Foru Aldundiak sustatutako Treba egitasmoaren baitan. Apirilaren 25ean izango da hitzaldia, 18:00etan, Arkupen, eta izena aldeztatik eman behar da: [gazteria@aretxabaleta.eus](mailto:gazteria@aretxabaleta.eus).*

## Ikazkin Trail prestatzeko irteera egingo dute bihar

Irailaren 7an egingo den Ikazkin Trail mendi lasterketa prestatzeko asmoarekin irteera antolatu du UDAn apirilaren 20rako; 09:30ean abiatuko dira, Herriko Plazatik. Hiru taldetan banatuta egingo dute irteera hori gidari batekin. Parte hartzeko, izena eman behar da, formulategi bat beteta: [https://labur.eus/irteera\\_urtarrilak\\_27](https://labur.eus/irteera_urtarrilak_27).



**ANDRA MARI**  
ASESORIA / AHOLKULARITZA

*Etorri eta lagunduko dizugu*

# 2023ko errenta kanpaina

Aholku pertsonalizatua

Araba ibilbidea 20A • ARETXABAETA • Tel. / Fax.: 943 79 29 26 • [naiara@asesoriaandramari.com](mailto:naiara@asesoriaandramari.com)



Ezagutuz ulertu, ulertuz maitatu lehiaketako irabazleetako bat, aitonaen biografia kontatzen, iaz. IMANOL SORIANO

## Belaunaldien arteko transmisioa, literaturatik

'Ezagutuz ulertu, ulertuz maitatu' izeneko egitasmoaren barruan, aitona-amonon biografiak idatzi dituzte Eskoriatzako ikastetxeetako seigarren mailakoek; hiruk kontakizuna egingo dute protagonisten aurrean, Zaldibar antzokian, 18:30ean hasita

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA  
Gaurko ekitaldiari hasiera emateko, Beheko Errota musika eskolako ikasleek *Lagun bat badut* izeneko musika emanaldia egingo dute, arratsaldeko sei eta erdietan hasita. Gero, Eskoriatzako 12 urteko gazteek, euren aitonen edo amonen gainean idatzitako biografia lehiaketako saridunek, biografiak irakurriko dituzte aitonen edo amonen aurrean.

### Hiru kantu hasteko

Musika eskolako hamar ikasle izango dira Zaldibar antzokiko oholtza gainean eta hiru abesti kantatuko dituzte, guztira. "Ikasle horiek kantu koraleko ikasleak dira. Haiek ez dute instrumenturik joko, abestu egingo dute, soilik, eta, haiekin batera, Araceli Guridi Beheko Errota musika eskolako zuzendaria eta irakaslea izango da pianoarekin laguntzen; ikasleak gidatzen, berriz, Itziar Izagirre irakaslea arituko da.

### 58 lan eta hiru saridun

Zaldibar antzokia musikaz girotu ondoren, *Ezagutuz ulertu, ulertuz maitatu* aitona-amonon biografien lehiaketaren sari banaketa egingo dute, eta irabazleek idatzitako biografia-lana irakurriko dute. Eskoriatzako ikastetxeetako seigarren mailako 58 parte-hartzaile izan dira, guztira, eta saridunak honako hauek izan dira, lan hauekin: Nikole Intxausti, *Amama Pilar lanarekin*; Josu Lekuona, *Amama Arantxa*-rekin; eta Sara Bouchakourt, *Nire aitona Mohamed* lanarekin. "Ekitaldi arrakastatsua izaten, eta baita hunkigarria ere. Iaz ere zoriondu gintuzten ekitaldira etorri zirenek. Ekitaldi goxoa izaten da,

**DOMEKAN 12:30EAN LITERATURA JUNTAIXE EGITASMOA EGINGO DUTE ZALDIBAR ANTZOKIAN**

nahiz eta epaimahaia osatzen dugunontzat zaila izaten den hiru saridun aukeratzea. Lan oso onak jaso ditugu", adierazi du Iñaki Agirianok, Eskoriatzako Bibliotekako arduradunak.

### Literatura, musikaz blai

Domekan, berriz, Literatura Juntaixe egitasmoa izango da, 12:30ean, Zaldibar antzokian. Ekimena ere ez da berria, eta bertan, liburu eta mokadu ederraren artean bildurik, irakurketak egingo dituzte herritarrek, musikaz lagunduta. Sarrera doan izango da. Dorleta Kortazarrek gidatuko du saioa, eta oholtza gainean Xabi Gonzalez, Maite Encina, Sara Agiriano eta Julia Guerra izango dira. "Irakurleek euren gustuko liburu baten pasarteak irakurriko dituzte, eta liburu gomen datu". Ekitaldia girotzeko, Beheko Errota musika eskolako gitarra hirukoteak Mikel Laboaren kantak eskainiko ditu irakurketekin tartekatuz.

## Hasi dira lanean Olazar elkarteko juntako kide berriak

Jose Miguel Zubia 'Josemi', Dorleta Lezeta, Julia Garcia eta Manolo Gonzalez dira batzarkide berriak

### I.B. ESKORIATZA

Olazar Erretiratuen Elkarteko juntako batzarkide izan diren Maria Diaz eta Maria Dolores Legarda ordezkatu dituzte Jose Migel Zubiak, Dorleta Lezetak, Julia Garciak eta Manolo Gonzalezek. Horrez gain, beste zenbait gai izan zituzten berba martitzenean, batzar orokorrean.

"75 urtetik beherako 200 lagun baino gehiago ditugu elkartean eta beti ari gara junta osatzeko jende bila. Aurrera begira, animatzeko eskatu nahi diegu kide guztiei. Irteera eta bidaiak denok ditugu gustuko, baina denok lagundu dezakegu antolakuntzan. Horrekin batera, bingoan egun bat gehiago jartzea gura dugu, tabernako arduradunekin adostuta; jendea oso gustura aritzen da...", adierazi du Arantza Iregik, Olazar Erretiratuen Elkarteko lehendakariak.



Batzar aurretik, juntako zenbait kide. I.B.

### Urteko programa, jendaurrean

Urteko ekintza guztiak batzen dituen triptikoa argitaratu eta herriko zenbait txokotan jarriko dutela ikusgai azaldu zuten, besteak beste, nahiz eta hitzordu batzuk guztiz zehaztu gabe dauden.

## OHARRAK

### Bigarren eskuko azoka

Domekan 11:00etatik 14:00etara izango da, plazan, liburuak, arropa, jostailuak, kirol materiala eta bestelakoak berrerrabiltzeko helburuarekin.

### Dantzaldia zapatuan

Javi Sound, 18:30etik 20:00etara, Zaldibar antzokian.

### Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 19:00etan

Hilaren 25ean izango da lehenengo saioa, Zaldibar antzokian. Bertsotan hauek arituko dira: Antton Fernandez, Peru Aiartza, Libe Goenaga, Asier Iburguren, Andoitz Urdapilleta, Joar Garate, Emaiz Murua eta Jon Mata.





Gorosarri Dantza Taldeko kideak, Eskoriatzako txistulariekin batera, joan den zapatuan, talde argazkian. GOROSARRI DANTZA TALDEA

## Plazetara itzuli da Gorosarri Dantza Taldea

Joan den zapatuan, apirilaren 13an, musika eskolan dantzak ikasten diharduen helduen taldeak Gorosarri Dantza Taldearen izena hartu eta Debagoieneko Dantzari Egunean parte hartu zuen, Arrasaten, Eskoriatzako txistulari taldea lagun izanda

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Aurtun, lehenengoz, Eskoriatzako Gorosarri Dantza Taldea Arrasaten egindako Debagoieneko Dantzari Egunean izan da. Izan ere, Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolan dantzak ikasten diharduen helduen taldeko kideak Gorosarri Dantza Taldea ordezkatzeko izan ziren. Hain zuzen ere, bi belau-nalditako dantzariak batu ziren bertan; guztira, herriko hamar dantzari.

### Zaletasuna suspertzen

Eskoriatzan, 60ko hamarkada bukaeran, Mario Padillak Gorosarri Dantza Taldea sortu zuen; lehenengo emanaldia 1966an

egin zuen taldeak, herriko plazan, eta urte luzez herri batetik bestera aritu ziren Eskoriatzako dantzariak. 90eko hamarkadaren bukaeran, dantza taldea antolatzeke erreleborik ez zegoela ikusita, taldea bertan behera geratu zen.

Duela 20 bat urte, herriko dantzarako zaletasuna suspertzeko helburuarekin, Udalak Beheko Errota musika eskolari dantza eskolak emateko eskatu zion, eta azken urteetan asko izan dira bertatik pasa diren haur eta gaztetxoak. Helduak ez dira horrenbeste izan, baina azken urteetan indarra hartzen ari den jardura da. Haur nahiz nagusiek herriko emanaldietan

parte hartu izan dute, baina beste herri batzuetara ez dute jo izan. Hala, baina, 2018an Balarako Dantzari Egunean parte hartu zuten lehenago ibilitako dantzari batzuek. Hura izen zen Gorosarri Dantza Taldea izena hartuta plazara salto egin zuten azkeneko urtea.

### Ikasteko aukera

Dantza egiten ikasteko aukera ere ireki dute. Hain zuzen, musika eskolan datorren ikasturterako izena eman daiteke. Horretarako, Beheko Errota musika eskolara joan, 943-71 49 95 telefono-zenbakira deitu edo [musikesko@hotmail.com](mailto:musikesko@hotmail.com) helbidera idatzi daiteke.

## Txalaparta jotzen ikasteko hastapen saioak amaitu dira

Oier Sarasua eta Aitor Zilardegi irakasleek gidatuta, hamar lagun aritu dira txalaparta jotzen ikasten

### Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Eguenetan batu dira txalaparta jotzen ikasten ibili diren partaideak, 17:00etatik 19:00etara bitartean, Leintz Gatzagako erabilera askotariko espazioan –eskola zegoen eraikineko lokalean–; hamar lagun aritu dira: zortzi emakume eta bi gizonezko. Oier Sarasua eta Aitor Zilardegi irakasleen gidaritzapean, perkusiozko eskal musika tresna jotzen ikasten aritu dira, eta tartean izan da Dorleta Elkorobarrutia, Leintz Gatzagako alkatea: "Parte-hartzaile guztiak txalaparta ikasteko gogoz aritu gara, eta gustura egon gara ikasten".



Garazi eta Dorleta txalaparta jotzen. D.E.


### Oreka eta desoreka uztartuz

Hastapeneko ikastaroan, perkusiozko instrumentua jotzen ikasten aritu diren ikasle batzuek *ttakun*-aren figura hartu dute;

beste batzuek, aldiz, *herrena*-ren figura. Lehenengoak oreka edo ordena ezartzen du; bigarrenak desoreka dakar. Hala, orekaren eta desorekaren arteko balantza horretan, urratsa egin dute, laster herriko saioaren bat eskaintzeko bidean.

## Argindar sarea hobetzen

Argindar sarea hobetzeko eta handitzeko lanen barruan, argindar-instalazioaren kalitatea eta fidagarritasuna hobetzeko hainbat esku-hartze egin dituzte asteon. Martitzenean, Arlaban gainean eta Goierrri auzoan izan ziren Leintz Argiko teknikariak lanak egiten. Horretarako, argia moztu zuten, eta lanak aurreikusitako bezala egin zituzten.



LEINTZ ARG



**GIPUZKOA BERTSOTAN**  
**24** 100 FASEA

Andoitz Urdapilleta Gurrubaga  
Antton Fernandez Lasa  
Asier Ibarburen Amondarain  
Emaitz Murua Arzallus  
Joar Garate Rueda  
Jon Mata Etxaniz  
Libe Goenaga Arrieta  
Peru Alartza Cojaraville

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)  
[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)

**ESKORIATZA**

Apirilak 25, osteguna, 19:00 📅  
Zaldibar Antzokia 📍










Antolatzailea:



Loguntzailea:

**goiena**  
KOMUNIKAZIOA

Gai-emailea:

Iker Iriarte Iribar



Altza Burua taldeko zenbait kide, asteen, Mariaren Lagundiko patioan; antzuolarrak eta elgetarrak ere badaude taldean. J.B.L.

# Pantaila itzali, burua altxatzeko

Pantailen erabilerak umeengan eta nerabeengan sortzen dituen arazoekin kezkatuta, Bergaran ere Altza Burua taldea sortu dute zenbait gurasok. Lehen ekintza izango da apirilaren 30erako Udalaren laguntzarekin antolatuta duten Miren Rosen hitzaldia

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Pantailen erabilerak umeengan eta nerabeengan sortzen dituen arazoekin kezkatuta, Gipuzkoako eta Debagoieneko beste herri batzuetan bezala Bergaran ere duela hilabete batzuk hasi ziren guraso batzuk antolatzen eta elkartzeko, egoerari buelta eman nahian. Hasiera batean, ikastetxe bakoitza bere modura hasi zen elkartzeko, eta, aurrerago, Gipuzkoako Altza Burua ekimenak antolatutako bilera batera joan ziren herri modura.

**Elkarlanerako "prest" daude** Orditik hona, beste zenbait bilera egin dituzte, Antzuolako eta Elgetako gurasoen presentziarekin; izan ere, bi herri horietako umeak Bergarara joan ohi dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egitera, eta oso hedatuta da goen ohitura da adin horretan

umeari mugikorra ematea. Altza Burua taldekoek martitzenean egin zuten azken bilera, Mariaren Lagundiko gela batean, eta azpimarratu zuten hiru helburu nagusi dituztela begiz jota: mugikorraren erabilera atzeratzea, eskolak mugikor gabeko gune bihurtzea eta gizarte mailan kontzientzia eragitea; azken helburu horretarako "erabateko presuntasuna" erakutsi dute.

**Miren Rosen gomendioak** Gizarte mailako kontzientziario horri begira, hain justu, hitzaldia antolatuta dute Bergarako

**ERABILERA ADINEAN ATZERATZEA ETA ESKOLAK MUGIKOR GABEKO GUNE IZATEA DIRA LEHENTASUNAK**

Altza Burua taldekoek apirilaren 30erako, Udalaren laguntzarekin. Miren Ros hezitzailea gonbidatu dute Seminarixoa hitzaldia egin dezan, 18:00etan hasita; *Haurrak, nerabeak eta pantailak* izango du izenburu Rosek gidatuko duen saioak.

Sakelako erabileraren inguruan hainbat hitzaldi egin ditu Rosek, eta, *Guraso.eus* atariari emandako elkarrizketa batean azpimarratu zuenez, hainbat ondorio ditu umeengan eta nerabeengan: "Ondorio asko daude. Lehenengoa: ez dute behar; hau ez da jostailu bat, tresna oso indartsua da. Bigarrena: gurasoen erabakia da; gure esku dago. Hirugarrena: nerabeen burmuina berreraikitzen ari da; inpultsoen kontrola, planifikazioa... ari dira eraikitzen, eta hori guztia asintzen du, justu, sakelakoak.

## "Pantailen tsunamiaz ohartu gara; orain, buelta eman nahian gabilta"

OLATZ ARTEAGA BERGARAKO ALTXA BURUA TALDEKO KIDEA

Pantailen egunerokoan sortzen dituzten arazoekin jabetuta, Altza Burua taldean buru-belarri dabil Olatz Arteaga ama bergararra. Sinetsita dago egoerari buelta eman behar zaiola.

### Zergatik eta zertarako sortu duzue Altza Burua?

Mugikorrek eta, oro har, pantailen gizartearen eta, bereziki, umeengan eta nerabeengan sortzen dituzten arazoak ikusten ditugu egunerokoan, eta horri buelta emateko hiru helburu zehaztu ditugu. Lehen da mugikorraren erabilera atzeratzea adinean; oso goiz ematen zaie, oraindik prest ez daudela erabilera ona emateko. Bigarren helburua da ikastetxeak mugikor gabeko gune bihurtzea. Eta hirugarrena da gizartearen —eta, bereziki, familiei— arazoak kontzientziatzea eta erabilera



J.B.L.

egoki baten aldeko urratsak egiten joatea.

### Helduak zer? Eredu zarete?

Badakigu orokorrean oso eredu txarra garela. Pantailen kontua etorri zaigu tsunami bat bezala eta orain bat-batean ari gara konturatzen nolako kaltea ari diren eragiten. Behin ohartuta, buelta eman nahian gabilta.

### Zergatik ekarriko duzue Miren Ros berba egitera?

Gaiaren inguruan hainbat hitzaldi egin ditu eta badakigu hitzaldi horien ostean hainbat guraso batu izan direla taldera. Denok eragin behar dugu.

Haiek ez daude prestatuta inpultso horiek geldiarazteko. Ikerketa askok diote soinu horiek, *like* horiek, mezu horiek jasotzen ditugunean, dopamina sortzen dela gure burmuinean. Kokainaren efektu berbera da".

Hain zuzen ere, hezitzaile eibartarrak honako gomendio hau egin ohi die gurasoei: "Oso esperimentu interesgarria da asteburu bat sakelakorik gabe egitea, adibidez. Utzi erabat, eta ohartu zer sentitzen duzun, zer-nolako beharra duzun. Egin hausnarketa. Desintoxikatu. Egin planak seme-alabekin sakelakorik gabe. Mendi buelta bat, edo beste edozer gauza. Gozamina da. Itzela da ikustea nola aldatzen diren harremanak".

Rosen aldarrikapenetako bat da nerabeei ez ematea mugikorra 16 urte bete arte: "Beti adibide bera jartzen dugu: autoa gidatzeko baimena 18 urterekin atez"

**ARAZOAREN TAMAINA IKUSITA, EZINBESTEKO DERITZOTE HAINBAT ERAGILEREKIN BATERA LAN EGITEARI**

ra dezakegu, eta zerbaitengatik dago 18 urteko adina jarrita. Autoarekiko legea zorrotza da, azterketa medikoa, praktikoa eta teorikoa egin behar ditugu, eta orduan lortzen dugu gida-baimena. Smartphonearekin ba al dago interesik gure gazteek 16 urtetik aurrera eskura ditzaten tresna horiek ala interesa dago lehenbailehen Tiktoken eta Instagramen sar daitezen? Ez dago ondorio legalik haur batek sakelakoa 9 urterekin eskuratzen badu, Tiktoken sartzen bada, pornografia ikusten badu...".

### Hitzaldirako dei berezia

Bergarako Altza Burua taldekoek gaineratu dute jakin badakitela hainbat guraso daudela kezkatuta gaiarekin, eta, horregatik, Miren Rosen hitzaldira joateko gonbidapen berezia egin dute: "Beste herri batzuetan hitzaldia egin izan duenean hainbat guraso batu izan dira taldera".

Altza Burua taldekoek erabat zabalik dituzte ateak, eta diote arazoaren tamaina ikusita eurek ere hainbat ate jo beharko dituztela; bereziki, aisialdiaren bueltan diharduten herriko eragileen atea.

# Belar artifiziala berrituko dute Ipintzan, udan zehar

la 16 urte belarra aldatu barik egon ostean, Udalak 230.000 euro bideratuko ditu Ipintzako zelaia berritzeko eta bestelako hobekuntza batzuetarako. Proiektua lizitazio fasean dago, eta, udal teknikarien arabera, "dena ondo bidean", udan egingo dira lanak

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Ipintza futbol zelaiko belar artifiziala aldatu eta ekipamenduetan "hainbat hobekuntza" egingo ditu Udalak, eta, horretarako, lanak lizitaziora ateratu ditu. Guztira, 230.000 euro –BEZa barne– bideratuko dituzte proiektu horretarako, eta, udal teknikarien arabera, "dena ondo bidean", lanak udan zehar egingo dituzte. Hau da, Ipintzako zelaiak mugimendu gutxien duen urteko sasoi baliatu nahi dute, datorren denboraldirako belarra berrituta egon dadin.

## la 16 urte dituen belarra

Ipintza futbol zelaiari 2008an jarri zioten belar artifiziala; hain zuzen ere, 2008ko ekainaren 28an inauguratu zuten zelai berritua, BK Eren eta BTLS taldeen arteko derbi batekin. Orduetik ia 16 urte pasatu direnez, belar artifizial berritua jarri behar da; aintzat hartu behar da adituek gomendatzen dutela belar artifiziala gehienez hamabi urtean

behin aldatzea. Ezin da ahaztu, gainera, Ipintzak erabilera bereziki handia izan duela, Agorrosingo belar naturala egunerokoan erabiltzeko aukerarik ez zegoelako.

Horretaz gain, futbol zelaiaren bestelako hainbat konponketa ere egingo dituzte, hala nola erregadio sistema zein ur-hodiak errepasatu eta sare perimetrala berritu. Proiektuak jasotzen du, aldi berean, Ipintza futbol zelaiako belarra, ateak, inguruko sarea eta aspertsoreak berritzea. Eta, gainera, azpiko zorua planimetria zuzendu eta ura eramateko kanaleten sistema konponduko dituzte, horretarako beharra ikusten bada. Obra-aren azalera osoa 5.652 metro

**AGORROSIN  
KIROLDEGIKO FITNESS  
GELAKO MAKINERIA  
BERRITZEA ERE  
AURREIKUSTEN DUTE**

koadrokoa da, Ipintzako futbol zelaiak duen neurria –95 metro bider 59,5 metro–. Barrualdean, zelaiako lerroak kolore desberdineko soropilez markatuko dituzte, eta 90x56 metroko neurriak izango ditu. Gainera, zelaiaren zati bakoitzean futbol zazpirako zelaiak ere markatuko dute, Ipintzak izan ohi duen erabilera handiari begira.

## "Hobekuntzak" fitness gelan

Udaleko zinegotzi Olatz Manuel azpimarratu duenez, "oso garrantzitsua" da Udalaren jabetzakoak diren azpiegiturak "ahalik eta modurik egokienean" mantentzea, eta gogora ekarri du kiroldegiko fitness gelan ere aldaketa batzuk egingo dituztela: "Gure ustez, Udalarenak diren azpiegiturak ondo mantentzea oso garrantzitsua da, eta, alde horretatik, Agorrosin kirolgunean fitness aretoan hobekuntza batzuk egingo dira; makineria zaharra kendu eta berria jarriko da, batez ere".



Ipintzako futbol zelaia, asteon. Ekainaren 28an 16 urte beteko dira zelai artifiziala inauguratu zenetik; orduetik ez da aldatu. B.U.



NIRE USTEZ

ALEX ARTEAGA

## Tabernako filosofoak

Maite ditut taberna izkintetan aurkitu daitezkeen filosofoak, sarri inongo ikasketarik gabe, esperientzia lagun, bidea argitzeko gai direnak. Astakeria galantak botatzen dituzte sarri, barre urduri bat ateratzen didatenak. Isilik geratu, eta tipo hau erotuta dagoela pentsatzen dut, baina ezin altuan esan, ordea...

Askotan gertatu izan zaizkit horrelakoak bizitza ikusi eta bizitzeko beste ikuspuntu bat duten pertsonen entzutean, eta horregatik galdetu izan diot neure buruari: "Hi, zeatik ez dok holakon bat itxen?". Erantzuna bizkorra izaten da; berehala alarmak salto egin, eta ezezkoa ematen diot neure buruari. Ohartzen naiz nolako beldurra diodan gauza berri bat egiteari, inoiz egin ez dudana egiteari edota urteetan zehar eguneroko errepikatu dudana errutina beste modu batean ikusi eta aldatzeari. Nire inguruko pertsonengan asko gertatzen dena ere bada honako hau; beraz, filosofo hauei kasu egiten hasi beharko ote dugu?

Azken finean, kalea bizitza da, eta kalean bizitza egiten duenak kalea ondo ezagutzen du.



LUKEN UGARTEBURU

## Larrea, Ipintzako 'erritmora'

Ipintza ikastetxeko ikasleak *Galdegazte* saioan izan dira Arrasate-Udalatx lasterketako errekorra ondu berri duen Ibai Larrea korrikalari antzuolarra elkarrizketatzen. Platoon izan dira Aimar Linzoain, Iraia Larrea eta Malen Legorburu eta kontrol-gelan, Danna Diaz eta Hannah Telleria. Saioa apirilaren 23an ikusi ahaliko da Goiena telebistan, 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean.

## OHARRAK

### Zabalik da udako eskaintzarako izen-ematea

Udaleko irekietan, udako kirol eskaintza eta Laboratorium museoko udako programan izena emateko aukera zabalik dago. Informazio guztia [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus) webgunean dago ikusgai.

### Belaunaldien arteko 'Olinpiar Jokoak'

Aidauren, Duintasunaren, San Joxeperen, Nagusilanen, Jardunen eta Udalaren elkarlanari esker, herriko haurrak eta nagusiak Munibe plazan elkartuko dira apirilaren 26an (17:30), belaunaldien arteko Olinpiadez gozatzeko; eguraldi txarra egiten badu, Oxirondo azokako goiko lokaletan egingo dira. Gaztetxoek ludotekan eman beharko dute izena eta adineko pertsonen, berriz, San Joxepe erretiratu elkartearen egoitzan.

# Garitano bizikleta gainean oroituko dute, bigarrenenez

Pello Garitanoren omenezko martxa ziklista antolatu du Lokatzak, bigarrenenez, eta aurten ere mozarrotzeko dei egin dute. Bihar 185 txirrindulari irtengo dira San Martin plazatik Gorlara (11:00); ondoren, 110 bat lagun elkartuko dira Seminarioko patioan bazkaltzeko

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA  
Pello Garitanoren omenezko bigarren martxa ziklista egingo dute bihar, hilak 20, San Martin plazatik hasi eta Gorlaraino. Martxa 11:00etan irtengo da, eta Lokatza Ziklismo Eskolako antolatzaileak 09:30etik 10:30era egongo dira dortsalak edo plakak banatzen; Udalaren eta Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioaren laguntza jaso dute: "Bereziki, Udalaren ezinbesteko laguntza eskertu nahi dugu".

2022ko ekainaren 18an hil zen Garitano, 82 urte zituela, herrian arrasto handia utzita. Hamaika saltsatan aritu zen boluntario: San Martin jaietako umeen dandorradan, Lokatza Ziklismo Eskolan, elikagai bankuan, Alai abesbatza taldean...

Herriaren alde egin zuen lan gutzia eskertzeko haren omenezko ziklismo martxa antolatu zuen Lokatza Ziklismo Eskolak iaz, Gorlako Igoera ziklistaren bezperan. Aurten, beste data batean antolatzea erabaki dute, Gorlako Igoeraren bezperan Erramu-zapatuko ospakizuna zegoelako.

## "Festa giroan" igoko dira

Garitanoren omenezko bigarren irteeran izena emateko aukera apirilaren 14an amaitu zen, eta,




Pello Garitanoren izako martxaren hasiera, San Martin plazan. GOIENA

Lokatza Ion Unamunok zehaztu duenez, aurten 185 txirrindulari hartuko dute parte: "Iazko lehen edizioan 230 bat izan ginen eta aurtengoa ere oso kopuru txukuna da, pozik gaude. Badakigu, gainera, iaz prestaketa handirik gabe parte hartu zuten batzuk martxa prestatzen aritu direla azken egunotan Gorlan gora; Pelloren aitzakian herritar batzuek kirol gehiago egitea lortu dugula esan daiteke, eta hori pozgarria da". Zortzi kilometro eta erdiko ibilbidea "festa giroan" egiteko asmoa dute: "Iaz bezala,

partaideei eskatu nahi diegu mozarrotuta etorri daitezela, igoera ahalik eta koloretsuena izan dadin. Anoa-postu bat egongo da bidean eta mozarro onenari sari berezi bat emango diogu: Aranburu hortz-klinikaren eskutik hortz-garbiketa bat".

## Bazkaloste animatua

Martxaren ostean, bazkaria egingo dute Seminarioko karpan, eta 110 bat lagun elkartuko dira: "Bazkalostea animatua izatea espero dugu, zozketak eta zuzeneko musika izango dira eta.



Manex Larrañaga, Eibarko podiumean. LOKATZA

## Larrañaga hirugarren kadete mailan

Lokatza Ziklismo Eskolako txirrindulariek martxoan hasi zuten denboraldia, eta, hasieratik emaitza onak lortzen ibili ostean, apirilaren 14an heldu zen saria: podiuma, hain zuten. Manex Larrañaga izan zen protagonistetako bat kadete mailan: tropeleko esprintean hirugarren postuan helmugaratu zen Eibarren, Udaberri Sarian. Gainera, taldeka, Bolintxo Lana taldeak laugarren postua lortu zuen. Kadeteen hurrengo lasterketa domeka honetan bertan izango da, Lizarran.

Bestalde, Igamoko neskek Lea Artibain igaro zuten joan den asteburua, hiru etapaz osatutako *challenge*-an. Postu aipagarrien artean dago Itxaso Plaza arrasatearrak 25. postua erdietsi zuela, Open mailan. Plazak lehen urtea du 23 urtez azpikoetan, eta Markinan, esaterako, 17. postuan helmugaratu zen. Igamoko nesken hurrengo zita apirilaren 28an izango da, Balmasedako "proba historikoan".

Mozorro onenaren sariaz gain, herriko taberna batzuk ere inplikatu dira partaideen artean otordu batzuk zozketatzeko. Eta, gainera, Azkaiter Pelox taldeak argitaratu berri duen *Batera hegan* diskoko abesti batzuk joko ditu zuzenean". Eguna borobiltzeko, Legazpiko Trapalata txarangarekin batera kalejiran joango dira poteoan, 18:00etatik 21:00etara.

## Lokatzarik ez Garitano gabe

Garitano hil berritan zela, Unamunok gogoratu zuen Lokatzak

urte batzuetan Garitanori berrari esker biziraun zuela, neurri handi batean: "Lokatza oso lotuta egon zen, baina baita herriko beste hainbat proiektutan ere. Hutsune handia utzi du, ez da egon haren parekorik. Egundokoa zen Pello, paregabea".

## BAZKALOSTEAN, AZKAITER PELOXEN KONTZERTUA IZANGO DUTE, ETA ONDOREN, TRAPALATA TXARANGA

## Selekzioarekin lagunartekoa

Eguaztenean partidu berezia jokatu zuten Agorrosinen, Bergara eta euskal selekzioa aritu ziren-eta nor baino nor gehiago. 16 urtez azpiko gizonen taldeek lagunarteko partidua jokatu zuten; mahoneroak izan ziren garaile, 2-0. BKEk esker on hitzak izan ditu: "Futbol festa polita izan dugu Agorrosinen. Mila esker euskal selekzioari Bergaran izateagatik. Plazera izan da".



MIKEL LARRAÑAGA

## Bergara Hiria pilota txapelketa, finalerdiegi begira

Bergara Hiria pilota txapelketako bigarren final laurdenak jokatu ziren martitzen iluntzean udal pilotalekuan. Promes mailan Apezetxea eta Leonet izan ziren nagusi Sanchezen eta Santestebanen aurrean (22-5). Nagusien mailan lehia parekatua goa izan zen: Amianok eta Garmendiak 22-20 hartu zituzten mendean Etxaniz eta Loza.



Durangaldeko Nevada taldeak irekiko du rock-and-roll gaua gaur kartzela zaharrean, 22:30ean "puntual" hasita. ANBOTO

# Rock-and-roll zaleek kale ez egiteko zita dute gaur

Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenari esker, Nevada eta Santa Barbara taldeek joko dute gaur kartzela zaharrean (22:30); sarrera zortzi euro da. Maiatzaren 31rako festa elektronikoa antolatu dute, eta ekainean bost urte beteko ditu ekimenak

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA  
Rock-and-rola maite duten musika zaleek proposamen ederra izango dute gaur kartzela zaharrean, Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenari esker. Nevada eta Santa Barbara taldeek osatzen dute gaurko menu musikala, 22:30ean hasita; sarrera zortzi euro ordaindu behar da.

**Urtean hamar kontzertu helburu**  
Durangaldeko Nevada taldea izango da agertokira igotzen lehena: "Nevada izango da jotzen lehena, eta puntual hasiko da; beraz, durangarrak ikusi nahi dituenak badaki ze ordutarako etorri behar duen", adierazi du antolakuntzako kideetako batek, Unai Elkorok. 2024ko

ekainean bost urte beteko ditu Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenak, kartzela zaharra egubakoitzetan zuzeneko musikaz busti nahi duen egitasmoak.

Uztailean eta abuztuan izan ezik, hilean egubakoitz batean kontzertua antolatzeko helburua zehaztu zuten ekimena abiatu zutenean: "Musika gustuko duen

lagun talde batek osatzen dugu Egubakoitzak Berreskuratzen, eta badira ia bost urte martxan gaudela. Gure helburua da zuzeneko musika eskaintzea, ahalik eta eskaintza zabalena izateko. Apirilekoan rocka izango da protagonista eta maiatzekoan, berriz, musika elektronikoa".

## Nevadah kartelburu

Gaurko kontzertuari erreparatuta, 2014an Durangaldean sortutako Nevada taldea da ezagunena eta ibilbide luzeena daroana. Rock-and-rola, garagea eta bluesa dira jorratzen dituzten estiloak. Taldea osatzen dute Ekhi Arrietak –ahotsa–, Liherrarteagak –gitarra–, Jon Agirrebeitiak –gitarra–, Anartz Ugartek –baxua– eta Pello Bañosek –bateria–. 2016an lehen maketa argitaratu ostean, 2018an estudioko lehen lana grabatu zuten, *We're Coming to You* izeneko, zortzi abestiz osatua. Urte hauetan zehar Euskal Herriko eszenatoki ugarritan jotzen aritu dira, aurreko abeslari Jon Agirrek taldea utzi zuen arte. Pandemiaren testuinguruan eta 2021ean Ekhi Arrieta abeslari moduan sartu baino aurretik, hiru urtez kantur berriak sortzen aritu ziren, entsegu-lokalean sartuta. 2022an euren hirugarren diskoa grabatu zuten Lorentzo Recordsen, *Still Goes On* izeneko, zortzi abesti indartsuz osatua.

Durangarren ostean joko du Santa Barbara taldeak.

## Maiatzean elektronika nagusi

Apirileko emanaldia rock-and-roll indartsuz dator, eta maiatzean oso bestelako proposamen bat ekarriko dute. Musika elektronikoa izango da protagonista maiatzaren 31ko gauean, eta ziur ez duela inor axolagabe utziko. Batetik, Ke Lepo etorriko da, Alejo Orbegozo zestoarra –eta Grises taldeko teklatu-jotzaileaduna proiektuaren aita. Hala ere, maiatzaren 31ko ikuskizunean Jokin Guridi bideo-jockey bergararra izango du ondoan; izan ere, entzuten gozatzeaz harago, bideo-proiektzio ikusgarritz jantzitako emanaldia izango da.

Kartela osatuko du Zatibi proiektuak: Mikel Iraeta musikari azkoitiarra dago proiektuaren atzean, aurretik RO eta Zizel proiektuetan ibili den musikari berezia.

## Ekainean, "zerbait berezia"

Ekainean bost urte beteko ditu egitasmoak eta Elkorok aurretik du "zerbait berezia" egitea dutela pentsatuta: "Ez da beste munduko ezer izango, baina zuzeneko berezi batzuk baditugu buruan; oraingoz, baina, goiz da ezer zehazteko".

## MAIATZEAN MUSIKA ELEKTRONIKOA IZANGO DA PROTAGONISTA, ETA EKAINEAN "ZERBAIT BEREZIA" NAHI DUTE

## Bigarren laneko lehen singlea kaleratu du gaur Lemak taldeak

'Itxoiten' du izenburu lehen aurrerapen-abestiak; diskoa Gaztain estudioan grabatu dute, ekainean kaleratzeko

**J.B.L.** BERGARA

Pasatu dira hilabete batzuk Bergara eta Antzuola artean mugitzen den Lemak taldearen berririk ez zela, baina Biken Larrañaga –gitarra eta ahotsa–, Beñat Larrañaga –baxua eta ahotsa– eta Antxon Arregi –bateria– ez dira geldirik egon.

### 'Itxoiten' aurrerapen-kanta

Pop-rock doinuen bueltan mugitzen den hirukotea oso gogotsu dago lokalean sortu eta ostean Zestoako Gaztain estudioan grabatu eta nahastu duten

bigarren diskoa plazaratzeko: "Bigarren lan hau Ezpalak taldeko Eñaut Gaztañagarekin grabatu dugu eta hirukote moduan soinu gordinagoa eta indartsuagoa eman nahi izan diegu gure abestiei. Horretan asko lagundu digu Eñaut Gaztañagak; izan ere, gitarrari, baxuari eta bateriari, hiru instrumentuei, eman diegu garrantzi berezia. Hori da zuzenekoetan transmititu nahi dugunaren esentzia eta uste dugu disko berrian hori nabaritutako dela". Sei abestik osatuko dute diskoa,



Lemak taldea: Beñat Larrañaga, Biken Larrañaga eta Antxon Arregi. LEMAK

eta gaur bertan argitaratu dute plataforma digitaletan *Itxoiten* singlea edo aurrerapen-abestia. Kantuaren bideoklipa bukatzeaz dutela adierazi diote GOIENARI, eta azala Ione Larrañaga diseinatzaile antzuolarrak egin du:

"Diseinuak ederki islatzen du diskoaren izaera".

Lemak taldearen asmoa da diskoa ekainean argitaratzea: "Diskoa argitaratu aurretik, gure asmoa da beste bi aurrerapen abesti argitaratzea".

## Aste bukaera betea Apirilean Musika ekimenaren eskutik

Bergarako Musika Eskolaren Apirilean Musika ekimenaren barruan, hainbat hitzordu izango dira asteburuan zehar Seminarixoa. Gaur, musika tailerra eta gitarra ikasleak (18:00) eta Suzuki metodoa lantzen diharduten biolin ikasleak izango dira (19:00). Bihar, Debagoieneko hari topaketa izango dute (13:00), eta baita Bizet-en *Carmen* operaren proiektzioa ere.

Eta asteburua borobiltzeko, domekan *Txoriekin berba eitten zeban emakumia* ikuskizuna izango dute, hasiberrien eta umeen abesbatza eta talde instrumentala protagonista izango dituen. Bi emanaldi izango dira, 17:00etan eta 18:00etan.



Antzuola Herri Eskolako jolastoki berriua: berdegunea eta hondar-gunea. A.R.K.



Antzuola Herri Eskolako terraza, egokituta. A.R.K.

## Elementu naturalei garrantzia

Kimu Bat enpresak egin ditu jolastokia eta terraza egokitzeko lanak, eta helburuetako bat izan dute plastikorik ez erabiltzea, "inondik inora ere"; beraz, elementu naturalei eman diete garrantzia, Silvia Ezpeleta ikastetxeko zuzendariaren hitzetan.

# Ikasleen beharrei erantzuteko jolastokia

Antzuola Herri Eskolako barruko patioa moldatu egin dute, eta, hala, lehengo baino "inklusiboagoa" da: askotariko espazioak ditu haurren beharrak asetzeko, haiek egin duten eskaeretakoa bat izan baita aldaketa egitea. Terrazak ere moldaketak izan ditu

### Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Jolastoki inklusibo berriari jolasteko aukera izango dute aurrerantzean Antzuola Herri Eskolako ikasleek, haien eskaerei erantzuna emateko asmoz barruko patio grisa birmoldatu eta askotariko espazioez osatutako jolastoki bat sortu baitute. Ez da egun batetik bestera har-

tutako erabakia izan, ordea, Silvia Ezpeleta ikastetxeko zuzendariak adierazi baitu prozesu baten emaitza dela: "Zuzendaritza proiektu berri batean sartu ginen, eta galdetegi bat pasatu genien familiei, irakasleei eta, batez ere, ikasleei; galdetu genien ea zer-nolako eskola nahi zuten. Bota zuten ideia zaparrada, baina asko-asko errepikatzen

zuten ideia izan zen patio berri bat nahi zutela".

Hala ere, ikasleek eskaera hori egin aurretik, zuzendaritzak jada behaketa bat egin zuen jolastokian, eta antzeman zuen jolastokiko espazioak generoaren arabera banatzen zirela, hein handi batean: mutilek okupatzen zuten gehiengoa, eta, horrez gain, erdigunea, eta neskek,

ondorioz, izkinetan gelditu ohi ziren. "Horrek kezkatu egiten gintuen, eta justu momentu hartan konturatu ginen ondoko herrietan patioak berritzen hasi zirela inklusiboago egiteko". Hala, Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin jarri ziren harremanetan, eta ohartu ziren patioa moldatzeko dirulaguntzak zeudela momentu hartan.

### Askotariko espazioak

Umeen eskaerari erantzunez, beraz, askotariko espazioak dituen patioa dute orain. Horietako bat berdegunea da, eta, esaterako, sormenerako espazio bat izatea ahalbideratzen du, hala nola antzerkirako eta marrazteko; horrez gain, oreka eta desoreka jolasetarako eraikinak ere baditu, eta inguruetan bilguneak, haurrak elkarrekin bil daitezten. Gaztetxoagoentzako,

berriz, rokodromo bat eta hondar-gune bat ere badira.

Terrazan ere badaude espazio berriak: hondar-gune bat, arbolaren oskularekin osatutako beste eremu bat eta hiru loreontzi handi. "Horrek erraztuko digu bertako produktuak landatzea, adibidez". Halere, badute beste proiektu bat ere: "Eskolan hiltzen zaizkigun maskotak lurperatze- ra beti jo dugu kanpora, baina espazio honetan lurperatu genitza aurrerantzean; are gehiago, horrek aukera emango digu lurpetik atera eta gorpuekin zer gertatzen den ikusteko ere".

## GENEROAREN ARABERA BANATU OHI ZIREN ESPAZIOAK JOLASTOKIAN; KEZKA ZUEN ZUZENDARITZAK

### Sanisidrotan postua jartzeko izena eman dezakete herritarrek

Maiatzaren 18an, zapatua, ospatuko dute San Isidro eguna – maiatzak 15– Antzuolan, eta martxan da azokan postua jarri nahi duten antzuolarren izen ematea. Interesa duten ekoizle, artisau eta sortzaileek, beraz, maiatzaren 2a, eguna, baino lehenago eman beharko dute izena, udaletxean edo [udala@antzuola.eus](mailto:udala@antzuola.eus) helbidean, inpr-

maki bat beteta. Horrez gain, bigarren eskuko gauzak salgai jarri nahi dituztenek ere postua jartzeko aukera izango dute, aurrez izena eman badute.

09:30ean izango da azoka, eta, ohi den eran, 14:00 aldera arte iraungo du. Udalak jakinarazi du bera arduratuko dela postuetako mahaiak jartzeaz; halere, gainontzeko materialari dagokionez, herritarren ardura izango da. Horrez gain, Udalak erabakiko du postu bakoitzaren kokagunea.

### AKEk Aretxabaleta B taldea jasoko du zapatuan etxean

Bost jardunaldiren faltan, hamalaugarren postuan da gizonen goien mailan AKEko taldea, eta, hala, mailari eustea izango du helburu datozen partiduetan. Etxean izango da, hain justu, datorrena, Eztala futbol zelaian jasoko baititu Aretxabaleta B taldeko jokalaririk. Zapatuan izango da hitzordu hori, 16:30ean.

### Pilota partidak izango dira protagonista asteburu honetan

Ados Pilotak antolatuta, binakako txapelketa nagusiko finala jokatuko dute bihar, 18:00etan, udal pilotalekuan, eta finalista da Leire Galeano antzuolarra; hamar euroko prezioa du sarre-rak. Etzi, berriz, San Isidro pilota txapelketako final laurdenak jokatuko dituzte, 10:00etan, benjamin eta alebin mailetan eta infantiletan eta kadeteetan.

### Landatxoeko batzar orokorrerako dei egin du zuzendaritzak

Landatxo jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak asanblada orokorra egingo du maiatzaren 7an, eta zuzendaritzak bazkideei parte hartzeko dei egin die, "hamabost egun lehenago" egin behar delako. Olanaren izango da, 18:30ean. 2023an eginikoak, 2024an egitekoak eta zuzendaritza batzordearen aldaketa izango dituzte hizpide.



# "Askotariko lanen arteko elkarrizketa bildu dut"

**ARIEL MORENO ARTISTA**

Collageak eta linograbatuak batzen dituen Morenoren erakusketa ikusgai dago Aitz Garbin; askotariko teknikak eta mezuak dituzten arren, elkarrekin jarduten dutela dio

**Amaia Ramirez de Okariz**

**Kortabarria** ANTZUOLA

Arte Ederrak ikasi ondoren, urteetan jardun zuen kultur kudeaketan lanean Ariel Moreno artistak (Caracas, 1972), baina haren obrari ekiteko nahia izan, eta, hala, urte sabatikoak hartu zituen. Orduan garatu zuen *White Noise* lana, eta orain Aitz Garbi tabernan dago ikusgai, maiatz bukaerara arte.

**Zer dago jasota lan honetan?**

Erabat abstraktua izan behar zuen lan honek, figuraziorik gabea, abstrakzioa bere osotasunean interesatzen baitzitzaidan. Baztertutako liburu erabiliak bilatzean hasi nintzen, zuri-beltzekoak, batik bat, 60ko hamarkadako arte-liburuak. Aurkitzen nituen irudiak zatitzen nituen, eta mihiseetan konposizio berriak egiten nituen, collageak. Urte asko egin nituen era horretan jardunean, baina, Europara iritsitakoan, bizitzan izan nituen egoerengatik, aldatzea erabaki nuen, eta berrasmatzeari ekin nion.

**Berrasmatu? Nola?**

Zuri-beltza liluragarria iruditzen zait, burmuinean sor dezakeen dialektikarengatik, erreakzio edo mugimendu bat sor dezakeelako ikuslearengan, baina, berrasmatzean, figuraziorik ezari muzin egin eta muga zeharkatzea erabaki nuen: *White Noise* lanak zekarren abstrakzioa nahastu nuen figurazioarekin, esate baterako, lehenago interesatzen ez zitzaizkidan koloreak sartuta.

**Collageaz gain, ordea, linograbatuak ere badira lanean.**

Bai. Arte Grafikoak ere ikasi nituen, grabatuak, eta teknika horietara itzultzea erabaki nuen hemen, Antzuolan, nengoela. Teknika grafiko horrek irudi bat behin baino gehiagotan erreproduzitzeko aukera ematen dit, estanparen bidez. Linograbatuak dira, funtsean: linoliozko xafla bat da jatorrian, eta



Ariel Moreno artista, erakusketa atzean duela, Aitz Garbi tabernan. A.R.K.

## "ARTEAK LAGUNDU DEZAKE BARRUAN DUGUN INFORMAZIO HORI ULERTZEN ETA ADIERAZTEN"

estampa izaten da emaitza, zuri-beltzean eginda.

**Zer adierazi duzu irudiotan?**

Ildo bat jarraitu dut, espirituala, bilaketa pertsonalarekin lotuta. Lanok, beraz, ez dute zerikusirik collageekin, baina, hein batean, espazio honetan artista beraren askotariko lanak elkarrizketan dabilta; hori dago jasota erakusketan. Izan ere, dena nirea da, baina teknika eta mezu oso ezberdinekin: collageetan informazioa beste bat da, atenzioa ematen didan irudia delako; marrazkietan, aldiz, ez dut aurrez zehaztutako ideia bat, libre uzten baitut eskua, emaitza jakin bat lortu nahi izan gabe. Horrek, lana amaitutakoan, aukera ematen dit lan horretan neure burua ikusi eta ezagutzeko. Komunikazioak ez du zertan arrazionala izan, baina bai sentsazioak sorrarazten dituena.

**Eskuragarri al daude lan horiek guztiak?**

Nahi duenak eros ditzake Aitz Garbin bertan, eta, bestela, nire lanen berri izateko Instagram kontua dut: *@anamorenoartist*. **Ba al duzu beste ezer esku artean?** Arteterapia ikastaro bat egiten ari naiz, eta horretan jardun nahiko nuke. Esperientzia gogorak bizitzetik nator, eta horrek eraman ninduen berriro ere neure burua aurkitzera eta neure barnean errealitatearekin bakea egitera. Sarritan, bizitza arrazionalan, agian, ez gaude barrura begiratzeko prest, baina uste dut arteak lagun dezakeela barruan dugun informazio hori adierazten; ulertu egin behar da inkontzientean dagoena.

**Denendako da baliagarria?**

Bizitzari zentzua eman behar zaio; nire kasuan, bizitza berrekitze honetan, arteak lagundu dit esanahia aurkitzen gauek benetan zentzua izan dezaten. Bada, horra jo nahiko nuke, beste pertsona batzuendako ere baliagarria izan daitekeelakoan. Guztiok dugu horretarako ahalmena; eta ez naiz talentuaz ari, baizik eta bakoitzak barruan daramana komunikatzeaz.

## Txarangak estreinaldia egingo du eguaztenean, kalejirarekin

19:00etan izango da; ondoren, kanta batzuk joko ditu Bergarako Musika Eskolako bandarekin, Torresoroan

**A.R.K.** ANTZUOLA

Begarako Musika Eskolaren eta Antzuolako Udalaren arteko hitzarmen bati esker egin zituen lehen urratsak iazko azaroan Antzuolako txarangak, Bittor Giral Bergarako Musika Eskolako tronboi eta solfeo irakaslearen gidaritzapean, eta, dozenaka entsegu egin ondoren, estreinaldiaren eguna iritsi da. Hain justu, datorren eguaztenean, hilaren 24an, kaleak musikaz alaituko dituzte txarangako ki-deek 19:00etatik aurrera, kalejira egingo baitute; 19:30ean,

berri, Torresoroara joango dira, Bergarako Musika Eskolako bandaren kontzertua izango baita ordu horretan.

**Piano eta gitarra jotzaileak**

Ez da, ordea, egun horretako ekintza bakarra izango, beste bat izango baita aurrez: Bergarako Musika Eskolaren Apirilean Musika ekimenaren barruan, *Musika elkarrekin* izenpean piano eta gitarra ikasleen saioaz gozatzeko aukera izango da Olarango ekintza aretoan, 15:00etatik 16:30era bitartean.

## Euskarazko film laburren emanaldia izango da bihar

Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, 21. aldia du Laburbira ekimenak, euskarazko film laburren erakusleioak, eta Antzuolan izango da bihar, hilak 20, emanaldia, Torresoroa aretoan, 19:00etan.

Euskal Herriko zinemagile profesionalek zein amateurrek eginiko zortzi lan ikusteko aukera izango da: *Babesa*, Ander Iruretagoyenarena; *Dena asmatuta dago*, Jone Arriolarena; *Katalinaren zoria*, Guillermo Ordasena; *Erro*, Amaia Lejarretarena; *Mundu berri bat*, Mikel Alvarezena; *Zirrara*, Ane Cuestarena; *Talkak*, Ilune Diaz eta Jordi Nueterena; eta *Betizu buru*, Kim Maitenyrena.

## Olatz Salvadorren kontzerturako sarrerak salgai daude

Olatz Salvador musikariak kontzertua emango du hilaren 27an, zapatua, Torresoroa aretoan, arratsaldeko zazpitan. Antzuolako Udalak antolatu du, eta Bibe plataforman eskuratu daitezke sarrerak. Hamar euroko prezioa du.

Musikari donostiarra, ordea, ez da bakarrik arituko oholtza gainean, duo formatuan eskainiko baitu kontzertua, Mattin Saldias taldekidearekin batera. Hala, haien lanak entzuteko aukera izango da musika emanaldian: *Zintzilik* (2018) eta *Aho uhal* (2021) diskoak kaleratu zituzte, gaur-gaurkoz, eta *Basan* da haren azkeneko lana; hain justu, abesti bat da.

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**MUJKA HARATEGIA**  
  
Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak  
Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

# "Terapeutikoa izaten ari da 'Bizkarsoro' filma"

IZASKUN URKIJÓ ALIJO ARTE-ZUZENDARIA ZINEMAN

Bospasei urte dira Arkitektura ikasketak egindako gasteiztarra arte-zuzendari lanetan hasi zela. Askotariko proiektuetan ibili da; Goya sarietarako izendatu zuten

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

*Bizkarsoro* filma Korrika Kulturalaren programazioan sartu zenetik, lantaldeko kideak herriz herri dabilta emanaldiak eta solasaldiak egiten. Izaskun Urkijo Alijo (Gasteiz, 1978) arte-zuzendaria da eta Debagoieneko hainbat herritan izan da. Martitzenean izan zen Elgetan.

**Bizkarsoro** pelikula harrera benetan ona jasotzen ari da; pozik izango zarete.

Oso polita izaten ari da. Euskal Herri osoko zinema-aretoak, kultura etxeak eta ikastetxeak zeharkatzen ari gara eta esperientzia berezia izaten ari da, egia esan. Neurri batean, beharrezkoa, esango nuke.

**Bost sasoitako bost istorio jasotzen ditu pelikulak, denak euskararen zapalkuntzarekin lotutakoak.**

Terapeutikoa izatera helden dela esango nuke. Jendea asko hunkitzen da pelikula ikusita-koan, eta adinez nagusiagoak direnak are gehiago. Bizi izan



Izaskun Urkijo Alijo. L.Z.L.

dituzten hainbat bizipen –edo oso antzerakoak– publikoki kontatuta ikusten dituzte, eta orain arte ezkutuan edo oso gertukoen artean bakarrik aipatu dituztenak pantailan ikusi eta konpartitu egiten dituzte.

Hunkitu egiten ditu horrek. Gazteenak ere aipatu nahiko nituzke; izan ere, ikusten ari gara transmisioa eten egin dela. Askok ez dute gertatutakoa ezagutzen. 80ko hamarkadako gertaerak ere ez.



*Bizkarsoro* pelikulako eszena bat. 'BIZKARSORO'

## 'Bizkarsoro' sortu eta girotu

Zuzendariak pelikularako sortu nahi duen giroa lortzea da arte-zuzendariaren lana. Horretarako, objektu egokiak bilatu behar ditu. Garaiko bizikletak eta motorrak, jantziak, eraikinak... Baigorri berton aurkitu du material gehiena Urkijok.

**Bizkarsoro-k badu beste ezaugarri bat: herri-lana; grabaketak bost zatitan egin dituzte, eta bost urteko epean. Gainera, Baigorriko herriarekin. Pelikula gutxi egiten dira horrela.**

Zalantzarik gabe. Bost istorio dira, eta grabatu dugu bat urteko. Oso aurrekontu txikiarekin egin dugu eta aktoreak herritarrak izan dira. Josu Martinez zuzendariak horrela egitea proposatu zuen, eta asmatu egin duela uste dut.

**Beste pelikula askotan parte hartutakoa zara; Goya sarietarako**

**izendapena lortu zenuen 20.000 especies de abejas filmarekin.**

Aitortza handia izan zen, eta oso polita niretzat. Halakoetan aukera duzu jende berri asko ezagutzeko, kontaktuak egiteko... Oso zorionekoa naiz eta jarraitzeko indar handia ematen dit.

**"TRANSMISIOA GALDU EGIN DA; GAZTE ASKOK EZ DUTE GERTATUTAKOAREN BERRIRIK"**

## Frankismoaren biktimen omenez plaka ipiniko dute udaletxean


Memoria Eguneko ekitaldiak zapatu eguerdian izango dira; biktimen senitartekoak gonbidatuta daude

L.Z.L ELGETA

Elgetako errepresaliatu erresistenteei eskainia izango da 2024ko Memoria Eguna, eta, horien artean, langile batailoietakako presoak edo langile behartuak izango dituzte kontuan. Zapatuan, hilak 20, izango da ekitaldi nagusia, Mendizaleen plazan.

Intxorta 1937 Kultur Elkarteak eta Elgetako Udalak antolatuta dute Memoria Eguna, eta errepresaliatu erresistenteen senitartekoak gonbidatu dituzte oroimen ekitaldira. Helburua da aitortza egitea eta memoria

historikoa gogora ekartzea. "Kolpe militarren helburu nagusia eskubide sozialak, emakumeek lortutako aurrerapenak eta euskal nortasuna ezabatzea izan zen. Horrela, botere militarra, kapitalista handiak eta Elizaren hierarkiaren pribilegioak mantentzen ziren", azaldu dute memoria taldekoek *Irrintzia* aldizkari orrietan. "Ez da harritzekoa, beraz, ehunka elgetar antolatu izana kolpe militarri aurre egiteko. Haietako asko matxinadagatik salatu eta kondenatu zituzten. Arrazoia? De-



*Intxortako irrintzia* aldizkarian jasotako argazkiak eta agiriak. 'INTXORTAKO IRRINTZIA'

mokratikoko aukeratutako gobernu bat defendatzera irtetea".

**Plaka udaletzeko fatxadan**

Errepresaliatuen izen-abizenekin plaka bat prestatu dute Elgetan, eta udaletzeko fatxadan ipiniko

dute zapatu eguerdian, *Regiones devastadas* dioen plakaren ondoan. Plaka horrek, hasiera batean, ehundik gora errepresaliatuen izen-abizenak eta 40tik gora hildakoren izen-abizenak jasoko ditu.

## OHARRAK

### 'Gu ere kontalari'

Umeek egindako kontalari-saioa gaur liburutegian. Hasiera, 18:30ean.

### Odol-emateak

Astelehenean, 16:30ean hasita, antzokian. Aurrez hartu behar da txanda, 943-00 78 84 zenbakira deituta.

### Hitzez Pitz saioa

Irakurketa taldearen beste saio bat martitzenean, 19:00etan, liburutegian.

### Astrotopaketa

Ilatargi elkartearen gidaritzapean beste saio bat eguaztenean, 18:30ean, liburutegian. Parte hartzea irekia da.



Frontenis partidu bat Elgetako pilotalekuan. GOIENA

# Frontenis txapelketako finalak jokatu dituzte

Joan den asteburuan abiatu zen frontenis txapelketa. Gaur eta bihar artean emango diote bukaera txapelketari, finalerdiekin eta finalekin. Azkenean, ez da bazkaririk egongo. Horren ordez, luntxa egingo dute txapelketaren ostean

## Gontzal Belategi Zubia ELGETA

Joan den asteburuan eman zioten hasiera frontenis txapelketaren aurtengo edizioari. Guztira, hamazazpi bikotek hartu dute parte txapelketan: hamaika gizonezkoetan eta sei emakumezkoetan. Elgetako parte-hartzaileez gain, oñatiarrez, bergarrez, elorriarrez eta idiazabalzarrez osatutako bikoteak ere egon dira aurtengo frontenis txapelketan.

Lehen asteburuan jokatu ziren ligaxkakako partida ia guztiak. Ostiral arratsaldean hasi zuten txapelketa, eta gauera arte egon ziren bertan. Zapatuan, berriz, egun osoan ibili ziren partidak jokatzeko, goiz zen arratsalde. Giro polita sortu zen partida haietan. "Oso ondo joan zen. Jende askok hartu zuen parte eta gu oso pozik gelditu ginen. Kiroltasuna eta errespetua izan ziren nagusi eta parte-hartzaileak oso gustura egon ziren. Oso balorazio positiboa egiten dugu", adierazi du Idoia Serna antolatzaileak.

## Gaur, gizonezkoen finalerdiak

Gaur, 18:00etan, gizonezkoen finalerdiak jokatu dira. Lehen partiduan, Medina eta Amoros Azkarraga-Urizarren eta Hernaltesen aurka lehiatu dira. Bigarren partiduan, Maguregik eta Unzetabarrenetxeak Arkarazo eta Ojanguren izango dituzte aurrez aurre. Amaitzeko, emakumezkoen ligaxkakako azken partidua jokatu dute: Markosek eta Asuabarrenak Irunereren eta Argiren aurka jokatu dute.

## Bihar, final handiak

Bihar izango dira txapelketako finalak. Hala ere, lehenengo, emakumezkoen finalerdiak jokatu dira, 10:15ean hasita. Lehen sailkatuak laugarrenaren

**ANTOLATZAILEAK  
POZIK ETA  
ESKERTUTA DAUDE  
HERRITARREN  
PARTE-HARTZEAGATIK**

aurka eta bigarrenak hirugarrenaren aurka jokatu dute. Ostean, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partiduak izango dira. Amaitzeko, finalak hasiko dira. Emakumezkoek jokatu dute lehen partida, 15:15ean. Tartean zozketa bat egin ostean, 16:30ean gizonezkoen finalak hasiko dira. Amaitutakoan, sari banaketa izango da.

## Bazkaria, bertan behera

Antolatzaileek bazkaria egongo zela iragarri bazuten ere, azkenean, bertan behera gelditu da. Horren ordez, beste urte batzuetan egin den bezala, finalen ostean luntxa egingo dute bolatokia.

## Herriarekin eskertuta

Antolatzaileak oso eskertuta daude herriak emandako laguntzagatik. "Herriko dende eta tabernekin parte hartu dute sariak emateko. Udalak ere lagundu du. Oso pozik eta eskertuta gaude", adierazi du Iratxe Bravo antolatzaileak.

## Adineko pertsonen ongizate emozionala lantzeko tailerra

Lau saio izango dira, guztira: apirilaren 26an eta maiatzaren 3an, 10ean eta 17an, hain zuzen ere

### G.B.Z. ELGETA

Adineko pertsonen euren emozioak ezagutu, erregulatzen trebatu eta ongizate emozionalean eragiten duten baliabideak praktikatzeko helburuarekin, ongizate emozionala lantzeko tailerrak egingo dituzte KZgunean. Lau saio egingo dituzte, apirilaren 26an eta maiatzaren 3an, 10ean eta 17an. Saiok 10:00etatik 12:00ak arte izango dira.

65 urtetik gorakoei zuzenduta egongo da tailerra, eta L. Urrea eta C. Palacio psikologoek gidatuko dituzte saioak. Tailerrak gutxienez lau eta gehienez ha-

masei pertsona izango ditu, eta, momentuz, hiru pertsona apuntatu dira. Izen-ematea 626 52 72 12 zenbakian egin behar da.

### Emozioak lantzearen garrantzia

Saioa Alberdi antolatzailearen ustez, berebiziko garrantzia du adineko pertsonen ere emozioak lantzeko: "Esango nuke ohituta gaudela gazteei emozioak ateratzen, baina gustatuko litzaidake adineko pertsonen ere beren emozioei izena jarri ahal izatea. Askotan, beldurrak izaten dituzte, adibidez, bakardadeari, eta horrek arazoak dakartza".



Adineko bi pertsona eskutik helduta. PIXABAY

## Ungio mendira irteera antolatu dute Kantsatzekeko kideek

Domeka honetan izango da irteera, eta 08:00etan elkartuko dira parte-hartzaileak, herriko plazan

### G.B.Z.

Apirilaren 21erako, domeka, Madaria (Araba) herritik Ungio mendira igoera antolatu dute Kantsatzekeko kideek. 08:00etan herriko plazan elkartuko dira parte-hartzaileak, eta bertatik autoz joango dira Madariara. Eguenean amaitu zen izena emateko epea.

Mendi irteerak lau ordu iraungo du. Behin Aiaran kokatuta dagoen herrira iritsita, aldapan gora abiatuko dira parte-hartzaileak; Ataxako atakara iritsiko dira. Bertan, eskuinerako

bidea hartu beharko dute Ungioa igotzeko. 1.099 metroan dagoen gailurrera heldu aurretik, Ungioko begia ikusteko aukera izango dute mendizaleek.

Behin tontorrera igota, 1.185 metroan dagoen Eskutxi mendira igotzeko aukera izango da, eta, bestela, beharazko bideari ekingo diote. Gorobel gainetik pasatu eta Menerdigako atakaraino joango dira. Beharazkoan, antzina merkatariek erabilitako errege bidean sartu eta Madarian amaituko dute ibilaldia.

## Enpresek bi udal dirulaguntza eskatzeko aukera daukate

Langabeak kontratatzeagatik da bata; eta bestea, gizarteratze prozesuetatik datozenenak hartzeagatik

A.T.G. OÑATI

Oñatiko Udalak, martxoaren 14an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, bi udal dirulaguntza martxan jartzea onartu zuen, eta, dagoeneko horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu direnez, eskaerak egin daitezke. Bi kasuetan eskaerak azaroaren 29ra bitartean egin ahalko dira.

### Langabeak kontratatzea

Pertsona langabeak kontratatzeke dirulaguntzen deialdia da lehenengoa. Udalaren laguntza horien eskatzaileak egoitza soziala eta jarduna Oñatin duten 50 langile baino gutxiagoko enpresa txiki edo mikroenpresak izango dira. 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era arte egiten diren kontratu berrietarako eska daitezke laguntzak. Kontratuek gutxienez sei

hilabeteko iraupena izan behar dute eta lanaldi erdikoak izan beharko dute.

Halako zortzi eskaera jaso ziren iaz udaletxean, eta guztiak onartu ziren. Aurten 20.000 euro gorde dira laguntza horretarako. Interesa duten enpresek informazioa Sozioekonomia Departamentuan lor dezakete, 943-00 31 98 telefono-zenbakian.

### Beste dirulaguntza

Gizarteratze eta laneratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatzeke dirulaguntza da bestea. Horretara Udalak 9.000 euro bideratu ditu. Enpresaren langile kopurua ez da mugatzen kasu horretan; beraz, lantoki handi zein txikiek eska dezakete. Kontratzen den langileari, berriz, gutxienez bi hilabeterako kontratua egin beharko zaio, lanaldi erdian.

## Hermansoloña elkarrekin urteko batzarra egingo du

Gaur, egubakoitza, egingo du urteko batzarra Hermansoloña elkarrekin, 19:30ean. Garaio aretoan izango da eta elkarrekin bazkideak daude gonbidatuta.

Hain zuzen, iazko memoriaren berri emango dute urteko batzar horretan, eta 2024rako aurreikusitako jarduerak eta diru kontuak azalduko dituzte. Kontu horiez gainera,

zuzendaritza batzordea berritzea tokatzen da gaur.

Kale Zaharreko arropa biltegia itxi zela urte eta erdi pasa den arren, Hermansoloña elkarrekin lanean jarraitzen du. Sahararren errefuxiatu kanpamenduekin, batetik, eta Argentinarekin urteetan egindako harremanek, bestetik, jarraitzen dute, eta elkarlanean dihardute, nahiz eta orain jarduna beste era batera antolatuta daukaten. Horren guztiaren berri jaso ahalko da gaurko batzarrean.

## Apirileko odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza

Iritsi da apirileko odol emate eguna. Horretarako, aurrez hartu behar da ordua, gaur, egubakoitza, telefonoz deituta. 08:30etik 13:30era bitartean deitu beharko da telefono-zenbaki honetara: 943-00 78 84. Bertan zehaztu ahalko da odol ateratzearen ordua. Mondragon Unibertsitateko fakultatean izango da, ohikoa den moduan.

## 1974an jaiotako kintadarako izen-ematea zabalik da

Irailaren 7an egingo dute kintada 1974an jaiotakoek. Izen-ematea konfirmatzeko 60 euro sartu behar dira hemen: ES65 2095 5057 40 9123663071. Bestela, Bizum bat ere egin daiteke: 696 16 65 00. Uztailaren 15a izango da azken eguna eta kontzeptuan izen-abizenak jarri behar dira. Informazio gehiago jasotzeko: [zexauk1974@gmail.com](mailto:zexauk1974@gmail.com).



EHUko ikerlari Maria Jose Iriarte eta Naroa Garcia, Izaro Elorza alkatea eta arkeotopaketaren zuzendari Alvaro Arrizabalaga. A.T.G.

# Emakume arkeologoak protagonista aurten

Hirugarren urtez ari dira arkeotopaketak egiten Sancti Spiritus unibertsitatean, eta aurten genero ikuspegitik landu nahi izan dute gaia, 'Emakumeak eta arkeologia: atzo, gaur eta bihar' izenburupean. Hainbat txokotatik etorritako ikerlariak batu dira

Amaia Txinxurreta Guridi OÑATI

Hirugarrenez ari dira ospatzen arkeotopaketak Oñatin. Udalak EHUko Historiako taldearekin daukan hitzarmenaren ondorio dira eta horien helburua da arkeologiako eta paleontologiako ondare horren inguruko saretze bat egitea, informazioa partekatzeke eta hori guztia gizarteratzeke. Eguaztenez hasi eta gaur arte iraungo dute.

### Emakumeek egindako lana

Aurten, emakume arkeologoak dira protagonista, eta haien iragana, oraina eta etorkizuna aztertzen ari dira. *Oñatiko Unibertsitatea* arkeotopaketaren zuzendari Alvaro Arrizabalagak adierazi du historiako arlo guztietan bezala historiaurreko arkeologia espezialitatean ere saiatzen ari direla geroz eta sarriago genero ikuspegia txertatzen: "Aztertu nahi dugu zer-nolako lekua, zer-nolako papera betetzen duten emakumeek betidanik, historiaurrean

ere bai; izan ere, hori ere arkeologikoki izan da pixka bat ukatua edo isildua. Beste alde batetik, aztertu nahi dugu baita ere nola joan diren sartzeko historiografikoki arkeologo emakumeak diskurtso orokorrean, eta etorkizunera begira jarri nahi dugu, ikusteko nolako perspektibak etorriko diren halako aldaketekin".

Gaineratu du arlo horretan ere oraindik ez dela iritsi berdintasuna, eta, nahiz eta asko aurreratu den, oraindik asko gelditzen dela egiteko datozen urteotan. Baina, esaterako, arkeotopaketa horiek lagunduko dutela arlo horretan bidea egiten. Izan ere, hainbat txokotatik etorritako arkeologoak batu

## IKERLARIAK OÑATIN BATZEAK EUREN ARTEKO SAREAK INDARTZEN LAGUNDUKO DIE

dira aurten ere Oñatin: Granadatik, Valentziatik, Kataluniatik, Kantabriatik, Gaztelatik, Madrildik... etorri dira ikerlari garrantzitsuenak genero ikuspegia lantzerako.

### Sareak sortu eta indartu

Ikerlariak Oñatin batzeak euren arteko sareak sortu eta indartzen lagunduko die. Izan ere, hainbat aurkezpen zientifiko izan dituzte egunotan; Irunen dagoen Oiasso museoko Gipuzkoako emakume arkeologoen inguruko erakusketa ikusten ere izan dira; eta Oñati ere bisitatu dute, besteak beste.

Oñatiko alkate Izaro Elorza irekiera ekitaldian izan zen arkeologoei ongietorria egiten, eta pozik dago arkeotopaketa horiek ematen ari diren emaitzarekin. "Ikusten ari gara urtez urte emaitza oso positiboak ematen dabilela, eta pozik gaude hirugarren hauetan emakumeei protagonismoa ematearekin", adierazi du.

# Legea eta soziologia aztergai, uztaiera arte

Urtero bezala, Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak mintegi denboraldia antolatu du apirilean hasi eta uztaiera bitartean. Legearen eta soziologiaren gaineko hamazazpi mintegi egingo dituzte; lehena hilaren 11n izan zen

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI  
Urtero moduan, Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak mintegi denboraldia antolatu du apirilean hasi eta uztaiera bitartean. Guztira, hamazazpi mintegi antolatu dituzte, eta joan den egunean ekin zioten mintegien denboraldiari. Mintegi horietan lege soziologiaren diziplinari lotutako gaiak lantzen dituzte, eta mundu osoko ikerlariak batzeko aukera ematen du. "Urtean zehar munduko ikerlariak modu telematikoa aritzen dira elkarren artean lanean, eta urtean behin aukera ematen diegu Oñatira etorri eta jardunaldi osoko bi egunetan euren gaiaren gainean jarduteko", dio Maite Elorzak, LSNEko Administrazio zuzendariak.

## Hamazazpi mintegi

Joan den egunean egin zuten lehena, eta uztaiera bitartean beste hamasei mintegi izango dituzte aurretik. Lehenengoa haurren eskubideen eta ingu-

rune osasungarri baten eskubideen gainekoa izan zen, eta Irlanda, Erresuma Batua, Espainia, Barbados, Kanada, Hego Afrika eta AEBetako ikertzaile eta adituak egon ziren gaiaren inguruan jorratzen. Gainontzean, giza eskubideen gaineko gaiak dira mintegietan jorratuko direnak. "Gai asko giza eskubideen gainekoak dira, eskubide guztiak ez dituzten pertsonen egoerak jorratzen ditugu. Justiziarako sarbidea areagotzea da helburua", adierazi du Sabine Frerichsek, LSNEko Zientzia zuzendariak.

**Helburu akademikoa eta soziala**  
Oro har, apiriletik uztaiera arteko mintegietan landuko eta hausnartuko dituzten gaiak gi-

**APIRILETIK UZTAILERA ARTE LEGE SOZIOLOGIAREN GAINEKO HAMAZAZPI MINGEGI IZANGO DIRA**

zarteari erakustea da euren helburu nagusia, baina kutsu akademikoa ere badauka. "Gehienbat, helburu akademikoa dute, baina helburu soziala ikasitakoa jendeari hurbiltzea da, guztion onerako ikasi dugun zerbait itzultzea. Transferentzia lana ere badauka, beraz", dio Frerichsek.

Elorzak, berriz, mintegi horietako elkarlanetik beste lanbide batzuk sortzeko aukera sortzen dela dio: "Urte osoan landutakoak hemen hausnartu ostean, elkarlan horretatik beste lanbide batzuk sortzen dira, eta horrek bide ematen du beste saio bat egiteko, edo, agian, kongresu bat. Dena dela, guretzat garrantzitsuena da gizartea eraldatzen dabilen bitartean aldaketa horiek legedian, politika publikoan edo antropologoan nola eragiten duten". Mintegietan ikerketen gainean hausnartutako guztia guztion eskura uzten dutela gaineratu zuten Elorzak eta Frerichsek.



Joan den egunean egin zuten lehen mintegiko irudi bat. ENEKO AZURMENDI



NIRE USTEZ

MIKEL ABERASTURI

## Justizia kontu bat?

Duela astebete, Madrilgo Kongresuan onartua izan da gure herrian lan egiten duten milaka etorkin erregularizatzeke Legegintzako Herri Ekimena kontuan hartzea. Gizarte-justiziarako eta aurrerapen ekonomikorako ezinbesteko urratsa da. Horrek aitortzen du pertsona hauek gure gizarte eta ekonomiari egiten dioten ekarpen handia. Gure herrian lanean ari direnen erregularizazioa justizia-egintza bat da. Egoera irregularrean badaude ere, aberastasuna eta jarduera ekonomikoa sortzen dute, egiten duten lanagatik eta ondasun eta zerbitzuak kontsumitzen dituztelako. Gainera, gure biztanleria-piramideak premiaz behar ditu lan egiteko adinean dauden gazteak, ongizate-sistemari eta pentsioei eusteko. Baina onurak alor ekonomikotik harago doaz. Erregularizazioak pertsona horien gizarteratzea eta laneratze duina erraztuko du, kohesioa eta kultura-aniztasuna sustatuz. Elkartasuna eta enpatia inoiz baino beharrezkoagoak dira, eta ez daukat dudarik etorkinak erregularizatzea aurrerapauso erabakigarria dela, guztiontzako etorkizun inklusiboagoa eta oparoagoa lortzeko.

## Finalera iristeko azken pausoa emateko unea

Joan den asteburuan ligako eta kopako ligaxkak amaitu ostean, asteburu honetan eta hurrengoan jokatuko dira Herriko Futbol Txapelketako finalerdiak. Bihar, Kopako finalean izateko txartelak egongo dira eskuragarri: lehen finalerdian (15:30), Shatoken Moura eta Zalaparta taldeek neurtuko dituzte indarrak; bigarren (19:30), berriz, Weingü-

ter eta Mazedonia arituko dira finalerako txartelaren lehian.

Datorren asteburuan, berriz, Liga Txapelketako finalerdiak jokatuko dira. Frakas Brabas eta Albok taldeak izango dira nor baino nor gehiago lehenengo partiduan. Bigarren finalista, berriz, Tutelatruko eta txapelketan lehenengoz lehiatzen ari den Hangöver taldeen arteko neurketatik irtengo da. Kopako eta Ligako finalak maiztzeke lehen asteburuan jokatuko dituzte.

## Udalekuetako begirale izateko zerrendak argitaratu dituzte

Udaleku irekietan eta arte udalekuetan begirale izateko onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratu ditu Udalak. Arte udalekuetan izena eman zuten hamaika hautagaietatik zortzi onartu dituzte behin-behineko zerrendan. Eta onartu diren zortzi hautagai horietatik eskatutako euskara maila agiri bidez egiaztatu dutenak ere zehaztu dira zerrendan. Erreklamazioetarako hiru eguneko epea ireki dute. Udaleku irekiei dagokienez, berriz, 130 hautagaik eman zuten izena, eta, kasu horretan, ez da aldaketarik izan. Hori dela eta, behin-behinean onartu zituzten hautagaien izenak agertzen dira behin betiko zerrendan.

## Mendi irteera, Federazioaren mendeurrenean

Aloña Mendiko Mendi Sailak jakinarazi du mendi irteera egingo duela datorren zapatuan, hilak 27, Euskal Mendi Federazioaren 100 urteak ospatzeko. Federazioak asteburu horretan 100 tontor igotzea proposatu du, eta, Aloña Mendikoen kasuan, Orkatzategira igoko dira. Ibilbide osoa oinez egingo dute, eta irteera inskribatu egin beharko da [alonamendi.mendi@gmail.com](mailto:alonamendi.mendi@gmail.com) helbidean, hilaren 25 baino lehen. Ibilbidea hau izango da: Oñati-Urrusola Garai-Orkatzategi-Aitzulo-Oñati. Talde moduan doazenek federatuta egon beharko dute. Gainera, Urrusolako elkartearen hamarretakoa izango da.

# "Bildumako margolan guztiak dira poetikoak"

**HORTENSIA ALCALA GARCIA** MARGOLARIA

Erretiroa hartu zuenetik margotutako lanak ikusgai ipini ditu kultura etxeko erakusketa gelan, hilaren 28ra arte, 18:00etatik 20:00etara

**Mireia Bikuña Madrid** OÑATI

Hortensia Alcala Garciak (Portaje, Cáceres, 1946) *Raíces profundas* izeneko bilduma ipini du ikusgai kultura etxean. Askotariko gaien gaineko margolanak dira, hilaren 28ra arte ikus daitezkeenak.

**Zergatik ipini diozu izen hori erakusketari?**

Nire sustraiak irudikatu gura izan ditut. Nire bizitzarekin zerikusia izan duten gauza gehienak islatu nahi izan ditut. Unean uneko gertaerak eta bizipenak. Ez dut esango nire bizitzaren laburpen bat denik, baina une asko jasotzen ditu.

**Erretiratu ostean hasi zinen margotzen.**

Cáceresen jaio nintzen, baina 15 urterekin Oñatira etorri nintzen, izaba batekin, eta segituan hasi nintzen Tximisten lanean. Ezkondu ostean lana utzi, eta seme-alabak hazi nituen. Lagarrena jaio ostean, ospitalean hasi nintzen lanean, uniformetan brodatuak egiten. Ez zait gustatzen ezer egin gabe egotea. Argi neukan erretiroarekin nire zaletasunei helduko niela. Horietako bat pintura zen.

**Zure kabuz ikasi duzu, gainera.**

Hala da. Alde horretatik, nahi-ko ekintzailea izan naiz. Mundu guztiari esaten diot nire laguntzailerik onena *Google Jauna* izan dela. Interneten dago dena. Niri balio izan dit deskonektatzeko eta gauza berriak ikasteko. Nire bizitzan gehien egin dudana zera izan da, edozeri ezetz esaten zidan jende horren aurka borrokatzea. Zergatik ezin nuen egin benetan nahi nuena?

**"BADITUT GIDOIAK IDATZITA, ETA ZINEMA EGIN NAHIKO NUKE; FILM LABUR BAT, AKASO"**



Hortensia Alcala Garcia erakusketako txoko batean. M.B.M.

**Koadro batzuk oso landuak dira, baina beste batzuk sinpleak; nola erabakitzen dituzu bakoitzaren ezaugarriak?**

Ez daukat jarraibide zehatzik. Gaiaren arabera izaten da. Adibidez, Afganistandik irten zen azken soldadua margolana oso soila da. Soldadu hori bakarrik dago. Zertarako gehitu beste ezer, esanahia oso garbia bada? Garbi daukadana da margolan guztiak direla poetikoak. Etxeko paretak hutsik geratu zaizkit. Biluztuta. Poesia guztia dago erakusketa gelan.

**Zer da zuretzat herriaren bertan zure margolanak erakustea?**

Pozik nago, baita kosta egin zait erakusketa antolatzea. Pandemia aurretik, lehen saiakera egin nuen. Ezin izan zen, baina orain poztan naiz une honetan delako, koadro gehiago baititut erakusteko. Egia esan, ohorea da nire lanak, nire sustraiak, herriki-deekin partekatzea.

**Poesia idazten duzu, eta argazkilaria ere bazara; 78 urterekin, egiteke duzu proiektuaren bat?**

Zinema egin nahi nuke. Hainbat gidoi idatzi ditut, eta zerbait zuzendu nahi nuke. Film labur bat, besterik ez bada ere. Zinema

gustatzen zait. Baina, batzuetan, uste dut berandu nabilela horretarako. Hala ere, gero, nire amari erreparatzen diot: 104 urterekin hil zen, eta burua ezin hobeto. Beraz, badaukat zinema egiteko aukera.

**Eskerrak emateko momentua da hauze.**

Batez ere, eskerrak eman nahi dizkiet hori posible egin duten pertsoneri. Badakite nor diren. Inoiz ez didate trabarik ipini nik gura nuena egiteko. Senarraren babesa oso inportantea izan da.

## Lau poesia-liburu ditu

Poesia idaztea ere bazen Alcalaren nahietako bat. Paperean islatutako poesia hori margolanetara ere eraman du. Lau liburu idatzi ditu orain arte: *Sophia y los fantasmas*, *Lontananza*, *La niña del columpio* eta *Galería de los secretos*.



MIREIA BIKUÑA MADRID

## Herriko musikaz hausnartzen

Naia Herraez, Aitor Regueiro, *Pototo* eta *Bull* musikariak egon ziren eguaztenean, herriko musikari buruz berba egiten, Oñati Vizirik ekimenaren baitan. Oñatiko musikaren gainean hausnartu zuten, Aitziber Aranburuzabala kazetariaren eta aretoan batutako musika zaleen galderak erantzunez.

## Azpiatzuren azken liburuan txerria da protagonista nagusia

Jose Antonio Azpiatzuk *El cerdo en la historia de los vascos* liburua idatzi du, eta hori aurkeztuko du hilaren 24an, kultura etxean, 19:00etan. Txerria da liburuaren protagonista nagusia. "Txerrien gainean dauden hainbat mito apurtzeko liburua da. Betidanik mespretxatu izan ditugu txerriak, animalia zikinak direlako. Bada, txerria animalia garbia da. Ez du izerdi-guruinik, eta uraz baliatu behar du bero egiten duenean. Askotan, lokatzak duen uraz baliatzen da, freskatzeko. Gizakiok animalia zikina izatea eragin dugu", esan du Azpiatzuk.

Txerriari buruzko beste istorio batzuk ere kontatuko ditu.

## Bertsopaper lehiaketara 103 lan aurkeztu dituzte

Gaztelekuko XV. bertsopaper lehiaketako sari banaketa ekitaldia egingo dute gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 17:00etan. Julio Soto bertsolariak parte hartuko du ekitaldian. Guztira, 103 lan aurkeztu dituzte herriko ikasleek: 84 lan Lehen Hezkuntzakoek eta hemeretzi DBHkoek eta batxilergokoek. Horien artean aukeratu eta sarituko dituzte onenak. Bost sari banatuko dituzte LHkoen artean eta hiru sari DBHkoen eta batxilergokoaren artean.

Hain zuzen, Julio Sotok propio egindako bertsoak, Oñatiko artisau-pasta eta Puntutan markako arropa bat jasoko dituzte lan onenek.

## Batzokia tabernaren irekia jaia, gaur, egubakoitza

Oñatiko EAJk ohar bidez jakinarazi du gaur, egubakoitza, egingo dute irekiera jaia Foruen plazan dagoen Batzokia tabernan. Hori horrela, 19:00etatik 21:00etara pintxoak debalde izango dira bertaratzen diren bezero guztiendako.

Are gehiago, zozketa berezi bat ere egingo dute: Real Sociedad-Real Madrid partidurako

bi sarrera bikoitz zozketatuko dituzte. Zozketan parte hartzeko, egubakoitzean bertan Keler garagardo bat hartzen duten guztiak txartel bana jasoko dute. Norbere datuak idatzi eta tabernako postontzian sartu beharko dute. Zozketa 21:00etan egingo dute, tabernan bertan. "Oñatiar guztiak irekiera ekitaldian parte hartzera gonbidatzen ditugu. Jana, edana eta giro bikaina ziurtatuta egongo dira", azpimarratu dute oharrean.

**Bua...**  
**aspertute nau ja.**  
**Bixer**  
**nora juengo gare**  
**bazkaittera?**



DESKARGATU  
Play Store-n

DESKARGATU  
APP Store-n

**goienaOkmgida**

Debagoiengan baldin badago,  
hemen dago.



Goiena  
Okmgidaren  
eskaintza osoa.



Leire Galeano eta Maddi Barrocal bostekoa ematen Antzuolako frontoian. IMANOL BELOKI

# Txapela etxean geldituko da

**PILOTA** Leire Galeano (Antzuola) eta Maddi Barrocal (Bergara) elkarren aurka arituko dira bihar (18:00), Antzuolan jokatu den Ados binakako eskupilota txapelketako finalean. Galeanok Ruiz de Infanterekin osatuko du bikotea; Barrocalek, Agirrerekin

**Iñigo Barrena Kortabarria** ANTZUOLA Jakina zen Ados Pilota elkartearen binakako txapelketako promozio mailako eta elite mailako finalak Antzuolan jokatu zirela. Jakina zen, baita ere, txapelketako bi kategorietan hiru debagoiendar izango zirela kantxan lehian. Baina ez, ordea, bi debagoiendar finalean izango zirela. Hain zuzen, elite mailako finalean elkarren aurka arituko dira bihar, zapatua (18:00), Leire Galeano antzuolarra eta Maddi Barrocal bergarra.

Galeanok Ainhoa Ruiz de Infante izango du bikotekide eta Barrocalek, berriz, Naroa Agirrerekin osatuko du bikotea. Bergararrak badaki zer den binakako txapelketa txapela janztea; izan ere, iaz txapeldun izan zen; aurten, iazko garai-pena errepikatzea izango du helburu. Aurrean, ordea, finalak jokatzea ohituta dagoen pilotaria izango du. Galeanok

duela bi urte promozio mailako txapelketan jantzi zuen txapela. Orain, sentsazio bera errepikatu nahi du, baina, oraingoan, elite mailan. Biak ala biak gogotsu dira txapela janzteko. "Finalean izatea ikaragarria da, eta, gainera, albotiko herriko pilotariaren eta laguna dudana Maddiren aurka

aritzea ere oso polita iruditzen zait", dio Galeanok. Barrocalek, aldiz, urduritasunez eta ilusioz begiratzen dio biharko neurketari: "Herritik gertu izanda, jende ugari joango da, eta urduritasuna nabaritu da, baina ilusioz gatoz finala jokatzea, eta, ahal bada, irabaztera".

## Txapelketa luzea

Abenduaren 15ean aurkeztu zuten txapelketa, Antzuolan bertan, eta asteburu hartan bertan hasi zen. Lehen ligaxka bat eta ondoren sailkatuen arteko beste bat jokatu behar izan dute, finalerdietara iritsi aurretik. Barrocalek joan den igandean lortu zuen finalerako txartela, Biarritzen Iturriaga-Orbegozo bikotea 22-10 menderatuta. Partidu "oso ona" jokatu zutela aitortu du, eta txapelketan bikote "sendoa" osatu dutela adierazi. Dena dela, behetik gora egin duen bikotea izan direla azpimarra-



**LEIRE GALEANO**

- **Herria:** Antzuola.
- **Adina:** 17 urte.
- **Enpresa:** Ados Pilota.
- **Postua:** Atzelaria.
- **Binaka txapelak:** 2022an promozio mailan.

tu du: "42 partidu jokatu ditugu, guztira, eta hasieran makal samar ekin genion. Gero, egia da gorakada itzela izan dugula eta bikote sendoa osatu dugula, maila ona ematen, gainera. Horrek bide eman digu finaleira iristeko". Galeanok, berriz, txapelketa bezain final gogorra espero du: "Orain arte jokatu dugun txapelketa luzeena izan da. Finala ere gogorra izatea espero dut".

## Ondo ezagutzen dute elkar

Biharkoa ez da izango elkarren aurka arituko diren lehen aldian; izan ere, txapelketan zehar bitan aritu dira elkarren aurka. Bakoitzak garaipen eta porrot bana pilatu dute, eta elkar ondo ezagutzen duten bi bikote dira. "Aspalditik ezagutzen ditugu Maddi eta Naroa. Txapelketan ere aritu gara euren aurka, eta partidu zaila eta luzea izango dela uste dut", dio Galeanok. Barrocalek finalerdietan egindako lana onari eman nahi dio jarraipena txapela eskuratzeko: "Finalerdietan lan txukuna egin genuen, eta maila hori emanez gero irabazteko aukerak izango ditugu. Dena dela, badakigu aurkariak nola jokatzen duten, eta, gainera, Leirek ederki ezagutzen du pilotalekua".


## Pike sanoa duen finala

Bost minutuko alde dago Antzuola eta Bergara artean, eta horrek familia eta lagun ugari batzeko aukera emango du. Ezaguna da, gainera, bi herrien arteko pikea, eta hori ere nabaritu da kantxan, baina pike sanoa, betiere. Dena dela, kantxan lagunik ez dela egongo argi utzi du Barrocalek: "Pike sanoa dugu Bergararen



**MADDI BARROCAL**

- **Herria:** Bergara.
- **Adina:** 18 urte.
- **Enpresa:** Ados Pilota.
- **Postua:** Aurrelaria.
- **Binaka txapelak:** 2023an elite mailan.



GOIENA

## "Lan onaren isla da finala"

### ANDONI ALBERDI

OLALDE PILOTA ELKARTEKO PRESIDENTEA

Biharko finalaren atarian, maila horretako final bat Antzuolan jokatzeko "garrantzitsua" dela aitortu du Balerdik. Gainera, bertan bi debagoiendar izatea bailaran emakumezkoen pilotan egiten ari den "lan onaren isla" dela azpimarratu du. Biharko finalari dagokionez, argi du herriko pilotaria bertan izanik Leire animatzen hortxe egongo direla. Era berean, Antzuolako pilota elkarteak emakumezkoen pilotan "lan handia" egiten duela dio, emakumezkoen txapelketa antolatzen duten "gutxienetikoak" direla iritzia.

eta Antzuolaren artean. Leire laguna dut, baina behin partidua hasitakoan laguntasunik ez da egongo, eta ea partida ona egin eta txapela eramateko aukera dugun". Galeano ere finala iristeko gogotsu da: "Finala izanik, jendea etorriko dela uste dut, eta, bi bikoteak ondo ibiltzen bagara, neurketa txukuna ikusteko aukera izango dute pilotazaleek. Argi daukat partidu gogorra izango dela eta txapela ondoen ibiltzen den bikoteak eramango duela".

## Promes mailako finalak

Final handiaren aurretik, 18:00etan hasita, promes mailako finalean Natale Aranburuk eta Amaia Arrastiak Aizane Ibarrolaren eta Nahia Vertizen aurka jokatu dute. Sarrerak salgai daude *Ticketself*-en, hamar eurotan, eta, partidu egunean ere salgai egongo dira, Antzuolako pilotalekuko leihtilan.



# Bailarako 172 korrikalari Aloñako Igoerako irteeran

**MENDI LASTERKETA** 320 korrikalarik hartuko dute parte; horietatik 111 izango dira oñatiarrak eta 61, Debagoieneko gainerako herrietakoak. Hilaren 28ko lasterketa zuzenean jarraitzeko aukera egongo da aurten, 'streaming' bidez emango dute eta

## Mireia Bikuña Madrid OÑATI

Salomon markak antolatzen duen Golden Trail National Series zirkuituaren barruan dagoen Aloñako Igoera hilaren 28an jokatu da, 09:30ean hasita. Guztira, 320 korrikalari egongo dira. Horietatik 111 dira oñatiarrak -100 gizonezko eta hamaika emakumezko-, eta 61 Debagoieneko gainerako herrietakoak -55 gizonezko eta sei emakumezko-. Herrikanonela banatzen dira mendi lasterkariak: Bergarakoak hogeitaz, Arrasatekoak 27, Aretxabalekoak zortzi, Eskoriatzakoak hiru eta Antzuolakoak hiru.

## Zuzenean

Fagorren Oñatiko *showroom*-ean aurkeztu dute asteen XIX. Aloñako Igoera. Izan ere, Fagor Professional izango da probaren babesle nagusia. Eta, hein handi batean, babesletza horrek ekarri ditu aurtengo bi berrikuntza nagusiak. Proba zuzenean emango du Evasion TV-ek *streaming* bidez. EITB ere batu da proiektura, eta haren lehenengo katean zuzenean emango du proba. "Salomonek emandako babesak oihartzuna emango digu, eta edonork ikusi ahalko du lasterketa, telebista bidez. Dena den, guk oso garbi daukagu zein



Aloñako Igoerako aurkezpen ekitaldian parte hartu zutenak. M.B.M.

den lasterketa honen esentzia", esan zuen Pablo Arejolaleibak.

Eta, hain zuzen ere, Aloñako Igoerak duen xarma eta esentzia izan dira Salomonek aintzat hartu dituen ezaugarrietako batzuk. Horren harira, hauxe esan zuen Salomon etxeko ordezkari Biel Rafolsek: "Antolakuntza, herri mailako giroa, ibilbidearen profila... dena gustatu zitzaigun. Baina, bereziki, herriaren herriarentzat egindako proba izatea. Eta, noski, azken erabakian zeresan handia izan zuen Malen Osak

berak etxeko probari buruz esandakoak".

## Asfaltotik zelaietara

Ibilbidean ez dago aldaketarik; hala ere, asfaltoan egiten diren metroak gutxitzeko lanetan dihardute antolakuntzakoek. "Oso nekeza da mendian korrika egin ostean asfalta salto egitea. Hori kentzeko lanetan gabiltza. Baina, horretarako, inguru haietako baserriarekin hartu-emanetan gabiltza. Ea haien zelaieetatik pasatzeko baimena lortzen dugun".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

#### Urola - Bergara

Zapatua. 16:00. Argixao.

#### Ordizia - UDA

Zapatua. 17:00. Altamira.

OHO. ERREG. NESKAK

#### Ostadar - Debagoiena

#### Bailara

Domeka. 14:35. Michelin.

PREFERENTEA

#### Bergara - Billabona

Zapatua. 12:00.

Agorrosin.

#### Antzuola - Aretxabaleta

Zapatua. 16:30. Eztala.

#### Danena - Aloña Mendi

Domeka. 16:00.

Elbarrena.

### ERREGIONALA IGOERA

#### Hernani B - Aloña Mendi

Zapatua. 17:30. Zubipe.

### ERREGIONALA KOPA

#### Urola - Mondra

Zapatua. 12:00. Argixao.

#### Aretxabaleta - Tolosa

Zapatua. 17:00. Ibarra.

### ESKUBALOIA

GIPUZ. TXAP. NESKAK

#### Aloña Mendi - Saieko

Domeka. 13:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO 2. MAILA

#### Decotextil - Erreka

#### Bergara

Zapatua. 20:00. Pasaia.

GIPUZ. GAZTE MAILA

#### Urola - Aloña Mendi

Domeka. 11:15. Ispilla.

### ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

#### Mondrate - Antiguoko

Zapatua. 16:15. Musakola.

#### Eskoriatza - Donipari

Zapatua. 19:00. Manuel Muñoz.

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA NESKAK

#### Gurpegui - MU

Zapatua. 16:00. Nájera.

LEHEN MAILA MUTILAK

#### Navasket - MU

Zapatua. 12:30. Iruña.

2. MAILA MUTILAK

#### Biotz Aloña M. - Gran

#### Bilbao Santutxu

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

#### Beotibar Zornotza -

#### Soraluce BKE

Zapatua. 16:00. Zornotza.



ANTXINTXIKA

## Lasa, Euskadiko txapeladun

**DUATLOIA** Antxintxika taldeko Mikel Lasak Murgian (Araba) jokatuako distantzia luzeko Euskadiko Triatloio Txapelketa irabazi du bere kategorian -13,3 kilometro korrika, 60 bizikletan eta 4,5 korrika-. Beteranoen bigarren mailako atleta onena izan zen. Urrezko domina jantzita "pozarren" zegoen, "ametsa egia bihurtuta".



Realaren eta Real Madrilen arteko partidarako sarrerak  
futbol zelaiko tokirik onenean!

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Real Madrid norgahiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partidua apirilaren 27an izango da, 21:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: apirilaren 22a.

Ezin errazagoa da  
zozketan  
parte hartzea!



1.  
Aplikazioa  
deskargatu.

2.  
Zozketak atalean sartu  
eta parte hartu.

Gertu.  
Zorte on!



Egin  
Goienakide  
eta Reala  
ikusteko aukera  
izango duzue!

goiena"  
kide

Okm:  
batzen gaituen  
distantzia



Beñat Gaztelumendik irabazi zuen 2019an jokatu zuten Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketa. BERTSOZALEEN ELKARTEA

# Gazteak, baina ondo prestatuta

Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketako sailkapen fasea abiatuko dute eguenean; eskualdeko Jon Mata, Haizea Arana, Oihana Arana, Aitor Tatiegi, Maider Arregi, Urko Arregi, Urko Egaña, Martin Berrizbeitia eta Ane Zuazubiskar daude lehiakideen artean

## Aitziber Aranburuzabala Juldain ESKORIATZA

Udazkenean hasiko da 2024ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa –pandemiaren eraginez, urtebete geroago–; aurretik, baina, Gipuzkoa Bertsotan izena duen sailkapen fasea jokatu dute, eguenean hasita. "Sailkapen fase soil bat baino gehiago da Gipuzkoa Bertsotan: 74 bertsolari, hamabost gai-jartzaile, zortzi epaile, antolakuntza lanetan hamaika lagun eta dozena bertsolaritza eskola Gipuzkoako bertsolaritzaren ekosistema elikatzen", azaldu dute Gipuzkoako Bertsosale Elkarteak.

50 urte dira aurten Gipuzkoako lehen bertsolaritza txapelketak sortu zela, eta, antolatzaileen esanetan, urteurren horrek pisu handiagoa emango dio udaberriko faseari: "Leintz bailaran sortu zen, Joanito Akizuren, Xanti Iparragi-

rreren eta Patxi Goikolearen ekimenez. Geroztik, ehunka izan dira herriz herri sortu diren bertsolaritza eskolak eta milaka handik pasatu diren ikasleak. Bertsolaritza dira bertsolaritza mugimenduaren oinarria, horiek gabe ez dago ulertzerik gaur egungo bertsolaritza mugimendua eta mugimendu horren belaunaldiartekotasuna. Bertsolaritza bezala, Gipuzkoako Txapelketa ere bertsolaritza sustatzea du helburu, eta, ondorioz, garrantzi berezia izango dute bertsolaritza eskolak 2024ko edizioan".

## Bi fasetan banatuta

34 txartel daude udazkeneko txapelketarako jokatu eta 74 bertsolari lehiatuko dira; horien artean, Debagoieneko bederatzi bertsolari. Bi itzulitara jokatu dute Gipuzkoa Bertsotan eta hogeitasei saio izango dira.

## Eskualdeko bederatzi bertsolari

Jon Mata antzuollarrak hartuko du parte lehenengo saioan, eguenean, Eskoriatzako Zaldibar antzokian. "Estreinakoz hartuko dut parte, eta, gertukoaren artean ikusten dudanarengatik, maila atzeragoan nago; hortaz, konpetentzia-sen horri dagokionez ez dut asmo finkorik, plaza berri baten esperientzia probatzera noa, ea zelatan moldatzen naizen ikustera, pretentsio handi barik eta ondo pasatzeko gogoz".

Oñatiko bertsolaritza eskolan jarduten du sarritan Antzuolakoak; hortaz, ondo ezagutzen ditu bertsolari txantxikuarrak. Horien artean dago aurten seigarren sailkapen fasea jokatu duen Urko Egaña: "Behin bakarrik heldu naiz final zortzirenetara. Aurten zer egingo dudan ez dakit, baina asko ari naiz bidearekin gozatzen. Bertsolaritza eskolan

gogor eta pozik ari gara, eta etxeko-lanetan ere gogoz. Iruditzen zait aurten txapelketak ilusio berezia sortu didala".

## Oñatiko hiru bertsolari gehiago

"Gogotsu noa sailkapen fasera", dio aurten hirugarrenez parte hartuko duen Maider Arregi oñatiarrak, eta zera gaineratu du: "Aurreikuspen zehatzik barik, baina nire ikuspuntua erakusteko eta nire erara kantatzeko gogoz nago". Bigarren aldia du haren anaia Urko: "Gogotsu nago; aukera polita da eta bertsolaritza adin oñatikoaren nagoela esango nuke. Lehenengoan baino prestatuago nagoela uste dut, eta gaiekiko iritzia landuago dudala ere bai. Hortaz, nire onena ematen saiatuko naiz, ahalik eta koherenteen kantatzeko asmoz".

Belaunaldi berekoa da Aitor Tatiegi; hain zuzen, bigarren izango da hura ere. "Oso gaztea nintzen aurrekoan, batxilergoko ikaslea nintzen. Ilusioarekin prestatu dut hastear dagoena, ez diot neure buruari lorpenei dagokienez helbururik jarri, baina aitzakia izan da niretzako ia sekula baino bertsolaritza eskola gehiago egiteko, eta espero dut emaitzak etortzea hortik, txapelketan eta bertsolaritza egiteko gaitasunean edo samurtasunean".

## Eskoriatzakoak, bigarren

Bertsolaritza eskola ezberdinetakoak badira ere, gertuko lagunak dituzte Eskoriatzako Arana ahiz-

pak. Belaunaldi berekoak izaki, bigarren aldia dute Haizea eta Oihana Aranak ere. "Bost urte zaharragoa naiz, eta urte hauek esperientziak ez dira gutxi izan; beste leku batetik nator, beste ideia batzuk dauzkat, beste zerbait gorpuzten dut. Hala ere, ez nago nire onenean, neure burua zaintzen ari naiz eta ez dut bertsolaritza tartetarik hartu, baina gogoa daukat txapelketarako eta egin dezake-dana ikusteko", dio Haizea Aranak, eta zera haren ahizpak: "Pretentsio handiegiak izatea ez da komenigarria izaten, baina lan handia egin dugu, eta lan hori erakustea da nire asmoa".

## Berrizbeitia eta Zuazubiskar

Gipuzkoa Bertsotan ekimenean bigarren hartuko du parte Aretxabaletako Martin Berrizbeitiak ere: "Aurreikuspen handirik egiten ez naiz ausartzen; neure burua estutu, bertsotan pixka bat gehiago jardun eta prozesuarekin gozatzea da nire helburua, eta saio ona ateratzen bada, hainbat hobeto".

18 urte zituen estreinakoz txapelketan izena eman zuenean; hala, hirugarrena izango da Arrasateko Ane Zuazubiskarrendako. "Aurretik hona plazan eta arlo teknikoan egindakoa txapelketan ere igarri dadila nahiko nuke. Gustuko dut txapelketak berarekin dardarren estutzea, eta asmatu nahi nuke aurrekoetan bezala, estutze horretan gozatzen".

## "PRETENSIO HANDI BARIK NOA, PLAZA BERRIA PROBATU ETA ONDO PASATZERA"

JON MATA BERTSOLARIA

## "BESTE ZERBAIT GORPUZTEN DUT AURREKO ALDIAREKIN ALDERATUTA"

HAIZEA ARANA BERTSOLARIA

## "NIRE IKUSPUNTUA ERAKUTSI ETA NIRE ERARA KANTATZEKO GOGOZ NAGO"

MAIDER ARREGI BERTSOLARIA

**Olatz Zuazubiskar, gai-jartzaile** Osagai nagusi dira bertsolariak, baina ezin da gai-jartzaile barik txapelketarik ulertu. Bete-behar horretan estreinakoz eta "gogotsu" izango dela dio Olatz Zuazubiskar arrasatearrak: "Altzoko eta Antzuolako saioetan izango naiz. Arduratik bizi dut erronka, badirelako mila modu bertso gintzan aritzeko, eta txapelketa ardura kolektibotik bizitzeko aukera moduan sentitzen dudalako gai-jartzaile taldea".

#### Diskurtso berrien txapelketa

Parte-hartzaileen zerrendari begiratuta, argi ikusten da beaunaldi aldaketa datorrela, eta, Arrasateko gai-jartzailearen ustez, eragin egingo du horrek: "Diskurtso berriak datoz, eta horrekin batera aldatuko da Gipuzkoako txapelketa. Ez ohol-tzan bakarrik, baita bestelako lanetan ere. Gaztetu egin da gai-jartzaileen eta epaileen taldea ere, eta ez da kasualitatea gazte asko emakumezkoak izatea. Txapelketa luzea izango da, baina gustura ikusiko dut aldaketa hori bailarako ikuspuntutik".

Bide beretik doa haren ahizparen aurreikuspena: "Gipuzkoako bertso-eskoletan egiten den lana erakutsiko duen sari-keta izango da. Diskurtsoan eta teknikan nahiko nuke txapelketa-ziklo honetako beste txapelketetan hasitako olatuari jarraitzea". Txapelketa ezberdina izatea espero duela dio Haizea Aranak: "Plaza den bezain

### "DISKURTSOEN ARTEKO TENTSIOA ESPERO DUT, ETA ABERASGARRIA DA"

OIHANA ARANA BERTSOLARIA

### "GURE BAILARAKO BERTSOGINTZA ITZALPEAN GERATZEN DELA IRUDITZEN ZAIT"

URKO ARREGI BERTSOLARIA

### "PLAZAN ETA ARLO TEKNIKOAN EGINDAKOA IGARRI DADILA NAHI NUKE"

ANE ZUAZUBISKAR BERTSOLARIA

anitza izatea gustatuko litzaidake. Gorputz eta diskurtso berriak oholzaratzeko eta sozializatzeko esparru bezala ulertu nahiko nituzke txapelketak, ez hegemoniari men egiteko esparru gisa. Gipuzkoako bertsolaritza osasuntsu dago". Gaur egungo Gipuzkoako bertso gintzaren aniztasuna berretsi du Oihana Aranak ere: "Bertsolari asko aurkeztu gara, oso diferenteak, eta norberak bertso gintza ulertzeko bere modua du. Diskurtsoen arteko tentsioa espero dut, eta pozik nago, hori beti delako aberasgarria".

Txapelketak berrikuntza asko ekarriko dituela uste du Aitor Tatiegik ere: "Jendaurrera izen berriak aterako dira. Mugimendu politiko berri bat sartu da, eta horrek diskurtsoan eragingo duelakoan nago". Eskola bereko Maider eta Urko Arregik berretsi egin dute hori, hurrenez hurren: "Diskurtsoen arteko lehia izango da, txapelketa plaza bikaina delako norbere ideien bozgorailu gisa erabiltzeko. Espektatibaz betetako giroa sumatzen dut". "Proposamen oso ezberdinak egon daitezke, egoera politikoa zein den ikusita; nire posiziotik, ahalik eta ekarpen gehien egin nahi nuke. Egurra ematera goaz, ea debagoiendarririk agertzen den goiko postuetan, iruditzen zaidalako orokorrean gure bailara nahiko itzalpean geratzen dela".

*Bertsosarrerak.eus* atarian daude sarrerak eskuragarri.

### "JENDAURREAN IZEN BERRIAK ATERAKO DIRELAKOAN NAGO ORAINGOAN"

AITOR TATIEGI BERTSOLARIA

### "PROZESUAREKIN GOZATZEA DA AURTEN DUDAN HELBURU NAGUSIETAKO BAT"

MARTIN BERRIZBEITIA BERTSOLARIA

### "AURTENGOAK ILUSIO BEREZIA SORTU DIDALA IRUDITZEN ZAIT"

URKO EGAÑA BERTSOLARIA

## Bertso saioen egutegia eta aretoak

#### LEHENENGO ITZULIA

- **Eskoriatza** Apirilaren 25ean, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Antzuolako Jon Matak kantatuko du.
- **Gabiria** Apirilaren 26an, 19:00etan, kultura etxean. Oñatiko Aitor Tatiegi, Maider Arregi eta Urko Egaña izango dira.
- **Zestoa** Apirilaren 26an, 19:00etan, kultura etxean. Eskoriatzako Haizea eta Oihana Arana izango dira.
- **Altzo** Maiatzaren 2an, 19:00etan, kultura etxean.
- **Zaldibia** Maiatzaren 2an, 19:00etan, kultura etxean.
- **Orio** Maiatzaren 3an, 19:00etan, kultura etxean. Aretxabaletako Martin Berrizbeitiak hartuko du parte.
- **Legorreta** Maiatzaren 3an, 19:00etan, Herri Antzokian. Arrasateko Ane Zuazubiskar izango da.
- **Getaria** Maiatzaren 9an, 19:00etan, kultura etxean. Oñatiko Urko Egaña izango da.
- **Idiazabal** Maiatzaren 9an, 19:00etan, Guraso Elkartea aretoan.
- **Mutriku** Maiatzaren 10ean, 19:00etan, Zabil kultura etxean.
- **Anoeta** Maiatzaren 10ean, 19:00etan, Mikelasagasti auditoriumean.
- **Oñati** Maiatzaren 17an, 19:00etan, Santa Ana antzokian.

#### BIGARREN ITZULIA

- **Antzuola** Maiatzak 25.
- **Pasaia** Maiatzak 25.
- **Alegia** Maiatzak 26.
- **Usurbil** Maiatzak 26.
- **Ataun** Ekainak 1.
- **Elgeta** Ekainak 1.
- **Hernani** Ekainak 2.
- **Soraluze** Ekainak 2.

## Goienakideen txokoa

### APIRILEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua  
SPC e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook

**EROSKI**  
ARRASATE



#### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

**ARRIKUTZ**  
GRATIKO OUBAK

#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Bidezko Merkataritza Produktuak

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Inkarim dagan! DPD 15/1998 legaren arabera, jakinarazten dizugu, zure datu pertsonalak Goiena Foruakiko Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu biltegi horien helburu bakarra da indararen dagan sustapena goienakideen. Eskubide zuzenak: ikus-erabiltzailearen informazioa, baina ez da erabiltzailearen informazioa. Erabiltzailearen informazioa: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)

## Irabazi bi lagunendako otordua

#### BERGARAKO BATZOKIA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: apirilak 23



043 25 05 05



[goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)




"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



2024KO GOIENAKIDE KUOTA: 65€  
Deitu: 943 25 05 05 • [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



DESKARGATU GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Bergaran etxea errentan hartuko nuke. Bi ume dituen ama naiz. Telefonoa: 645 70 34 10

## 3. LOKALAK

## 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Arrasateko OIarte kalean kokatuta dagoen Etxoste taberna errentan ematen da. Interesa izanez gero, idatzi naiamcnell2000@gmail.com helbidean edo deitu hurrengo telefono zenbakira: 605 43 93 04

## 305. BESTELAKOAK

**Saitokia eskualdatzen da Aretxabaletan.** Eroste-ko aukera duen Tinta Beltza Saitokia eskualdatzen da Aretxabaletan. Jostailuak, eskola-materiala eta bestelakoak saltzen dituen eta paper-gintza zerbitzua duen denda da. 943 77 07 92

## 4. LANA

## 402. ESKAERAK

**Arrasate eta Aretxabaleta.** Adineko pertsonak zaintzeko eta haien garbitasunean laguntzeko prest dagoen emakumea. Astelehenerik ostiralera bitartean, edozein ordu-tegira moldatu naiteke. 624 69 88 81

**Arrasate eta Bergara.** Orduka lan egiteko, asteburuetan edo gaueetan prest dagoen emakumezkoa. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu telefono zenbakia honetara: 632 69 40 90

**Arrasate.** Astean behin etxean garbiketa egiteko prest dagoen emakumea. Orduka lan egingo nuke. 7 urteko esperientzia dut. Deitu telefono zenbakia honetara: 612 51 42 99

**Arrasate.** Neska eskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Astean zehar zein asteburuetan orduka lan egingo nuke. Zaintzan esperientzia handia dut. 688 66 76 91

**Bergara.** Emakume arduratsua, esperientziaduna eta soziosanitario titulak, nagusiak zein umeak zaindu edota etxeko lanak egiteko prest. Lanaldi erdiz lan egingo nuke. Telefonoa: 628 64 22 76

**Bergara.** Emakumea prest goizetan pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 642 37 01 92 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** 38 urteko emakumezkoa lan egiteko gertu. Astean zehar 15:00etatik aurrera eta asteburuetan etxetik kanpo edo orduka lan egingo nuke. 612 59 36 74

**Debagoiena.** Adineko pertsonak zaintzeko eta haien garbitasunean laguntzeko prest dagoen emakumea. Tabernetan ere lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egin dezaket, malgutasun osoa baitut. 688 75 22 52

**Debagoiena.** Arratsaldean edo orduka etxeak edo atariak garbitzen lan egingo nuke. Telefonoa: 613 21 78 61

**Debagoiena.** Emakumea prest garbiketa lanak egin edota haur eta nagusiak zaintzeko. 671 64 11 25

**Debagoiena.** Emakumezkoa astelehenerik ostiralera bitartean etxean bertan bizi izaten lan egiteko prest, baita orduka edo gaueetan ere. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia dut eta erizaintzako laguntzaile eta geriatría ikasketak ditut. 602 82 14 83 (Dori)

**Debagoiena.** Emakumezkoa etxe eta tarbebetan garbiketa lanak egin edota nagusiak zaintzeko prest. Malgutasun osoa dut. Orduka, egunean zehar ezein gaueetan lan egingo nuke. Deitu telefono zenbakia honetara: 691 28 53 25.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka lan egingo nuke. 634 94 30 78

**Debagoiena.** Emakumezkoa garbiketa lanak egin edota nagusiak zaintzeko prest. Malgutasun osoa dut. Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egingo nuke. Telefonoa: 602 44 48 98

**Debagoiena.** Emakumezkoa garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. 631 90 15 92

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke, baita orduka edo asteburuetan ere. Pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo pasiatzera laguntzeko eta garbiketa lanak egiteko gertu. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Deitu 672 96 46 49 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke, as- tean zehar zein asteburuetan. Deitu 624 09 66 51 zenbakira.

**Debagoiena.** Gizonetzkoa lan ezberdinetan aritzeko prest. Baserrietan, pertsona nagusien zaintzan, fabriketan. Lan egingo nuke. Malgutasun osoa dut lan motari eta ordu-tegiari dagokionean. Deitu 604 19 00 27 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Malgutasun osoa dut lan motari eta ordu-tegiari dagokionean. Deitu 604 19 00 27 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, baita tabernari lanak egiteko ere. Malgutasun osoa duen gizonetzkoa naiz. 688 75 23 63

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Urte askotako esperientzia dut. 632 10 85 60

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago etxe, baserri eta egoitzatan. Autoa daukat. Soziosanitario eta eskor-gak maniatzeko titulak ditut. Malgutasun osoa dut. 631 98 15 50

**Debagoiena.** Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Legezko agiriak ditut. Deitu: 666 16 95 62.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edota nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Malgutasun osoa dut, etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak eta legezko agiriak ditut. Telefonoa: 631 93 11 90

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. 602 82 99 55

**Debagoiena.** Gizonetzkoa garbiketa lanetan, erai-kuntzan edo sukaldari-laguntzaile bezala lan egiteko prest. Sukaldari lanetan esperientzia dut. Legezko agiriak ditut. Deitu 633 49 39 78 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Gizonetzkoa lan ezberdinetan aritzeko prest. Baserrietan, pertsona nagusien zaintzan, fabriketan. Lan egingo nuke. Malgutasun osoa dut lan motari eta ordu-tegiari dagokionean. Deitu 604 19 00 27 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka lan egingo nuke, as- tean zehar zein asteburuetan. Deitu 624 09 66 51 zenbakira.

**Debagoiena.** Gizonetzkoa pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientzia nagusien zaintzan. Behar izanez gero, erreferentziak aurkeztu ditzazket. Malgutasun osoa dut. Deitu 643 21 04 28 zenbakira.

**Debagoiena.** Soziosanitario ikasketak dituen eta lanerako malgutasun osoa duen gizona naiz. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Deitu 672 55 67 35 telefonora.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Soziosanitario ikasketak ditut. Malgutasun osoa. Deitu 642 79 62 62 zenbakira.

## 7. ANIMALIAK

## 702. EROSI

**Yorkshire txakurra erosiko nuke.** Yorkshire txakurra erosiko nuke. Baldin baduzu edo laster izango baduzu, deitu telefono zenbakia honetara. 679 24 91 36

## 703. EMAN

**Txakurkumerak oparitzen dira.** Txakurkumeak oparitzen dira. Aita Border Collie. Deitu 624 79 52 56 telefono zenbakira.

## 805. TRUKATU

**Txilar ezitia trukean.** Txilar ezitia ematen da (miel de brezo) arrautzen, sagarren edo bestelako produktuen truke. Aretxabaletan jasotzeko prest. 656 75 76 98

## ZORION AGURRAK




**ARRASATE Danel Arizmendiarieta Zabaleta**  
Apirilaren 20an, 8 urte. Zorionak! Ederto ospatu zure eguna eta holaxe jarraitu hemendik aurrera be! Etxeuan partetik.



**ONATI Luka Regueiro Madina**  
Apirilaren 20an, 6 urte. Zorionak, Luka! 6 urte! Asko maite zaitugu. Patxo haundi bat familiak danon partetik.



**ANTZUOLA Aiora Larrea Urgoitia**  
Apirilaren 17an, 6 urte. Zorionak, Aiora! Ondo pasa zure eguna. Muxu bat Aitaxo, Amatxo eta Ekhiaren partetik!



**ONATI Martxel**  
Apirilaren 20an, 4 urte. Zorionak, Martxel! Ondo ospatu zure eguna! Besarkada bat familiarik partetik, bereziki Peru eta Natalen partetik!



**ARETXABALETA Pau Gonzalez Errasti**  
Apirilaren 17an, 5 urte. Zorionak, Pau, etxeko guztion partetik. Ona, Noah eta Dara pozik daz elkarrekin zure urtebetetze ospatzeko eta musu pilo piloa emateko.



**ARAMAIO Uxue Ezkurra Errasti**  
Apirilaren 16an, 10 urte. Zorionak, polittori! 10 urte, bi eskuek bete-bete! Oso ondo pasau eta patxo erraldoi bat familixakuen partetik!



**ONATI Julen Isasti**  
Apirilaren 16an, 11 urte. Zorionak, Txapeldun! Primeran pasau zure urtebetetze eguna eta topera disfrutau! Laztan pilla bat etxeko danon partetik.



**BERGARA Iosu Fernandez Giordia**  
Apirilaren 18an, 5 urte. Zorionak, Iosu! Ondo pasa eguna! Opari asko jaso ta pastela jan! Aitita Mario, Amama Lore, Tia Olatz eta Martiñen partetik! Patxo pillo bat!

## Korosti Inmobiliaria

**Bergara: San Antonio,**  
69m<sup>2</sup> erabilgarri,  
2 logela, terraza,  
trasteleku eta garaiea  
igogailuarekin.  
203.000€



**Bergara: Iriburu,**  
73m<sup>2</sup> erabilgarri,  
oso eguzkitsua eta  
kanpoaldekoa. Eraikina  
igogailuarekin.  
155.000€

**Bergara: Aumategi bidea,**  
96m<sup>2</sup>, 3 logela, trasteleku  
duplexa egiteko  
aukerarekin; lur saila  
aparkaleku bezala  
erabiltzeko. 155.000€



Ibargarai 3 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com

Informazio  
gehiago:



## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Garaiea Saldu/Errentan.
- Lokala Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza eman.
- Motorra Saldu/Alokatu.
- Animaliak/Saldu.
- Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro
- 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagok argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
- Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

## BERRI-ZAKUA

**Inaxio eta Rosita**

Inaxio Beldarrainek eta Rosita Alberdik 55 urte beteko dituzte ezkondata gaur. "Familia guztiaren partetik, ezkontza-urteurren zorionsua, bikote! Muxu handi bat".

## HILDAKOAK

**Libe Bengoa Eraña.** Gasteizen, apirilaren 11n. 91 urte.

**Antonia Moto Fernandez.** Arrasaten, apirilaren 14ean. 81 urte.

**Resti Solores Lopez.** Arrasate, apirilaren 16an. 97 urte.

**Roman Abarrategi Ayastuy.** Arrasaten, apirilaren 12an. 89 urte.

**Maria Victoria Azcarate Uribesalgo.** Bergaran, apirilaren 11n. 90 urte.

**Araceli Bolinaga Askasibar.** Bergaran, apirilaren 16an. 87 urte.

**Pilar Oyarzabal Osa.** Bergaran, apirilaren 16an. 87 urte.

**Federico Gonzalez Pinto.** Eskoriatzan, apirilaren 13an. 76 urte.

**Mari Paz Akizu Verduras.** Eskoriatzan, apirilaren 14ean. 86 urte.

**Oscar Cambeses Alvarez.** Oñatin, apirilaren 16an. 49 urte.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE EGUNEZ**

Egubakoitza, 19 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

Zapatua, 20 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

Domeka, 21 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

Astelehena, 22 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

Martitzena, 23 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

Eguaztena, 24 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Eguena, 25 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

**BERGARA EGUNEZ**

Egubakoitza, 19 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Zapatua, 20 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Domeka, 21 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Astelehena, 22 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Martitzena, 23 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Eguaztena, 24 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 79 19 63

Eguena, 25 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

**OÑATI EGUNEZ BAKARRIK**

Egubakoitza, 19 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Zapatua, 20 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Domeka, 21 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Astelehena, 22 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Martitzena, 23 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Eguaztena, 24 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguena, 25 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

**ARRASATE GAUEZ EGUNERO**

(22:00etatik 09:00etara)

SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

**BERGARA GAUEZ EGUNERO**

(22:00etatik 09:00etara)

OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

## ESKELA

**Libe Bengoa Eraña**

Karlos Beitiaren alarguna

2024ko apirilaren 11n hil zen, Gasteizen, 91 urte zituela.




*Zenbat kontu eta kantu elkarrekin.  
Eskerrik asko Libe emandako guztiagatik.  
Elkarrekin bizitakoarekin beti Aurrera.*

Beitia familia.  
Arrasaten, 2024ko apirilaren 19an.

## MEZA

**Roman Abarrategi Ayastuy**

2024ko apirilaren 12an hil zen, 89 urte zituela.



Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, Romanen familiaren izenean, egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi.

Haren aldeko ondrea-meza domekan izango da, apirilaren 21ean, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Arrasaten, 2024ko apirilaren 19an.

## OROIGARRIA

**Isabel Diego Ortiz  
Jose Ignacio Uribarri Jausoro**

*Leialtasuna eta ohorea.*

Eskoriatzan, 2024ko apirilaren 19an.

## OROIGARRIA

**Mari Paz Akizu Verduras**

2024ko apirilaren 14an hil zen, 86 urte zituela.



*Beti gurekin izango zara.  
Ez zaitugu ahaztuko.*

Zure kuadrillako lagunak.  
Eskoriatzan, 2024ko apirilaren 19an.

## URTEURRENA

**Jabier Maskariano Ibabe**

2023ko apirilaren 17an hil zen, Goianen, 68 urte zituela.



*Bizi izan zara adorez  
eta erakutsi diguzu  
jarraitzen kemenez.  
Zure irrifarrea gurekin  
geratzen denez,  
betiko gure bihotzean izanez,  
agurtzen zaitugu  
gero arte esanez.*

Maskañoako familia.  
Aramaion, 2024ko apirilaren 19an.

## URTEURRENA

**Maria Angeles Ayastuy Lizarralde**

2023ko apirilaren 19an hil zen, 88 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 21ean, 12:30ean, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2024ko apirilaren 19an.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**BABESLEA**

**Oroilore**  
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei esan bidea osatzen lagundu diegi, orain arte bezala, eta guztiak izango date agur berezia Oroiloren.

Gure eskerririk beronenak gogon izan dituzten konfiantzagarriak eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Maribeli eta Cristian

617 44 21 55  
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI

## ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**HAUTESKUNDE SAIO BEREZIA**

Emaitzak, datuak, erreakzioak, balorazioak... Guztiak jasoko dituzte Txomin Madinak eta Larraitz Zeberriok.

'Hauteskunde gaua' Domeka, 19:45

**ARRANTZARI BURUZKOAK**

Aitor Iciar arrantzalearekin egingo du berba Gontzal Belategik, bailarako erreketan dauden arrainen gainean.

'Landara' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**DEBAGOIENDARRAK MUNDUAN, ALEMANIATIK**

Eneko Azurmendik Alemanian bizi den Itziar Aierbe arrasatearrarekin egingo du berba.

'Debagoiendarrak mundutik' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**KAZETARI GAZTEAK IBAI LARREAREKIN**

Bergarako Ipintza Institutuko hiru ikasle antzularrek egingo diote elkarrizketa euren herrikideari, Imanol Belokiren laguntzarekin.

'Galdegazte' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**OIHANE ZUBEROARI ELKARRIZKETA**

Juan Kruz Lakastak egingo dio elkarrizketa nafar idazle eta poetari, eta azken liburuaren gainean galdetuko dio.

'Elkarrizketa' Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus)

**EGUBAKOITZA 19****OÑATI Odol ematea**

Aurrez hartu behar da ordua: 943-00 78 84.

Enpresagintzan, 16:30ean.

**ARETXABALETA Gurabarri Eguna**

16:45ean, antzezlan, eta ostean, mural margotzea; 17:00etan, jolasak, Loraturen eskutik; eta 20:00etan, Paul Casalen emanaldi akustikoa.

Kurtzebarriko kantxan, 16:45ean.

**OÑATI Bertsopaper lehiaketako sari banaketa**

Julio Soto bertsolaria egongo da ekitaldian.

Gaztelekuan, 17:30ean.

**ARRASATE AGAKOren 33. urteurrena**

18:00etan, mahai-futbol txapelketa; eta 22:00etan, Erasorik ez erantzunik gabe mural margotzea.

Gaztetxean.

**BERGARA XX. Apirilean Musika**

18:00etan, Txit, oilo bitxia ikuskizuna egingo dute musika tailerrekoek eta gitarra ikasleek; eta 19:15ean, Suzuki eta biolin ikasleen emanaldia.

Seminarixoa.

**ARETXABALETA Andramaixak antolatzekeo asanblada**

Bigarren batzarra.

Udaletxe zaharrea, 18:00etan.

**ESKORIATZA 'Ezagutuz ulertu, ulertuz maitatu'**

Aitona-amonen biografien lehiaketaren sari banaketa eta irabazleen irakurketa.

Zaldibar antzokian, 18:30ean.

**ELGETA 'Gu ere kontalari'**

Umeak eta gaztetxoak kontalari dituen ipuin kontaketa.

Liburutegian, 18:30ean.

**ARAMAIO 'Ir a kurrin' saioa**

Nerea Loiolaren 7G liburua izango dute ardatz. Liburuko pasarteak irakurri eta solasaldia izango dute. Ondoren, afaria eta jai.

Herri Eskolako aterpean, 19:00etan.

**ARRASATE 'Foto Laso' dokumentala**

Arrasate Zientzia Elkartearen eskutik.

Amaia antzokian, 19:00etan.

**ARRASATE 'Txotxparta' afari ekimena**

19:00etan, poteoa, Iratin hasita; 20:30ean, autobusa, erdiguneko geltokitik; 21:30ean, afaria Iturrietan; eta 00:15ean, itzulera.

Arrasaten.

**ARETXABALETA Castellars de Vilafrancako enakustaldia**

Vilafranca del Penedes herrikoek enakustaldia egingo dute.

Herriko Plazan, 19:00etan.

**OÑATI Hermansoloñaren urteko batzarra**

Bazkideendako deia.

Garoa abade-etxean, 19:30ean.

**OÑATI Ni Hil eta Ikarass taldeak**

Ni Hil eta Ikarass taldeak, Burrunda Faktoriaren egitarauaren barruan.

Antixena gaztetxean, 22:00etan.

**BERGARA Nevadah eta Santa Barbara taldeak**

Egubakoitzak Berreskuratzen egitasmoa. Sarrerak, zortzi euro.

Kartzela zaharrea, 22:30ean.

**ZAPATUA 20****ANTZUOLA Pagoetara irteera**

Arrola Mendi Elkartearen eskutik.

Herriko Plazan, 08:30ean.

**ARRASATE Baserritarren azoka**

Bertako eta sasoiko produktuen azoka egingo dute, eta oraingoan, artisauei egingo diete lekua.

Seber Altube plazan, 09:00etan.

**ARETXABALETA Ikazkin Trail prestatzeko irteera**

Hiru taldetan banatu eta hiru ibilbide ezberdin eskainiko dituzte, norberak aukera dezan.

Herriko Plazan, 09:30ean.

**ARETXABALETA Elikagai begetalen gaineko ikastaroa**

Ane Goikoetxea dietistaren eskutik.

Kiloka dendan, 10:30ean.

**ARETXABALETA Atxabaita Harro elkarteak deitutako batzarra**

Honako galdera hauen bueltan hausnartuko dute: Zer errealitate bizi du LGTBIAQ+ kolektiboak Aretxabaitan?; Zer behar ditugu?; eta Aurten zer?

Udaletxe zaharrea, 11:00etan.

**ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**

Herriko ondare historiko kulturala eta Arrasateko ondare eta jatorri industriala ezagutzeko. Izena emateko: 943-25 20 00 edo Arrasate.eus. 11:00etan euskaraz eta 12:15ean gazteleraz.

Herriko Plazan.

**ARRASATE Ardo Eguna**

Maidar Larrañaga eta Jon Andoni Rementeria sommelierrek gidatuko dute, Ibai-artek gonbidatuta.

Txartelak erosi beharko dira Kajoi tabernan eta Altuna lurrindegian.

Herriko Plazan, 11:30ean.

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**

3 eta 12 urte arteko haur eta aurrenerabeendako. Orduetgia: 11:30-13:30.

Erguingo gazte txokoan.

**ARRASATE AGAKO Eguna**

12:00etan, Udalatxan gaineko dokumentala; 20:00etan, Xaukena elektrotxaranga; eta 22:30ean, No Somos Cicatriz, Chuleria, Joder! eta Kaparrak taldeak.

Gaztetxean.

**ELGETA Memoria Eguna**

Epaietarik gabe "esklabo-lanetara" zigortutako biktimak izango dituzte bereziki gogoan.

Mendizaleen plazan, 12:00etan.

**BERGARA XX. Apirilean Musika**

13:00etan, Debagoieneko hari topaketa; eta 17:30ean, Bizet-en Carmen operaren proiektzioa.

Seminarixoa.

**ARRASATE Ongietorri jai gazte txokoan**

Lehen Hezkuntzako 6. mailakoendako. 17:00etan, harrera; 18:00etan, Altxorraren bila;

19:00etan, merienda; eta

20:00etan, disko-festa.

Tren geltokiko gaztelekuan.

**ANTZUOLA Ados pilota txapelketa: finala**

Ados Pilota elkarteak antolatuta, binakako txapelketa nagusiko finala izango da.  
*Antzuolan, 18:00etan*

**ANTZUOLA Laburbira**

Zortzi film laburren emanaldia.  
*Torresoroan, 19:00etan.*

**DOMEKA 21****ARRASATE 'Murugainia bira' ibilaldia**

Untzilla eta Suña zeharkatuz, familiar egiteko. Izena emateko: 943-25 20 00.  
*Herriko Plazan, 09:00etan.*

**ARETXABALETA Irteera Muru azpira**

Mendiari buelta emango diote Kurtzebarri eskolakoei.  
*Untzilla auzoan, 10:00etan.*

**ANTZUOLA San Isidro Pilota Txapelketa**

Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailak.  
*Pilotalekuan, 10:00etan.*

**BERGARA Kantu jira**

Udal Txistulari Bandak lagunduta.  
*San Martin plazan, 12:30ean.*

**BERGARA XX. Apirilean Musika**

*Txoriekin berba eitten zeban emakumia* ikuskizuna, hasiberrien eta haurren abesbatzarekin eta talde instrumentalarekin. Bi emanaldi: 17:00etan eta 18:00etan.  
*Seminarixoan.*

**ARAMAIO 'Aire!' dokumentala**

Hamahiru gaztek Maurizia Aldeiturriagaren musikan oinarritutako musika-pieza bat sortuko dute.  
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**ARRASATE 'La sed del minotauro' antzezlan**

Khea Ziater konpainiaren proposamen berri hori beste urrats bat da antzerkiaren eta arte zinematografikoaren arteko harreman-kodeen bilaketan. Sarrerak, hamar euro.  
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

**ASTELEHENA 22****ARRASATE Emakumeak eta literatura hizpide**

Irati Jimenezek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.  
*Kulturaten, 10:00etan.*

**DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio publiko duinak eskatuko dituzte Oñatin, Antzuolan, Bergaran eta Arrasaten.  
*Herri horietan, 12:00etan.*

**ELGETA Odola emateko aukera**

Aurrez hartu behar da txanda: 943-00 78 84.  
*Espaloian, 16:30ean.*

**OÑATI 'Raices profundas' erakusketa**

Hortensia Alcalá García oñatiarrak ipini ditu margolanak ikusgai, hilaren 28ra arte.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*



KHEA ZIATER

**ARRASATE 'La sed del minotauro' antzezlan**

Khea Ziater konpainiaren proposamen berri hori beste urrats bat da antzerkiaren eta arte zinematografikoaren arteko harreman-kodeen bilaketan. Sarrerak, hamar euro.  
*Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.*

**MARTITZENA 23****ARRASATE 'Kukuak kontu' ipuin kontaketa**

Vanessa Gonzalezekin, 5 urtetik gorakoendako.  
*Santa Marinaran, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Osasun mentala' tailerra**

16 eta 30 urte arteko gazteentzat.  
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARAMAIO 'Aramaio egoera eta aukera energetikoak' hitzaldia**

Irekia, interesa duten herritarrendako.  
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**BERGARA 'Elikadura eskubidea auzoan hasten da' solasaldia**

Bi esperientzia aurkeztuko dituzte: Entreiguales (Valencia) eta Turtit Auzolan (Barakaldo).  
*UNEDen, 18:30ean.*

**ELGETA Hitzez Pitz irakurketa taldea**

Saio irekiak.  
*Liburutegian, 19:00etan.*

**BERGARA 'Zelakoa ote zen Eneko Aritzaren denboran euskararen egoera?' hitzaldia**

Juan Martin Elexpuruk egingo du berba.  
*Olaso dorrean, 19:00etan.*

**ARRASATE 'El chico y la garza' filma**

Martitzenetako emanaldia.  
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

**EGUAZTENA 24****BERGARA 'La bicicleta, una máquina móvil, veloz y bella' hitzaldia (ekainera atzeratuta)**

Iñaki Uriartek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.  
*Seminarixoan, 10:00etan.*

**ANTZUOLA Piano eta gitarraren ikasleen saioa**

Piano eta gitarraren ikasleen saioa izango da.  
*Olaran etxean, 15:00etan.*

**ARETXABALETA 'Katalinen bila' ipuin kontaketa**

Miren Larrearen saioa, 5 eta 8 urte arteko umeendako.  
Gonbidapenarekin.  
*Txiki Txokotan, 18:00etan.*

**ELGETA Astrotapaketa**

Ilartegi elkartearen gidaritzapean.  
*Liburutegian, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Lurralde eta herria' hitzaldia**

Eneko Bidegainek egingo du berba.  
*Kulturaten, 19:00etan.*

**ANTZUOLA Antzuolako txarangaren estreinaldia**

Kalejira egingo du, eta ostean, emanaldia Bergarako Musika Eskolako bandarekin.  
*Torresoroan, 19:00etan.*

**EGUENA 25****ARRASATE Sasoibide**

Bi ibilbide aukera Aramaio: herriko bira edo errotara bisita.  
*Kontzezinoko geltokian, 09:55ean.*

**ARETXABALETA Haurren eta nerabeen sexualitatearen gaineko hitzaldia**

Eider Goiburuk egingo du berba, Treba egitasmoaren baitan.  
*Arkupen, 18:00etan.*

**BERGARA 'España, ¡Qué país Mikelarena!' liburuen aurkezpena**

Iñaki Anasagastik aurkeztuko du.  
*Olaso dorrean, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako saioa**

Antton Fernandez, Peru Airtza, Libe Goenaga, Asier Ibarguren, Andoitz Urdapilleta, Joar Garate, Enaitz Murua eta Jon Mata.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**OÑATI 'Puan' filma**

Jatorrizko bertsoian eta azpittuluekin. Sarrerak, bost euro.  
*Kultura etxean, 19:30ean.*

**ARRASATE Tarah Who? taldea**

Frantziako taldearen zuzeneko, Kooltur Ostegunetan.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

**ZINEMA****ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****Los niños de Winton**

Zapatua eta astelehena: 19:30.

**Luca**

Zapatua: 17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA****Los niños de Winton**

Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka eta astelehena: 19:30.

**Emma y el jaguar negro**

Zapatua eta domeka: 17:00.

**GASTEIZ****FLORIDA****Robot dreams**

Zapatua eta domeka: 12:00.

**Pajaros**

Egubakoitza: 17:00, 19:15, 21:30.

**Zapatua eta domeka: 16:45, 19:00, 21:00.**

Astelehena eta martitzena: 16:30, 19:00.

Eguaztena: 17:30.  
Eguena: 16:30.

**Kung Fu panda 4**

Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**La familia Beneton**

Egubakoitza: 18:35.

Zapatua eta domeka: 12:00, 18:35.

Martitzenetik eguenera: 17:00.

**Pequeñas cartas indiscretas**

Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.

Astelehena: 20:00.

Martitzenetik eguenera: 19:30.

**Radical**

Egubakoitzetik domekara: 21:45.

Astelehenetik eguenera: 19:30.

**El salto**

Egubakoitza: 16:30, 22:30.

Zapatua eta domeka: 20:30, 22:30.

Astelehena: 17:30.

Martitzenetik eguenera: 19:30.

**Menudas piezas**

Egubakoitza: 18:45, 21:00.

Zapatua eta domeka: 12:00, 18:30, 20:30.

Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30.

**Sangre en los labios**

Egubakoitza: 17:00, 21:30.

Zapatua eta domeka: 17:00, 22:30.

Astelehenetik eguenera: 19:45.

**Civil war**

Egubakoitza: 16:30, 21:30.

Zapatua eta domeka: 17:00, 19:15, 21:30.

Astelehena eta eguaztena: 17:00, 19:15.

Martitzena: 17:00.  
Eguena: 16:45.

**Dragonkeeper**

Egubakoitzetik domekara: 18:30.

Martitzenetik eguenera: 17:30.

**Dragonkeeper (euskaraz)**

Egubakoitza: 20:30.

Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**La chica que sanaba**

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:15, 22:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Rosalie**

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehenetik eguaztena: 16:45, 19:00.

Eguena: 16:45.

**Emma y el jaguar negro**

Zapatua eta domeka: 12:00.

**20 dias de Mariupol**  
Egubakoitza: 18:30.



# 'HAUTESKUNDE GAUA' GOIENAN ZUZENEAN

DOMEKAN, 19:45EAN HASITA  
GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN  
LARRAITZ ZEBERIOK ETA TXOMIN MADINAK AURKEZTUTA  
TOKIKO BERRIEMAILEEKIN

ANALISIA: ELENA LAKA

GONBIDATUAK: PELLO URIZAR (EH BILDU) ETA AINTZANE OIARBIDE (EAJ)



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA



**goiena**

Zu hemen zaude.